Pablo Sastre

Hotel Majikoa

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1984 Pablo Sastre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1984
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

I – Non Niko heldu bait da

Taxistan agur esanda edifizioaren aurrean aurkitu zenean, Nikok esan zuen bere baitarako: «bueno, ya estamos aquí», eta eskailerak igotzekotan maletak jaso nahi izan zituen.

Baina eskaileretan beheiti hor zetorren bixkor mutiko uniforme gorria, begi bihurriz esan ziona:

– Laga, laga, nik eramango dizkizut –eta zerbait ahaztu zitzaiolakoan heldutakoa berriz lurrean utzirik:– ah, eta egun on, eta izan zaitezen hotelera ongi etorria.

Nikok, ez bait zuen ezer ulertzen, eskerkoi, burua makurtu zion mutikoari, eta batera eta bestera ingurua aztertu ondoren (gutxi ikusten zen, bazterrak lainoak estaltzen bait zituen), haren atzetik abiatu zen eskailera luze-luze eta zabal-zabal hartan gora.

Sartu zirelarik hotelean, hall-sala zeharkatzen hasi ziren, arin mutikoa, eta Niko, gibeletik, geldiro.

Leku freskoa zen, garbia, hain freskoa eta hain garbia Nikori ur gardenezko piszina baten gainean ibilki zirela iruditu bait zitzaion. Efekto honen lagungarri, kristalezko lurra, zeinaren atzean berde mediterraneoa antzematen bait zen. Kristal haren dirdirrak, salaren argi ugarien erreflejuak ote ziren, ala lurazpiko uraren mogimenduarenak? «Agua será probablemente», pentsatu zuen Nikok, nahiz eta erabaki honek beste zenbait dudan bidea irekitzen zion.

Bista lurretik altxatuz gero, bestelako panorama zegoen: mostradore luze bat zegoen fondoan, eta haren bestaldekoak paperetan suntsituak, eta alde honetakoak despiste arpegietan sartuta, nor bere gauzetan denak galduta, nahas-mahasa ederra zen.

Bestela, alde batean zein bestean, mostradore gehiago zegoen, laburrak eta luzeak, estuak eta zabalak, altuak eta bajuak, pertsona bakar batekoak eta pertsona pilo batekoak. Batzuen funtzioa argi eta garbi zegoen; hala nola, euritakoak jasotzen zituena, lagun gazte polit batek atenditua; eta erlojuak eta termometroak saltzen zituena, tiktakez gainezka, hura ere lagun

bakarrekoa, zaharra bazen ere bera ere polita; eta «informazioa» rotulopean aktibitate handia biltzen zuena, luzeenetakoa zena; bai, dudarik gabe hala izango zen, zeren eskailera maila batzu igo eta gero bistatik galtzeraino segitzen bait zuen, mostradore horrek.

Mostradore honek libre utzi korridoreetatik, zenbait gora zenbait behera, hala ere gehienak gora, eskailerak. Era batekoak eta bestekoak zeuden, eskailerak ere. Eleganteak eta egur zaharrezkoak, lauak eta xutak, zuzenak eta errebuelta askotakoak. Batzuetan tipi-tapa hasi eta korridore berri bat, mostradore gehiagoz. Beste batzu bikoiztu egiten ziren erdibidean.

Aszentsoreak ere baziren, asko. Handia ez ezik (bertatik bistan zegoena, bukatzen ez ziren mostradoreak, tartekatzen ziren korridoreak, eskailerak), luzea izan behar zuen hotelak, aszentsore ondoetan lurretik metro erdi batetik gora denak bait ziren botoiak.

Nikori freskura atsegina iritsi zitzaion. Nondik eta, arrosaz jantziriko atari batetik, ikusi zuen, patio-jardin berde-berde batetik, zuhaitz zaharrez baretua, belar ebaki berriz gozatua, gaueko

euri ttanttaz eta maiatzaren eguzkiaz epeldua, harrizko iturri bat erditsuan, eta handik, marabila hura zeharkatzen zuen bideska batetik, bi neska ikusi zituen, bizikleta bana zeramatela, xortetan bata, gona motzetan bestea, izterrak erritmikoki batera eraginda aurrera goxo-goxo, eguzkiak samur ukituak, berdartean sartzen eta sartzen...

Hura ikustearren apur bat gelditu bait zen, maletak zeramazkion mutikoa galdua zuen, eta orain zen lekua txikia izan arren bilatzen zuenaren gisako mutiko uniforme gorriz beteta nola zegoen, kosta zion pixka bat berearen aurkitzeak, nahiz eta segidan ikusi, mostradore baten albotik joateko keinu egiten ziola.

Mostradore hartan «jendehartzailea» zioen txartelak. Tipo luze serio gorbata mariposa zen atzean; harekin, idazkari bizkar konkor bat eta hiru sekretaria begi luze. Nikori ez zitzaion konkorra gustatu; ñir-ñir luzatu zitzaizkion sekretarien begiak bai, gustatu egin zitzaizkion.

– Niko Jauna? –galde egin zion tipo luzeak, irribarre okerrez.

– Bai... –hura bait zen prezeski euskaraz zekizkien bi hitzetarik bat.

– Zure esperoan ginen. Bart abisatu zigun Mujika jaunak gaur iritsiko zinela.

– Ah... Mujika... –deus ez zuen ulertzen Nikok baina lagundu nahi zuen.

– Bai, hark abisatu zigun, lasai egoteko zure bila etorriko omen bait da hura, bitartean deskantsatzeko, beharra izango duzu eta, biaje luzea izango bait zenuen noski, bai eta bada puxka bat honaino... (Nikok tipo luze haren aho okerrari sorpresaz begiratzen zion, eta besteak:)... orduan, ez apuratzeko, eta beste zeozer nahi al duzu?

Galdera zela bai antzeman Nikok, ez ordea zer galdetzen zioten, eta lotsatia izaki aparteko gauzarik ez bait zuen inbestigatuko, eta bestea, Nikok jarri aurpegiagatik, dudarik gabe bere ezulertzeaz ohartuko zelakoan, eta honi buruzko galdera «interpretatzailerik behar al duzu?» (orduan «bai» erantzungo zukeen) baino «ulertzen al didazu?» izateko probabiltate gehiago zuenez, esan zuen:

– Ez –hura bait zen euskaraz zekizkien bi hitzetarik bestea.

Tipo luzeak ez jarraitu antza Nikoren arrazoinamenduen haria, eta bi keinu burokratiko egin zituen, bata Nikori «ederki» esateko, bestea mutikoari «Txo, hirurehun eta berrogei-ta-hamazazpigarrenera eraman ezak», eta ahoaren okerra irribarre batez azentuatuz, agur emanik, beste batengana (emakume gazte tonelada, hura) itzuli zen.

Orduan sekretaria bat altxatu zitzaion eta:

– Ongi etorria, Niko –esan zion, oso lagunkoi–; ni Fela naiz, hau da Kolette eta beste hori Pilartxo...

– Bale, bale –moztu zion jendehartzaileak–, Niko jaunani ez zaio zuen izenik interesatzen –eta Fela jarrarazten zuen, eta berak toneladarekin segitzen.

Txo eta Niko –ameslari, Niko– aszentsore batera joan ziren, eta biak bakarrik sartu. Ez jakin zenbatgarren botoiari eragin zion Txoren esku txiki fuerteak. Nikok eskutik aurpegira pasatu zion begirada; begi bizia zen Txo, azkarra noski. Eta, esan zion:

– Txo? –seinalatuz, eta galdera osatzen zuen keinuz.

– Bai; ni Txo naiz; zu Niko zara? –edonork pentsa lezake hitz egiten zuelarik bihurrikeriaren bat prestatzen ari zela.

– Bai, ni-Niko –kasualidadez atera zitzaion.

Txok, majo-majo esan zion:

– Hemen (eta berriro, behatzez lurra apuntatuz:) hemen, kontuz ibili beharko duzu, konprenitzen?: kon-tuz.

– Bai-bai: kon-tuz –Txorekin hobeto konponduko zen.

– Hemen, zurekin zu-re-kin, nik, entzuna dut, en-tzu-na, bai?, gauza franko, hola, interesak badaude, in-te-re-sak, bai?, zu-re-kin.

Iritsi ziren, eta Txok ezin gehiago esplikatu, edo nahi ez, eta eskoin-ezker-eskoin gela bateko atea ireki zion, sartu zen eta maletak lurrean utzirik:

– Hauxe duzu gela; eta edozer gauza behar baduzu, gogora: ni Txo naiz.

– Bai: Txo –eta mutikoaren laguntasun seinaleari eskuz erantzun zion. Eta bakarrik gelditu

zelarik pentsatu zuen: «Sí que es majo si». Eta, poliki, ohean jan zen, etzanda.

II – Aldaketa polit bat

Gelara, bisilo mehetatik, argi gutxi-gutxi sartzen zen, eta Nikok, hobeki ikusi asmoz, begietatik pasatu zuen eskua; halere berdin gutxi ikusten zuen. Burua alde guztietara mogitu zuen eta gelaren proportzioetaz ohartu zen; gelak, sartu zenaz kanpo, beste bi ate zituen, pareko hormaren bi muturretan, eta izkina batean, dutxa egoki bat; tetxoa ez zen ez altu ez baju, bajutxoa menturaz, neurri onekoa nolanahi; dena, goia eta paretak, zuriz pintatuta, anbiente atsegina, argizai berriz emaniko zurezko lur beroa, inondik inorako mogialdian ezerekin ez topatzeko aski espazioa, segun zer dantza egiteko ere, bazterrean mahaia, sendoa baina ez astuna, pareko bi atetartean aulkia eta haren gibelean ispilu garbia, eta Niko hantxe, «¿qué haces tú ahí?», sila baju bat arropak uzteko, zer gehiago?, hura zen lujua!, total dutxatzeko gogoa izan zuela Nikok.

Dutxa telefonotik ura, zernahi, eta Nikoren gustokoa, ez bait zegoen ez hotzak ez beroak epela hartu zuen, gero beroska, gero hotzeska,

gorputzak nahi bezala, eta handik irtenda lehortzea beste plazer bat izan zen, eta gero garbi-garbi janztea, eta maleta batetik ateratako koadrotxozko zapia sakelan ezartzea, hura izan zen atzean zer zegoen ez zekien bi atetara abiatu baino lehen egin zuen azkeneko gauza.

Ate bat itxia zegoen. Orduan, bestera jo zuen.

Tira egin eta suabe ireki zen bestea. Ilun zegoen, eta Niko geldi-geldirik aurrera egin gabe. «Qué habrá por ahí?», izan zuen duda-muda. «Vamos a ver», deziditu zen ordea, eta ziri-zara sandaliak lurretik aitzina lerratu zituen; topo egin zuen zerbaitekin; altxatu zuen hanka deus ikusteke eta, bai, eskailera bide zen. Nikok begiak hertsi zituen, bista bortxatu gaberik gainontzeko sentiduak zorroztuko zitzaizkiolakoan, eta orain bat orain bestea goiti eta goiti segitu zuen, ezkerrerako zirkuloetan. Itzuli bat osoa emana zuela kalkulatu zuenean, are mantsoagotu zen eta eskua aurrera bota ate batekin topo egiteko beldurrez eta xedez baina ke-ba, eta egin zuen jarraitu gorakoan, denbora puxka batez jarraitu, orain ia beti eskua aitzindari, eta espazioaren

sentidua arras galdua zuelarik pan!, zerbaiten kontra esku zabala.

Bere buruan haraino zer demontretara iritsi ote zen galdetzearekin batera («¿me bajo o no me bajo?» pasatu zitzaion instantean), kolpatutako atea, atea bait zen, zabaldu zen, eta baserritar tankerako gizakume lodiak gonbidatu zuen:

– Ahí madera hecho no quedes: pasa, pasa.

Bere hizkuntzaren aditzeak besterik gabe pasarazi zuen Niko.

– Ah, sabe usted mi lengua.

– Si tu lengua es no sé yo, que sé sé sólo.

– ¿Y esto qué es? –sartzerakoan hango hotsa eta zurrunbiloarekin begi zabalik gelditu bait zen; izan ere, mahai luzeak ziren paratuak gela luze hartan –gela al zen?; pilotaleku iduri–, eta ehundaka lagun ari zen gogotik jaten eta edaten, eta zein harro zein fuerteago denak ojuka. Kafesne katiluak husten ziren eta haietan bustirik gailetak eta ogia gurina eta mermeladarekin.

– ¿Y esto qué es? –galdetu zion Nikok bere lagun berrari.

– Alguno ha muerto y desayuno hay. Pero sienta, sienta –eta aulkitxoa eskaintzen zion, eta bera aldamenekoan jartzen zen–. Yo soy Jerónimo. Tú quién eres no sé pero de aspecto malo no eres y come y bebe a tu gusto.

Niko gosetua zen, baina moderazioz ahal izan zuen ogi mirrinik txarrena hautatu zuen.

– ¡Bueno, bueno! –besteak, protestan, keinu zabalez–; dále, dále sin miedo; que yo entre dos este otro doy.

Eta pandereta jotzen hasi zen eta halako graziaz ze ingurukoen masailen gorriak barrezka nabarmendu ziren; giro egokia, Nikok nasaiki jan zezan, eta halaxe egin zuen, poliki baina jarraiki. Bukatu orduko musika, Nikok tripak berdin antzera, eta orduan bota zion lagunari galdera:

– Oye una cosa, yo aquí quisiera aprender euskara, ¿tienes idea de cómo...?

– Cosa hermosa pides –erantzun zuen Jeronimok, txapela atzera botata–, y fácil, lo demás. Echa trago.

Eta bete zion basoa Nikok hustu zuen, gogoaren bustigarri.

– Para euskara aprender primero que hazer tienes ésto es, cosas de un modo contzibes, de otro contzebir. Por ejemplo –ikusten zuen Niko galdurik zegoela:– ¿verde es ésto?

Erakusten zion perrexil sorta ikusirik:

– Sí, es verde.

– ¿Ves? Pues este igual en euskara no es verde. Di, por otro lado, así en una palabra, ¿cómo me ves, yo?

– La verdad, gordo.

– ¡Aja! Pues gordo no soy, normal soy yo. Y otra, ahí viene esa chica, ¿qué te pareze pues?

– Encantadora –atera zitzaion Nikori, gehiegizko neskatila bait zen pasatzen zena.

– Sí lo es, sí –baina segidan:– ahora, igual en euskara no es tanto, o sea, matizes hay en esa chica aquí y allí y no sé dónde misma cosa no es, quiero dezir que, bueno, a saber qué dezir quiero. Tú, bebe –eta Nikok ardoak hesteak itotzen zizkiola somatzen zuela:– Para aprender, segunda cosa, todo de atrás adelante poner.

– ¿Neiugla-árednetne-ay-y?

– Esagerar, tampoco: digo, de palabras, grupos, atrás está, aquel delante.

– Eso hecho está; fácil se comprende.

– Ya digo pues: chupado. Hay que ensayar, en cambio.

– Ensayar haremos.

– Bien vas, bien. Tertzera cosa. Habla con sonidos, con «eup» saludas, metes mucho «dios» y «noski» y «auskalo» si tiros por dónde van no sabes; méte ña a chica, a chico ka méte, y con eso y algo más, poco, hecho lo tienes, ciertamente.

– ¿Y ahora qué?

– ¡Bebe pues, ese es el truco y!

Nikok hirugarren basoa sartu zuen, eta behekaldean sobera bait zegoen, burura goititu zitzaion oraingoa, eta hortik, nolazpait, mingainera-tu, eta:

– Cnocudo, cnocudo, Hors HezHaO...

– Aibadios, ¿qué he hecho? –bota zuen Jeronimok, jeiki zen, eta joan zen, nonbait izuturik.

Ez zuen Nikok bere hitzetan deus alarmatzekorik ikusten, eta zergati bila ingurukoei begiratu zien, baina horrenbesterainokorik ez zuen inorengan aurkitzen.

Nor zetorkion orain, ordea? Eta, lehentxeago gehiegizko iruditutako neskatila, beltxaran zoragarria, soineko motz gardenez eta bragarik gabe, ipurdi borobil brontzeatu samurra, huraxe eseritzen zitzaion Jeronimok utzi lekuan, eta esaten:

– Zer, laketzen haiza, Niko?

«Non ikasi du neska honek nere izena?»

– Ari naiz, ari –teteldu zion.

– Askeska behar duk, askeska; ez zegok besterik. Alde egin dikena, Jeronimo, lagun ona duk, bai ona; kaska gogortxoa ere bai ordea, eta zernahitarako ardoa emanen dik aholku; eta ez zegok horren beharrik. Askeska behar duk, ez beste deus. Jeronimo mendi-mendian bizi duk, eta han, txarra eta zikina baina erdaraz baizik ez zekitek; historiak dena hankaz goititzen dik eta, menditar honek, denboraren pasatzeaz, zereginik ez ditek. Mmmm... –geriza heldu batez ezpainak moratzen zituela aldatzen zuen gaia eta espresioa–; ze goxo dagoen...

Niko barruraino zegoen ondo, sentidu guztietarik inpresioak biltzen, eta neska paregabe haren musika eta irudia urruntzen zitzaizkiolarik

(neskak aingeru begiz eta esku delikatuz gero arte esan ondoren jadanik alde egiten bait zion), fondoko mahai luze haietako batetik agure baten ahots zaharra heltzen zitzaion:

> *Hiru ta bi bost dira, bost eta bi zazpi; neskatxak mutiñekin ez dabiltza gaizki.*

III – Hamarretan hamarretakoa

Ideiarik ez. Nikok, kantu-jaialdi hartan zenbat denbora egin ote zuen. Halako batez, alimaleko laguna heldu zitzaion eta, hizketarako matrail hezurra apenas mogitzen zuela, esan zion:

– Mujikaren esperoan haizena ez haiz izango, hi? Haren aurpegi mehatxukorrez ez zuen Nikok brastakoan erantzuten asmatu, eta azkenez:

– Neu naiz, bai. Oraintxe esperoan ez, baina.

Segundoko hamar bat hitz egozten zuela, besteak:

– Atzerapen txiki inboluntario bat izango duela-ta, etorri ez duela berehala egingo-ta, bienbitartean inguru-bazterrak piska bat ikus ditzakeala nerekin nahi baldin baduk. Gerrikoak aske, jendeak kafeak eta kopak kontsumitzen zituen. Mutil kozkor hordi batzu zeuden orain kantan, ziotenaz inor enteratzen ez zela.

Goazen, bada –zutitu zen Niko; eta segidan:– nora joan behar dugu, baina?

– Paraje batzu badituk hemen hire interesekoak daitezkeenak; eta, haiek ikustera –eta esku mogimendu lasaiaz jendetartean bidea egiten zuela kanpoaldera abiatzen zen.

«Mujikak esanda jakingo ote du honek...?», pentsatu zuen Nikok, eta jarraitu zitzaion besteari.

Laster bulla atzera utzi eta mendi gorrian ziren. Han, haize xirrixta zegoen, bero baina, beroz txoriak berak gordean eta isilik; bide xidor bati segika gurdi bidera heldu ziren, eta han astoa gurdi gainean zeramala sokatik tiraka zihoan laborari bat agurtu zuten, eta beste inor ikusi gabe aurrera jo zuten, kurba batean beste bidets batean goiti, goitiago eta preskoago, lainoa ordukotz, haize lasten batez hotza sentitu zuen Nikok baina, bestea gelditzen ez bait zen, harekin joan beharko.

Sarri baserri baten aurrean ziren. Handia zen baserri hura, ikaragarri handia, etxeaz at beste hiru dependentzia, bata txerriendako segur, haren atarian han bait ziren tirripi-tarrapa bazka egiten zerri gizen batzu. Haien artean, jolasean,

begi berde urdinezko ume tipiak, muki kandelaz, laztan egiteko modukoak.

– Hemen gosari egitea ez duk nik egingo ez nukeena!

Gehiagorik ez baina, kafesnea bai gustora edango zuen Nikok, madalena guri-guria baldin bazegoen bertan beratua, eta buruz baiezkoa eman zion lagunari.

– Kaixo, Xelmo! –bota zuten oihua leiho batetik.

– Xo, Manuela! –erantzun zuen Xelmok, hala deitzen bide bait zen Nikoren laguntzailea.

– Sar zaitezte, sar –goitik emakumeak, fuerte, zerriek ongi ezagutzen zuten ahotsez, konpuesto eske gur-gurka hasi bait ziren.

Xelmo sartu zen, eta Niko sartarazi. «Hauek dira paisajeak eta ohiturak», pentsatu zuen Nikok, txerri-mutikoei azken soa eginez.

Igo ziren eta han, kea baizik ez zegoen gela hondamendi batean, logela izan zitekeena (bazegoen tipo bat izkina batetan ohe gainean seko), baina ikuilu ere zitekeena zena (behorraren bizkar beroa ageri zen bi txapazko atearen gibelean), eta hala eta guztiz Nikok sukaldearen

trazak hartu zizkiona (errearen usaia, eta han fondoan zenbait emaztekiren ipurtarinak dantzan), han bada, batera-besterako emazteki haien kontura, primeran, gizonezko batzu zeuden eserita, sartu xingarra ogibitartean eta benga barrura beste zuloska batetik porroitikako ardoz laguntzen zirela. Solasean denak, eta trankil orruka.

Nikok ezagutzen ez zuen gaia zerabilten.

– Maskarada zera horretan denak dituk bueltak, berehala aspertzen haiz!

– Ezetz gizona, hi pastoralaz ari haiz, jakingo al duk zer den bata zer bestea!

– Ez, hik erakutsiko didan, munduan oso ibilia nola haizen!

– Ikasi dukenerako ibili beharrik ez zegok!

– Ni harekin niagok!

– Ba ez, hori ez duk hola e!

– Nik hala ikusia!

– Hi begi baldarra haiz-ta!

– Redios!!

– Ken ezak burua erreko bait haut!

Nikok entzun egiten zuen, eta baxterrean, lo zegoenaren aldamenean gelditu zen isilik; Xel-

mok berriz dinbi eta danba bi gizakumeri bultza egin eta solasaren erdian jarri zen.

Ana esaten zioten neskatila sugandila etorri Nikori eta ea zenbat arraultze nahi zituen. Mesedez, kafesnea, baldin bazegoen, galdegin Nikok, zeinarekin kafesnea ez ezik –eta ze gozoa, behi esne beroa–, Anaren sinpatia ere irabazi bait zuen.

Ana ere sinpatikoa izaki, nahiz eta hango denak bezain oihularia, eta maskaradetatik ez ziren ateratzen, eta Ramon esaten ziotena hasi zen lurralde haietako dantzaren nolakoak erakutsi nahirik, eta «Ho-Pitxu!»-ka batzuen eta besteen gainean saltoka hasi zenean, kaxuelak botzeaz bat, denen barneak eragin zituen, ez Antselmorenak horratik, honi Ramon saltsa hura bere emaztean eskua sartzeko aprobetxatzen ari zela iruditu bait zitzaion, edo hala pentsatu Nikok behinik-behin, haren lagun gutxitako aurpegia ikusirik.

Nikori ere umorea goitiska, eta Ana albotik pasa eta zerbait esateko une egokia zelakoan:

– Kafea ona dago, eta zu polita zaude.

– Egon ez, izan banauk –erantzun zion Anak; aski deskalabrua Nikorentzat, erantzuteko betarik izan gabe neskak alde egin ziolako.

Orduan, leihatilatik, fenomeno polita ikusi zuen. Bazen etxe aurrean soka batez estekatua ahari bat, hura lehen ikusia zuen etxerakoan, sasiari pazientziaz horzka-horzka. Orain, aldiz, ikusi zuen nola alde batera begiratzen zuen, nola bestera ondoren, eta inork ez zekusalakoan, hortzen tiraldi batez soka askatu eta polliki haseran baina geroz eta lasterrago, hanka egiten zuen. Nikok aharia urruntxo abiaduran zihoala orein bilakatzen zela zin egingo zuen.

Keaz zorabiatzen ari zelakoan, xutitu zen eta, inor konturatu gabe, sukalde zabaletik atera. Eskailerak jeitsi eta atarian, esnea pertzatik marmitara botatzen ari zen atso xahar-xahar batekin aurkitu zen.

Hark, dudarik gabe, Niko seme-alaba-ilobaren baten laguna zelakoan, galde arrunta egin zion:

– Ontsa zarea?

– Bai, ontsa. Zu berriz lanean?

Atsoak pertza hartuta behietara itzultzen zen, eta Niko haren itzalean.

– Egin beharra! –eta behi gorriaren errape ondoan jarrita titiak garbitzen zituela, Nikori begira:– Hor dira egun denak alegrantzian, ontsa da hori, liberti daitezen, hortakotz ere eginak bait gara.

Nikok xoratuta behatzen zituen atsoaren begi malkotsuak; etsipenaren atzean indarra nabaritzen zion.

– Horiek –jarraitzen zen atsoa, goian zirenengatik– ez dira hemen gelditukо ez; ez dute ilobek hemen gelditu nahi. Zertarako gelditu? Latza bait da hau; hemen latza da gero...

– Ba ni –lipar bat pasata ez zuen Nikok jakingo hitzok nola irten zitzaizkion–, ni gustora gelditukо nintzateke hemen –eta hobeto pentsatu bait zuen:– ustez.

– Lan egin nahi baduzu gogorra da hemen –atsoak nonbait Nikok gelditu nahi zuela interpretatzen zuen.

– Ez, ez... Ni kanpokoa naiz...

Atsoak, praktika, moztu zion esateko:

– Han, gaizki gauzak!

– Bueno...! –Nikok ez zekien horretaz zer esan.

– Aizu –atsoa altxatzen zen eta gertura:– mesede bat egingo al didazu? –Nikok baietz eta orduan atsoak:– Fijatuko zinen noski hona sartzean, ezkerretara borda bat badagoela. Borda horrek harunzko aldetik sarrera bat badu, eta han barnean laupabortz hortzekoa badago, ba, hura ekarridazu, behar bait dut hemen...

– Nola ez? Berehala hemen nago –agindu zion Nikok, eta arin abiatu zen.

Etxeari buelta ematen hasi eta oilotegia hemen, baratza hor, lokatza han, buelta ez zen bukatzen. Lokatzan sarturik zegoela, gaztain baten atzetik, basa gizon ikaragarria agertu zitzaion, neolitiko itxuraz arropak xeheturik eta makilkotea eskuan zuela.

– Arren, borda bat badago etxe sarreran eta nola naitekeen...

Basa gizonak begiak odoletan txertaturik altxatu zuen makila eta:

– Han –esan zuen, eta makila gora eutsi.

Nikoren orientazioak bestela zioen baina ez zen inolako objeziorik egitera ausartu, eta milesker emanik seinalatu bidetik joaki zen.

Aitzinxeago, kapilla txiki bat bazegoen, eta metro batzutara harri gastatuzko hilobia, inskripzio bakartzat «FERMIN» zeukana. Nikori hilobi hartan baserriko atsoaren gizonaren hondarrak egon zitezkeela bururatu zitzaion. Urteak izango zituen. Beharbada itsuski penatuko zuen atsoak harekin; horrek esplikatuko zuen oraingo etsipena eta gogortasuna. Atso hura hobeto ezagutzekoa zen; izan ere, zer ez zekien baina, bazuen zerbait...

Holatan eta halatan, uste ez bezala, atsoak bidali bordara basa gizonak gidatu xendratik iritsi zen.

IV – Hiru sorgin eta bi senar

Bordan sartu eta han ez zegoenik ez zegoen; baserri tresna guzti-guztietarikoak zeuden han. Ezker izkinan eta amaraunez josirik laiak bazeuden, gero kalidade eta kondizio guztietan eskuareak eta arrastailuak, sispak eta sardeak, igitaiak eta segak, medialunak eta haitzurrak, borrak eta matxeteak; denak gainetikan ikusten minutu batzu egin zituen Nikok, barrurakoan zihoala. Azkenean, hiru lau eta bost hortzetakoak zeuden.

Ale batzu izan ezik, egurrezkoak ziren hortzetakoak, baina batzu erdi usteldurik zeuden, beste batzu berriegi eta lanerako ez egoki. Sofistikatuak ere bazeuden, belarrak automatiko jirabiratzeko mekanismozkoak, hortzak garbitzeko zepilo bat erantsita zeramatenak, eta Nikok, mendian gutxi ibilia, zertarakoa inolaz asma ezin ziezaiekeenak.

Gora beha gora heha (lanabesak langa luze-luze batetik eskegita bait zeuden), bapatean braust!, ahozpez behera Niko.

Begiak ireki zituenerako –ez zuen hala ere konortea galdu– dimentsio berritako leku batera iritsi zela otu zitzaion; lasten ohartu zen ez zela hori, baizik eta leku ilun batean hanka batetik zintzilik zegoela. Ez zegoen Niko indar betean, eta ezin askatu hanka.

Lastategia bide zen hura, edonon zeuden lasto piloak behintzat. Inor ez etortzeko beldur zen Niko, luzaz irauteko posizio hura ez bait zen arront erosoa. Gazte ahotsak entzunda ez zen gutxi alegratu.

Urrera-urreratzen, hiru lagun zetozen, hi neska eta mutil bat, mutil zezena hau, biziki sendo, neskak aldiz elkarren antza handikoak, gona heltzez, galtzerdi ilunez, takoizko zapatak, brusa askea eta ezpain-begietan zenbait pintura gorri-beltz: haragiz ongi betetako larru zuriak, bi neska haienak, haien begiraden sentsualidadea areagotzen zutenak. Bera ikusi eta jeitsi zutelarik ikusi zituen Nikok xehetasun horiek eta beste.

Mutil sendoak, lastoa goxatuz, iadanik paratzen zuen lekua, lauak jarri zitezen. Bi neskak eseri eta Nikori, eser zedin esan zioten. Begi onez jarri zen Niko, eta laukia osatzeko (ez bait

zen lauki geometrikoa, norbere gogora ezarri bait zen) mutil eder sendoa, eskuan zumeki luze bat jolasean zerabilela.

Ijitoak ziren hiru lagun horiek: euskaraz jakinagatik hemen artean Nikori zeharo misterioso egiten zitzaion hizkuntzaz egiten zuten, oihartzuntsua, musikala, kabalistikoa. Nikok atseginez entzuten zituen. Neska batek txokolate puska eskaini zion, eta Nikok onartu egin zion. Arbra zuen izena neska honek, eta hitz gutxitakoa zen: haren brusaren hostoek zeozer izkutuzko gordetzen bide zuten. Lilhi zen bigarren neska, eta Srusta, mutila.

Mutikoxka bizia heldu zitzaion orduan Nikori, hura ere ijitoen arrazakoa, eta esku beltxa luzatuz Arbrak emandako txokolatea eskatu zion. Ez zion Nikok eman segi-segidan, eta mutikoxkak alde egin zion.

– Hi! –hots egin zion orduan Nikok–, hator hona, tori txokolatea.

Baina ijito kozkorrak orain mesfidantzaz begiratu zion eta buruarekin ezetza eman zion. Niko harriturik gelditu zen umearen heldutasunaz, oportunidade bakarra emate horretaz, eta damu

izan zuen lagun gisa eskatu ziolarik txokolatea eman ez ziolako.

Bee mintxo batek aterarazi zuen pentsakizun horietatik. Hura entzunik, zutitu ziren neska-mutilak, eta, Nikori lagun zitzan gonbidatuz, abiatu ziren.

Ibili eta ibili egin zuten. Bidean aurrera, haseran aiene entendigaitzak zirenak nabarmen egin zitzaizkion Nikori. Halako batez, anitz jende zegoen zabal handi batera heldu ziren.

Toki haren azpikaldea zimaurtegia zen, eta han gizaki batzu pululatzen ziren kakaz eta eltxoz zipriztinduak.

Goian bestela zen panorama. Han dena garbi zen, eta egurrezko lurrean, jendea txiruliru aritzen zen jolasean. Gehienak bilutsik, elkar maitaketan batzu; Nikori zakila mokortu zitzaion hura ikusita.

Hiru ijitoak eta Niko, berriak izaki, beste berri zenbaitekin elkartu ziren, eta haientzat izan ziren goiko jolastarien barreak eta ironiak. Mutil batek, grazia handiarekin maitaleen eta heldu-berrien artetik jirak eta errejirak ematen zituela, esaten zuen:

– Aja! Etorri dira, etorri, gure lagun berriak, zer plazer duzue?, kabirat gozamen bila?, baduzue ba, aizu gozatsua, aizu gozokia, aizu gozogozoa –azken hau Nikorentzat izan zen– baduzue ba gure artean txoko-moko –eta zinpi honuntza egiten zuen, eta zanpa haruntza–: baina horren gura baduzue lehenik komedia egin heharko diguzue: bestela gaua zimaurretan pasako duzue.

Eta han zirenak hasi zitzaizkien kukuka Niko eta besteei zirikatuz, graziak egin zitzaten. Etorri berriak laster jarri ziren mogimenduan. Batek berebiziko abilidadea erakutsi zuen, bikoteen gainetik bere hanka bakarraren gainean sekulako saltoak eta dantzak egiten zituela. Beste batek pintatzen zuenarena egiten zuen, eta maite sutan zeudenak geldiarazten zituen bere koadroetan balako ñabardunak plasma ahal izateko.

Hiru ijitoak ez ziren harri gelditu. Lilhi esku batean eutsirik buruzgainka zebilen. Arbrak aurrena eta atzera itzulipurdiak, eta norbaitekin topatzean musu ematen zion, sexuan edo muturrean berdin bait zitzaion. Srusta ahotik sartuta-

ko zumea belarritik ateratzen ez zelako desesperatzen zen.

Nikok ez zekien zen esan ez zen egin. Orduan, trufalari haietarik batek eskoba ekarri zion eta:

– Barrez ez badakik barriz jakinen duk, hartu eta segi:– bota zion.

Beste batek, gaiztoago:

– Zimaurra barritzen hasi eta txukun dagoela etorri.

Eta hirugarren batek:

– Iufa!

Nikok, haiek isil zitezen, eskobatze lanari ekin zion. Berehala ordea garrasi batek tinpanoa jo zion:

– Laga eskoba edo lepoa bihurtzen diat!

– Nik ez... –hasi zen Niko esaten, baina baserrian behiak jeisten utzi zuen atsoa ezagutu bait zuen:– Zu!

– Hara! –atsoak ere, pozezko sorpresaz–: animatu haiz? Jakina, gazte eta pizkorra!

Niko ere alegratu zen atsoaren ikusteaz. Haren begi mozkortiak, haren larruts zimurtua,

haren bizkar tontorra eta hortzik eza, ez zitzaizkion nazkagarri.

Atsoa nagusi zen nahaspilo hartan, eta haren nahia egiten zen. Nikoren eskutik dantzan hasi zelarik, dantzan hasi ziren larrutan ez zeudenak. Nikok pasaldi batean Arbrari gonak erortzen zitzaizkiola ikusi zuen.

Gerotxo refrenatu zen desenfrenoa, eta lerro batean hasi ziren gorputza suabe astinduz, atsoa buru zutela, eta Niko haren gibelean juntu-juntu; angula-mangula pasadizo batetan barrena zihoazen, leize moduko zuloetan hagitz eszena hunkigarriak gertatzen zirela. Zulo honetarik batetan, gizonkiz lagunduta hiru neska begi zartari nabaritu zituen Nikok, eta nondik ote eta noski hotelera iristean jendehartzailearen mahaiaren atzean ziren hiru sekretariak zirelako ezagutzen zituen: Fela, Kolette eta Pilartxo. Hirurek begiklika egin zioten gainera.

Afrikanotik zerbait bazuen zeramaten erritmoak. Atsoak, bizkitartean, eskuak atzera eta galtzontzioetan sartu zizkion, eta zakil gogortuari heldu, eskoba moduan bait zeramakion, goxo, kasik ez bait zen ohartu Niko. Berak ere, sabele-

ra zizkion eskuak atsoari, eta bere kasarako esaten zuen: «Igual honekin joko dut larrua; gaztexeagoa nahiago nuke baina!» Eta segitu zuten, dinbi-danba, tunel hartan sartuz eta sartuz.

Orduan tunelaren beltzean argiño bat ikusi zuen Nikok. Leiho bat zen, han alturetan, eta bertan, enmarkatua bezala, emakume bat zen.

– Françoise! –bota zion hari lerroan zebiltzenetako batek.

Begiak itxi eta ireki zituen Nikok; berriro itxi eta berriro ireki zituen. Bai, ez zegoen dudarik, Françoisek berari egiten zion joateko pikardiazko keinua.

Beraz, eta erritmoa utzi gabe atsoa konpainia onean uzten zuela prozesiotik aldenduz, emakume harengana abiatu zen. Iristeko leihoa, azpian lasto besakada batzu ipini zituen, eta gero, gaintxo hartatik saltoa emanik eta Françoiseren laguntzaz, patata zaku gisa erori zen barrura.

Emakume gurina zen Françoise, eta begi alai tximista. Gerri hezur zabal eta potentea, heldutako titiak, lepo landua, ile motz zilarra. Hura besotartean izatea gezurrezkoa iruditu zitzaion Nikori; baina, halaxe zuen.

– Egarri izanen zara, nahi duzu zenbait? –laztan egiten ziola esaten zion Fnançoisek.

– Mila esker, bai, edozer gauza fresko... –abandonatzen zen Niko, eta ohantzean desmoronatzen zen.

– Bai, badut hemen... –eta armario frigorifikoa zabaltzen zuen eta han bilatzen zuen (Nikok oihalez eta ehunez ederki apaindutako gela zela ikusteko aprobetxatu zuen momentua), eta handik pitxar txiki berdea ateratzen:– aber, proba ezazu hau –eta aldamenean etzaten zitzaion, hi gorputz artean arroparen milimetroak bestenik ez zeudela.

Nikok xurrutaldi batez hustu zuen pitxarra, mahats zumoarena bait zen, eta ondoren, Françoisek muxu egiten bait zion kariñoso, erantzuten hasi zitzaion, eskuaz laztantzen gerria, bularrez presionatzen bularrak, mihiaz milikatzen belarri baxterrak.

Françoise delizioski lajatzen zen, eta behatza beheititu zion Nikok aluraino, zirrist-zirrist hantxe, gerotxo elkarri arropak galerazten zizkioten, elkar astindu ederki, estalketa egin sukarrez, eta horretan:

– Aaa, aaa, aaa! –eskapatu zitzaion Nikori; eta zerbait harritu zen, Françoiseri ere behin eta berriro eta bajutik:

– Aaa, aaa, aaa –eskapatzen zitzaiola.

Izerditan laxotu zirenean Nikok Françoiseren aurpegia gertu-gertutik kontenplatu zuen; hura apenas markatutako zimurrez zeharkatuta zegoen. Françoise ez zen gazte-gaztea, baina ume bihurriaren begiak zituen, orain ere, haren gainetik disimulatu gabeko ikusminez begiratzen ziola; ahoa erdizabalik zuen, eta hortz zuri berdin eskisitoak erakusten zituen.

– Ze ongi! –esan zuen Nikok Françoise besarkatuz, eta saihetsean ohearen alanbreren batek min egiten ziolako buelta eman zuen, eta baten batekin topatu zen.

– Mmmm! –protestatu zuen horrek, eta Nikok atzera jauzi egin zuen izuturik, lepoaz Françoiseri kokotsean ematen ziola.

– Ssss... –lasaitu zuen honek–: Karmen da, deskantsuan dagoela.

Ohe berean zuten izan ere lo antzean beste emakume bat.

– Ez zaratarik atera –abisatu zion Françoisek–, lo arina bait du honek.

Eta Nikok ez zuen zaratarik atera; baina, Karmenen ile beltzari polita iritzirik, laztan egin zion, eta laztan, Karmenek mmm-mmm eskertzen ziona. Françoisek belarrian mintzo zitzaion:

– Bizimodu tristea daramagu Karmenek eta biok. Ezkonduta gaude, baina matrimonioak ez digu deus onik ekarri. Aspertuta gaude. Hemen, elkar kontsolatzen dugu. Baina gizonak etorri eta dena izorratzen dute. Eta guk ez ditugu deusetarako behar. Neri behintzat, fruitu on bakarra utzi dit gizonak: alaba –eta sehaska handi bat zegoen aldera seinalatu zuen, eta Nikok ezpainetan musu eman zion–. Baina alaba izateko, ez neukan haren beharrik, beste edonorekin igual egin nezakeen... Zurekin, lehen ezagutu bazintut. Baina, hura lehena zela-ta, edozer gauzan esaten bait genion maitasuna...

Nikori gustatzen zitzaion Françoise horrela mintzo zekion eta, haren bizkar hezurra esku batez laztantzen eta besteaz Karmenen ilea, ahoa ireki zitzaion eta begiak, aldiz, itxi.

Bultz egiten ziotela esnatu zen.

– Altxa, altxa, hemen garela jakin omen dutela eta heldu zaizkigula senarrak! –esaten zion Karmenek alarmaturik.

Niko jeiki bai baina noragabe eman zituen lehenbiziko pausoak.

– Gorde sehaskaren atzean –agindu zion Françoisek–, ez dago denborarik eta.

Niko gorderik, Karmen heldu eta makurtu zitzaion. Goxoki esateko:

– Esku ona duzu, ez zaitut ahaztuko mutila.

Eta Niko kontent utzita hura joanik zela Françoise eta beran:

– Segituko dugu, e?, segituko dugu; orain, iso –kanpoan urrats sendoak entzuten bait ziren, eta Nikori taup-taup egiten zion bihotzak.

Bitartean, Françoiseren alabak, bestalde arront ume trankila, Nikoren esku deskuidatua hartu eta hatzamar potxoloa ahora eraman zuen, hura xurgatzen hasteko; min pixka bat ere egiten zion, baina «ikasiko du» esanez, aguantatu zuen halabeharrez. Beste eskuarekin, haien hartu-emanak baketsu izan zitezen, buruan maite-maite egin zion, zeinaz ez bait zirudien haurra deus askorik enteratzen zitzaionik.

Bin-ban atean esku oldarkorraren deia.

– Ireki ala bertan behera atea! –ez zen boza baina ortotsa; eta proposizioaren lehen partea esanahiaren apaingarri hutsa bailitzan, amen esan onduko atea lurrera zegoen.

Françoise eta Karmen «baina» esatetik ezin pasatu, senar kristo haiek ez bait zeuden arrazoitarako.

Bi ziren, eta arma gizonak agi zenetik, uniforme aparatosoz jantzita. Izkinaratu zituzten emakumeak, eta bilatzen hasita:

– Aja! –bota zuen batek, Niko aurkitu zuela.

– Aja! –besteak.

«Ezin bertzea!», pentsatu zuen Nikok bi deabruk maite emakumeengandik eramaki zutela.

V – Bai txarrak gerrak

Bi tipo haiek indarka gelatik urrutiratzen zutela, Niko beldurtu zen. «Nora ote naramate?». Historiak korritzen ziren munduan militar haien basakerien gain, eta tortura lazkarrien perspektibak zintzurrean korapilo eragiten zion.

Giroa ere instantetik instantera ilunagotzen zen. Haseran urdina zen zerua trumoi adarrez gristu eta gristu egiten zen, ia beltza izateraino. Prezeski hodei artetik helikoptero bat ageri zen eta hasi zen itzulika, eta gero beste batzu, ta-ta-ta-ta ikaragarriz, Nikoren arra zapaltzen eta estutzen zutela.

Aldamenetik ere, norako berean zein kontrakoan, soldaduak pasatzen zinen, patruila txikitan lehenik, sekziotan eta konpainiatan gero.

Niko are okerrago sentitu zen inguruko mendietan suak eta lehertzeak gertatzen hasi zirelarik.

Niko ohartu zen bere hi atxilotzaileak ez zirela ez horregatik ez harengatik asaldatzen. Bakarrik noiz behinka kapela militarrean izan diztira-

korrak zeramatzanen batekin topo eginez gero, gisa zail antipatikoz agurtzen zuten eskua gora, bestearengandik erantzun bera jasotzen zutela.

Kopeta zut harroskoz sartu zuten Niko errezinto handi batean. Errezinto honen azpiegitura –metro zabaleko hesia, eta eraikuntza zentralak– lur horizkoa zen, aise desegin daitekeen itxurakoa. Beste zenbait edifizio ladrilo gorriz eginak ziren.

Hare idorrezko luma zapaltzean hautsa altxatzen zen, eta ehundaka bait zegoen jendea harata eta hunata. Niko eztulka hasi zen ito beharrean.

Era horretan eraman zuten mando bide zen tipo bibote flaku batengana, paisanozko lagun talde baten agintzaile. Harekin hitz batzu trukatu zituztela, eta kide nabar batek Nikori lepatxokoan kaskarreko bortitza jotzen ziola eta besteak sekulako ostikada partetan, alde egin zuten bi senarrek, Niko bibote flakuaren mendeko utzita.

Hura ere ez zen nonbait gizon malgua. Gerrikotik dilindan pistola zeraman, eta hitz eskas dorpeak hura hartzera zihoalako keinaduraz laguntzen zituen.

Doinuagatik berbaldia amaitzekotan zela ulertu zuen Nikok.

– ...gizonak garelako gaude hemen!, eta gizona ez denari bi tiro!, ez dugu koldarrik nahi!, baina koldarra hi zangoak aurretik aterako da hemendik!, norbaitek ez badu borrokarako potrorik, bota diezaiola bere buruari tiro!, potroak zerbaitetarako ditugu!, potrorik ez duenak aire hemendik!, plomoz zamatuta tripak, aire!

Eta parre txarra egiten zuen, inork segitzen ez ziona.

Niko fijatu zen aurrean zeukana –gizon txikia, ile banaka– ile kizkurturik zegoela, eta eskuak amorru bizian biltzen zituela. «Honek badu ideia bat ona», bururatu zitzaion Nikori.

–...eta orain –bukatzen zuen bibote flakuak–, pala eta pikua hartuta denak lanera! trintxeretan uztera potroak!

Palak eta pikuak partitu zizkieten orduan kabo ziraun batzuek, eta bibote flakua kantinara zihoala, kabo horiek fortalezaren zelaigune harritsu batera eraman zituzten Niko eta besteak.

Niko ez zegoen lan fuertean ohitua, eta pikatzen hasten zela indarrak ekonomizatzeko pla-

nak egiten zituen. Problemarik gabe ekonomizatu zituen gero, zeren lazatasun handia bait zegoen, bijilantzia gutxi egonik, eta ia norbere kasa aritzen zen. Nikok pala lagunari galde egin zion:

– Aizu, baina, hau, zer da?

– Hau –eta pala zuenari itzalak zeharkatu zion bisaia– gerra da.

«Zer gerra, ordea?», galdera tontoa eman bait lezake ez zen Niko botatzera ausartu. Baina, egiaz, bera oroitzen zenik behinik-behin, ez zegoen munduaren lurralde horietan lege horretako gerrarik orain, jakina pare bat egun zeramatzan egunkaririk irakurri gabe, eta zitekeena zen bitarte horretan gauzak kanbiatzea.

– Eta –beste hau bai, Nikori inoren adimenerako itxurazkoago iruditu zitzaion–: gu, zer ari gara hemen?

– Ni –pertsonal hartzen zuen lankideak–, nere semearen hiltzailea hil nuelako ekarri naute hona.

Injustizia ikaragarria zela pentsatu zuen Nikok. Oraintxe, baina, lanean segi zezala garraisi egiten zion kaboak, eta giltzurrinen kaltetan goiti-beheiti erabili zuen pikua.

Tarteka inguruari begiratzen zion. Onik bat ere ez zen, eta txarrik zernahi gertatzen zen errezinto siniestroan. Jende asko eta askotarikoa zegoen; berarena bezalako taldeak lan astun nekosoetan; errejimentu formatuak eta formatu gabeak; burdinarteko presoak, lurpeko kaioletan saperoan egarriak akabatzen; eta zenbait tipo libre plantako ere bai, bukatzeko.

Hesiaren gainean garitak bazeuden bijilantziarako, handik ikusi zuen Nikok mutil bati tiro egiten ziotela, eta erahiltzen, zergatirik garbi ez zekusala eta gertaerak inor gutxi distraitzen zuela. Beste bat berriz, bera bezala esklabutzan, zeozer ikusterakoan nonbait izkina batera, eta gako bat bait zen han hark ikusi ez zuena zintzurran sartu eta bertatik zintzilika azken hatsetan gelditzen zen.

Nikok haren laguntzera joateko seinale egin zuen, eta piu! piu!, inguruko harea balek harrotua joan ez zekion.

Geroxeago parez pare zabaldu ziren koartelaren ate nagusiak eta hots handirekin sartu ziren tankeak. Nikok espektakulo lazkarria ikusi zuen: orugetan harrapatuta zatikatuta, sarraski-

tuta, hil aurreko hondar oihuskak entzuten zirela, jende puxkak zetozen, beso bat hemen, beste batzu han, aurpegi bat arnas torturatua beste hartan, eta ume baten burua, kolpeak okotza bekainetaraino sarrarazi ziona.

Nikok goragalea sentitu eta belauniko eroni zen lurrera.

– Hori, kalabozoetara! –entzun zuen onduan, eta bi esku dezidituk heldu eta arrastaka eraman zuten handik.

Gela zulo batera bota zuten Niko. Joan zirelarik, bere buruaz (triskantzak zorabiatu bait zuen) eta egoeraz (eguzki beraunetik beltz harbelera pasatu bait zen) jabe egin arte minutu batzu egin zituen, eta gero zutitu egin zen.

Atea ez ziotela itxi ikusi zuen. «Igual rejimen irekian egonen naiz, ez zen izango eta delito handiegia egin dudana». Irten zen eta korridorean abiatu.

Kartzeleroa lo zegoen, eta Nikok jarraitu zuen paseoa. Dutxa batzu pasatu eta luzaeran zein zabaleran hamar bat metro zituen gela koadratu batera iritsi zen; han, bankutan jarririk, emakume asko zegoen, gehientsuak hogei-ta-bostetik

berrogei urtetara, neke antzean, tren geltokietako espero geletan ohi diren solasetan. Batzu haurrekin zeuden, poltsekin, erretzen.

Niko heldu samar bati ondoan eseri zitzaion, eta galdetu:

– Barkatu, zer zaudete hemen?

– Orain gizonezkoak etorri eta follatu egingo gaitiztek –eta nazka eta aspertasuna pintatu zitzaizkion ezpainetan–; hilean behineko lana, badakik.

Nikok okotsa laztandu zuen –bizarra hazten ari zitzaion– eta galdetu zion:

– Nahi ez baduzu zergatik ez zoaz?

– Nik nahi diat, hori duk problema –erantzun zion emaztekiak, eta sobera mintzatu zelakoan bizkar eman zion.

Nikok musu gorri triste haik bistaz aztertzen zituela, ate batetik gizon ile banaka ageri zitzaion, lehen, bibote flakua kanpoan potroetaz mintzatzen zitzaiela aurrean ukabilak estututa ikusi zuena, eta honek esan zion:

– Hi, goazemak!

Haren azentua fidatzekoa iruditu Nikori, eta zutitu eta bereganatu zitzaion.

– Dependentzia hauez bestaldean –esan zion ile banakak, Palante izenekoak– itsasoa zegok!

VI – Hanka jokoan

Palante lagun, askatasuna xede, gezur ate batetik irten zen Niko konstrukzio hartatik eta koartelaren zabortegian sartu zen. Zabortegiko enplegatuek, uniforme butanoz, ikusi bai, Niko eta Palante, begi aurrean sartu bait zitzaizkien alkantarila batean, baina ez zieten jaramonik egin.

Ubide horrek –Nikok basa zerri hari ura bait zeritzon– handiago batera eraman zituen, kondukto-adar ugariren hiltzaile.

Ura belaunetan, mantso-mantsoan, ordu erdiko bidean adar haietarik batean geldiune egin zuten, eta Palantek txaketaren poltsikotik lukainka eta ogi muturñoak atera zituen, eta, lehenik, Nikori eskaini zizkion. Honek puxka bana hartu zion, eta Palantek komentatu zuen:

– Militar zerriak!

– Bai! –Nikok pentsatu zuen, izan ere, hala zirela militar haiek.

– Haienak egin dik!

– Ez dakit nik –neurriz erantzun zion Nikok.

– Hik? –moztu zion Palantek goitik behera begiratzen ziola, eta mokadu bera murtxika eta murtxika, ez bait zegoen sartzeko besterik.

«Honek hartu dit, kanpotarra naizela», pentsatu zuen Nikok, baina ez zen horregatik koldartu:

– Zuk ba al dakizu?

Palantek irribarre segurua egin zion; gero berriz misterioso:

– Saiatuko...

– Zaila ordea –esan zuen Nikok misterio jokoan sartzea erazko zela iritzirik.

– Entzun –harrotu zen Palante–: esku hauekin kapitain jeneralari lepoa bihurtu nioken –eta lepoak bihurtzeko propio eginak ziruditen esku zaintsuak erakusten zizkion.

– Harrapatzen bazaituzte...

– Hil artean bizi; bizi artean, hil –sententziatu zuen Palantek; eta, murtxikatzeaz nazkatua, irentsi zuen ogi-lukainka bola, Nikok apetitoz ikusi zuen operazioa.

Bideari berrekin zioten. Laster ziren tubo haietatik kanpoan, kale malda oker batean, adokinez egina. Palantek ere ez bide zekien nontsu

ziren ere, noragabean ibiltzeko traza guztiak behintzat, hartan gora, hurrengoan behera, eta gora, eta behera, eta horrela.

– Zapelaitzak! –bota zuen Palantek bat-batean, eta etxe zahar batzuren atzean mendia bait zegoen, eta mendi hartan direkzio askotako bideskak –denak zutak, ras bertikal ebakia bait zegoen mendia, etxeak eusteko maneran–, haruntz egin zuen korri.

Harekin Niko, uniformezko jendea ikusi eta heldu zela ikusirik. Etxearen bost pisuak egin zituzten mendiko sasi eskilara batetik gora, eta boskarrenaren parean zirela –etxearen azkenekoa– salto eman –Palantek aurrenik, Nikok aldiz begi itxirik, deusezean metro moltzoa zegoela iritzirik– eta despensa batean aurkitu ziren.

Niko, dena zen belarri. Minutu bat, eta ezer ez. Bi minutu, eta ezer ez. Hirugarren minutuan despensaren atea ertireki zen eta amona poxpolin baten burua.

– E, e... –esan zuen, eta behatza ezpainetan : –ssss! –eta gero:– etorri, etorri hemendikan.

Nikok Palanteri begira, eta honek Nikori, eta sorbaldak uzkurtuz, kasu egin zioten amonari.

Honek pasarazi zituen gela batera eta tapiz zaharrezko aulki banatan jarriarazi.

Oso gela txikia zen, eta espazio gehiena mueblek hartua. Sofatxoaren gainean, apur bat kukuilduta aguretxo bat lotan. Hargatik mintzo zen isilka amona pospolina.

– Bah, bah, igual dio, ez duzue ezer kontatu beharrik –hitzak eta besoak, bat ziren; eta, lainotasunez:– nik ez dut ezer ikusi e!

Aparadoretik dirdir gabeko kristal gastatuzko bi kopa hartu, mahaian ezarri eta ardo gozoz bete zizkien. Gero, pasta kaja bat atera zuen.

– Jan, mutilak, jan, gustatuko zaizkizue pasta hauek –eta ilusioz kontenplatzen zituen.

Nikori iruditzen zitzaion Palantek hartuko zuela iniziatiba hizketan, eta ez zekien zen esan. Beharbada gauza bera pentsatuko zuen Palantek Nikoz, berdin ere isilik bait zirauen. Hau deziditu zen azkenez:

– Amona: non demontre gauden jakin al daiteke?

Amonak, lojikaz, begiak platerak zituela:

– Nere etxean...!

– Etxe polita –sartu zen Niko, lagundu nahiz–: txikia, baina polita benetan –eta erematean, satisfakzioz:– eta pastak, oso onak.

Orain Palantek irekitzen zizkion plater begiak Nikori, eta honek pasatu zela ulertu zuen.

– Parteaz galdetzen nizun... –ahalik eta gozoen, Palantek amonari.

– Partea? Ah, bai! Portuan zarete, portuan, bai...; baina lasaitu zaitezte –eta hurbiltzen zitzaien–, orain Esteban etorriko da, Esteban, bai, nere semea, eta hark eramango zaituzte bakean hemendik.

Palantek egin zuen kopatik zurruta, eta Nikok ere bai, erosoago sentituz.

– Aitona gaizki al dago? –galdetu zion Nikok amonari.

– Burutik ez dabil oso ondo –eta amonak behatzak jirabira eragiten zituen buru gainetik–. Berrogei urtetan istripua izan zuen itsasoan, maxinak klask! besoa moztu zion, eta akabose. Geroztik jakina, lana utzi, eta asko kanbiatu da; nahi duenean lo, esna nahi duenean, beti bere gisa. Gauean gauza arraroak egiten ditu gizagaixoak.

– Zerriak! –eta beso mozketaren erruduna aurrean balu legez Palantek hortzak estutzen zituen.

Orduan atea ireki zen Esteban sar zedin. Hogei-ta-hamarrak paseak izango zituen Estebanek, ile hori nahasia eta tximista begi-ninitan.

– Egun on denoi –agurtu zuen.

– Bai eta zuri ere.

– Zer berri dugu? –zuzen jakin nahirik Estebanek.

– Biok –informatu zion amonak, apaltasunez–, hona sartu behar izan dute eta, nik, seguru asko herorrek pasatzen ahalko hituzkeela...

– Ezingo al dugu ba? Goazen, lehenbailehen –Esteban ere ez zen erdimerditan gelditzen–; oraintxe dugu motorra hor behean, karga pasatzekotan.

– Kontrabandoa? –galdetu zion Palantek.

– Bai –mukiak garbitzen zituela, Estebanek.

– Badut nik lagun bat tabernari eta hark esan zidan interesatuko litzaizkiokeela kaja batzu tabako... –eta enroilatu zen, Esteban adi zuela.

Bitartean, amonak pasta batzu sartu zituen poltsa batean Nikori emateko. – Baina...

– Gustatu zaizkizu eta har itzazu benga –komentzitu zion maitasunez.

Nikok mun egin zion sudurraren puntan eta, poltsa eskuan, kontrabando solasean iadanik jeisten hasitakoen atzetik handik atera zen.

Egurrezko eskaileren bukaeran, karrika. Nikori igandea zela iruditu zitzaion, eguzkipean umeek jolasten zuten eta emakumeak –lotan gizonak oro?– soineko txukunez paseatzen ziren.

Esteban ez zen guztiz ezezaguna, egunon hemen, egunon han, denekin agurka. Portura heldu zinen, kajaz zamaturik zegoen motor batean sartu, eta aparatoa martxan jarri zen («ez al naiz mareatuko!», desiratu zuen Nikok), eta fitesko itsasoratu.

Itsaso zabalean zirela, Esteban eta Palantek tabako negozioak nonbait hitz emanak, belero batek aurrea hartzen ziela konprobatu zuten. Hurbil samar egonki, Palantek bota zuen:

– Tirasoka! –eta geldi zedin seinaleak egin zizkion.

Joan ziren barengana –itsas lapurra, segurki, Tirasoka, begi bakarra gainera nahiz eta trapurik ez eraman eta begi zatarra erakutsi–, eta Palan-

tek, haren txalupara pasea, gero arte esan zien Niko eta Estebani, berriro elkar ikusiko zuten segurtasunean.

VII – Bertso bat edo bi

Itsasoan bakarrik gelditu zirela, Esteban zuzendu zitzaion:

– Zer egin behar duk orain: alde?

Nikok urari begira, zerumugari begira eta Estebani begiratu zion:

– Ez dakit ba; ez nuke oso urrutira joan nahi –besapea usaitzen zuen–; muda gelan bait daukat...

– Iruditzen bazaik –animatu zen Esteban– alto egingo diagu nik dakidan leku batean, eta sagardo xorta bat edango, burua argitzeko.

– Eta merkantzia? –ohartarazi zion Nikok.

Horrek ez dik eskapatuko; eta goazen lekuan, denak dituk gutarrak –eta Nikori galde gehiagorako betarik eman gabe, lema eskoinera eta kostaldera abiatu ziren.

Bidean kantari hasi zen Esteban: Nikok bertsook ulertu ahal zizkion:

Mugan
euriak garbituko gaittu
eguzkiak xukatuko gaittu

eta balen kontra
ilunak babestuko gaittu.

Tip-tap tip-tap portu txiki lanbrotsu batera hurbildu ziren. Sirimiri ari zuen, eta ailegatzean –motorra isilean, arraunka hondarraldia– ilabean korpailatuta utzi zuten batela.

– Tori hauk, bururako –eta egunkari paperak luzatu zizkion Estebanek Nikori. Batean, «bart, bi tipok bahitua» titularra ikusi zuen, baina kasurik ez, eta xapela gisakoa egin zuen haiekin.

Gero, minutu gutxitako bidean, gorta antzeko baten aitzinean gelditu ziren. Estebanek aurrena atea zabaldu eta kez nahasiriko hotsaldia atera zitzaien barrendik. Barrurako keinua egin zuen Estebanek.

Nikok, egiaz, ez zuen holakorik ikusi behin ere.

Dena zen marroi ñabar hori lastoa. Fondoan, abere animaliak, bazkari. Humanoak, mahai ustelduetan, errekinen inguruan, mauka-mauka eta aski alaiturik. Gortaren lau aldetan, kupela formidableak zeuden, hainbat partetatik zulatuak, eta seboz estaliak zulo horiek, halako gisan, ezen handik sagar arnoa isur zedin etxe-

kojauna, gizon txepel moxkorra, etorri behar bait zen eta alanbre batez zirrikitoa libratu.

Alderdi aparta batean, tximiniaz goiti kea, txingarrak zeuden gori-gorian, plantxa, suhatzak eta beste zenbait burdinkiz, eta haien erabiltzen gizonezkoak dantzan, materian jakitun denaren plantaz.

Sartzerako momentuan txikia iruditu bazitzaion ere, gortak txoko franko zituela ohartu zen Niko, Esteban eta berak leku bila bueltak ematen zituztela. Une batez kupela arteko ertz ilun batean, galdu zirela ere pentsatu zuen, lojikaz buelta osoa emanda berriz sarreran izan behar bait lirateke, eta ez ziren.

Orduan, ondoko kupelaren oholak arrenkuratu ziren, eta gizon bat irten zen handik, oholak lehengo posiziora bueltatuz.

Gizonak berehala ikusi ez, eta ikustean:

–Ño!

Nikok segidan ezagutu zuen: hura Xelmo zen, goizean baserrira lagundu zuen gizona. Bai eta Xelmok ere, bera ezagutu, eta berriro:

– Ño! Hi hemen, ez duk sorpresa txarra!

– Zer, ondo? –erantzun zion Nikok.

– Gaizki ez behintzat! Baserrian, zer?

– Ez dakit zer gertatu zaitzaidan han –gogoratu nahi izan zuen Nikok–; baina orain, hemen berriro.

«Berriro? Non, ordea?», galdetu zion harriduraz bere buruari.

– Jana ekarriko zenuten ala? –interesatu zen Xelmo.

– Ez –Nikok, eta Estebani begiratzen zion, eta presentatu ez bait zituen:– Esteban. Xelmo.

– Bai, nik ikusia zaitut nonbaiten... –baieztatu zuen Xelmok.

– Bai, nik ere nonbaitetik... –zorroztu zuen begia Estebanek.

Nikori elkarri konplizidadeaz begiratzen ziotela iruditu zitzaion.

– Goazemak, zeozer apaltzera –esan zuen Xelmok–: badizkiat hemen adiskide moduko batzu...

Niko atzetik eta Esteban atzena, kupelondotik atera ziren hirurak eta berriro ziren jendearen saltsan.

Sagardotan hasi ziren. Arte hartan esperientziarik ez eta, lehendabizikoan basoa ez hanka

baizik bete zuen sagardoz Nikok. Orduantxe ari zitzaion Xelmo adiskide bat presentatzen:

– Honi Artzaia esaten zioagu –eta pixkor erantsi:– kontuz berarekin.

Eta Artzaiak erantzun Nikori:

– Nik ibili beharko diat hirekin kontuz... ez nazaken busti.

– Ez nuen ezagutzen eta... –esan zuen Nikok lotsaz.

– Ezagutu ez?... Edo dagoenekoz gehiegitxo ezagutu?

– Ez: lehen aldia da...

– Jexux-Maria-ta-Joxe! Lehen aldia!? Gixajoa!

– Baina ona dago –desbideratu zuen Nikok.

– Bai, lehena izan behar! Sagardo hau, ona!?

– Ez bait dut entenditzen...

– Horixe! Gizon entendimentu gabea! Hau, ona!?

– Gustatu egin zait...

– Hori disgustoa!

– Txarra bada sagardoa –reakzionatu zuen Nikok–, zergatik zaude hemen?

– Hemen egon? Nor dago hemen? Ni? Zeinek esan dik?

Artzaia trufari ote zebilkion otu zitzaion Nikori, eta begizkoa bazitzaion ere, ezin zuen haren erritmoa segi; beraz, beste batekin liatzen zela aprobetxatuz haragi errea ziplatzeari ekin zion kemenez.

Jan-edanean aise zihoakion denbora Nikori. Gero hasi zinen lagunak munduko bertsorik kazkarrenak botaka –hala zirela esan zuen batek, Niko hartan ere ez bait zegoen bereziki trebetua.

Lagun gerade ta bagarela
hartua ziot nik antzik
biñipin batak bertzian kontra
eiten diagu balantzik
lagun moduan egin ditzagun
suertzen al zaizkigun trantzik
Peilok lagun hobia dik eta
kupela ondora han zik.

Sagar zumoa gustatu eta Peilo haren atzetik, Niko zihoan. Kupeletik kupelerakoan, etxekojaun txepelarekin izan zuen solasa, bere sagardoari buruzko Artzaiaren iritzia komunikatu bait zion Nikok.

– Horrek? Zer daki horrek? Ezjakitetik jakitera bazegok puxka ederra!

– Omen dago beste sagardotegi bat honakoan, eta hura bai dela... –ideiarik ez, baina entzun zituenetatik mintzo zen Niko.

– Hori? Zabaltegiz ari al haiz?

Nikok, baietz.

– Hori ez duk sagardoa motel! Badituk sagardoak eta sagardoak!

– Hura omen da...

– Omen! Nork esaten du? Batek esatea-besteak esatea, ez duk gauza bera!

– Nik, jendeak dioena...

– Esatea, esatea! Mingain beltz asko, hor barrena! Hik neri kaso egin: hark ezingo dik hobeagoa egin, sekulan, ze bertako sagarraz ari bait dira, dena bertakoaz, konprenitzen al didak? Sagar batekin egitea edo bestearekin egitea, produktu bat edo bestea aterako ez al zaik?

– Bai, baina...

– Ez, ez. Egitetik egitera...

Etxekojaunaren solasa zaila egiten zitzaion Nikori. Bestalde nola harez gero burutik aski jota bait zegoen, alegratu zen Xelmok eta besteek kanporako joera hartu zutenean.

VIII – Bat beheiti bestea goiti

Gaugiro preskoa, kanpoan.

– Zer, nora? –galdetu zuen Ruiz zeritzonak.

– Ameztin berbena zegok! –erantzun Lolo zelakoak, pisa egiten ari zen bazterretik.

– Aupa Ameztira! –Patxiku deitzen zenak–; zenbat gara?

Nikok ikusi zuen hitz egindako hirurak eta Artzai, Esteban, Xelmo eta bera bazirela; eta Artzaiak lanroberra bide zeramanez, hartan denak sartzen zirela.

– Gehiago ere! –esan zuen Patxikuk.

– Ez sexu berekoak! –Ruizek.

– Femeninoekin zer egingo huke ba? –galdetu Lolok.

– Jo! –erantzun Ruizek.

– Haiek bai, jo hiri!

– Adarra!

– Jipoia!

Horrelakotan sartu eta joan ziren.

Artzaiak abiaduran konduzitzen zuen. Harekin Nikok pentsatu zuen, errezotan jakin balu, orduantxe egingo zuela, ez zitezen bertan galdu. Bestaldetik, Artzaia tximista bazihoan, bera ere txinparta ibilki, egin bideaz ez zen sobera ohartu.

Ezin beraz tarte labur hartan inongo ideiarik ordenean jarri, komeni zitzaiola zekielarik ere. Ez bat ez bi, plazan ziren, berbenan. Amezti hura ez zen handia, antza, baina herriko bertako baserriak lau eta bost pisutako etxeetan itota zeuden.

Galtza eta kazadora larru beltzetan, beltzak ere botak, ileak eta anteojuak, zenbait apaingarri zilarrezko, talde pobre bateko neska-mutilek erritmo potablea erdiesten ahaleginak egiten zituzten.

Gazte horien tablaua, pankarta bat haizeak buelta emana eta taberna desastrea, berbenarako beste dekoraturik ez zegoen; baina plaza handia zen, eta arbolaldi zabal zerratua zegoen erdierdian. «Erdia da, ala plazaz landako basoa?», duda egin zuen Nikok hala ere.

Tabernara joan ziren. «Noski», pentsatu zuen Nikok. Batek aber zer nahi zuten galdetu zuen, eta Artzaiak ez beste guztiek –Nikok zer egin ezjakinki, segitu zuen korrontea– kopak eskatu zituzten. Artzaiak poltsikotik sagardo botila atera zuen.

– Zertarako kanbiatu? Ni honekin pozik niagok.

Besteek parrez ospatu zuten Artzaiaren burutaldia.

– Ez duk burutaldia –esan zion Xelmok Nikori–, bere filosofiaren garrantzizko elementua baizik.

«Filosofia horrekin, noranahi», pentsatu zuen Nikok: eta botilarekiko Artzaiaren abilidadea miresten zuela, sekulako zarata plazan, eta plazako denak gora so. Zer zen, eta bazen makal bat tabernaren ondoan altu-altua, eta haren gaingaineko abar batetik bazen tipo bat hanka batetik zintzilik, oju-protestaka.

– Alajaiña! –bota zuen Xelmok, eta aire bereko esklamazioak beste denek.

Mutikoxe batek, hortzartean harakin labana zeramala, gora egin zuen arinaldi batean eta,

zintzilikatuaren ikaraz, ris-ras hasi zen sokaren moztutzen.

– Ez, hori, eeeeez! –berandu horregatik, mutikoxeak soka erdibitu bait zuen eta publikoak tipoaren hezurren kraska entzun ahal izan zuen lurraren kontra jotzen zuela.

Tipoak ahal bezala bere burua konposatu zuelarik (inoren laguntzarik gabe, Nikok berak ere pentsatu zuen figura arrotza zela, aparte oso dotore), Artzaiak galdetu zion:

– Aizu, zer egiten zenuen altura horietan, jauntxo horrek?

Artzaiaren umore klasea ez ezagutu edo, heldu berriak erantzun zion harroki:

– Zurekin ez, gazte honekin mintatzera nator –Nikogatik esaten zuen.

– Erantzun, bada, lagunak galdetzen bait dizu –bueltan Nikok, eta orain bai portatu zela pentsatu zuen.

– Ganberro batzuek ipini naute hor... –eta bekaitzez bilatzen zuen jendetartean.

Nikok ere hedatu zuen begia, eta segun nola begiratzen zitzaien, plazako denak zitezkeen

ganberro edo golfo samarrak, bere sei lagunak barne.

– Eta nigana zerk ekarri zaitu?

– Kontserjea naiz ni, primerako kontserjea, eta jendehartzaileak enkargu eman dit zuretzako, Mujika jaunak oraingoz ezina duela, eta haren partez ahalik lasterren Agirre jauna etorriko zaizula, hortaz beti lokalizatzeko eran egon zaitezen.

– Eta zuk, nola lokalizatu nauzu hemen? –galdetu zion Nikok.

– Baditugu medioak... –eta harropuzkeriaz hatzazalak behatzen zituen.

– Garraiorako medio hobeagoren bat montatzea hobe zenukete, bada –maleziz sartzen zen Artzaia–, sokarenak ez bait nau arras komentzitu...

– Txarkide ote zara? –aurpegiz aldatu zen kontserjea.

– Daitekeena da hori: ez bait dut hitz txar horren esangura ezagutzen.

– Gorrarena egitea daukazu; nik ere badaukat, zuk esanak geroko gogoratzea.

– Gogora, gogora; go-beheran iaioago dirudizu baina.

– Isekatan?

– Faborez!

Niko barreak eutsi ezinik zegoen –baina beste alde batera, kontserjeak ikus ez zezan–, bai eta, disimulo gutxiagoz, besteek ere, pilo bat orain, ikusle franko gertura bait zitzaien.

Horrenbestez kontserjea pazientzia galdua zuen, eta bultzaka irekitzen zuen joateko bidea, atzera errepikatzen zuela:

– Oroituko zara! Oroituko zara!

– Zuri baino lehenago ahaztu baietz! –Artzaiak, eta orain bai, denak barre algara nasaian.

Nikok, halere, aztertu beharko zuen Mujikaren afera, bai eta informatu ere, hura Agirrek zergatik izan zen sustituitua.

– Egia al da... –hasi zen hurbildu zitzaizkien mutiko kuriosoetarik bat, galdera mingainean.

– Txo!

– Neu! Aizu: egia al da, hor barrena esaten den bezala, zu periodista zarela?

– Egia; baina... –eta Nikori ere galdera mingainean gelditu zitzaion, han ez zen Txorik eta, irentsi behar izan zuen.

Orain, tablauan zirenek rock-trikitrixa jotzen zuten. Esteban, eta Xelmo eta Ruiz eta Artzaia eta denak hasi ziren saltoka eskuak kriskitin-kraskitin zerabilzkitela.

Nikok, beso batek ekarria, zirkuloaren beroan sartu zen, jira batera, jira bestera, besteek jirak ematen zituztela bera geldi, bera jiraka hasten zela kieto beste denak.

«Hobe jirak besterik ez ematea, eta erdia behinik-behin egina dut», pentsatu zuen. Baina sartu bezala beste beso batek handik apartatu zuen orduan.

– Zer ari zara, barritzen? –esaten zion mutil bixar antxume batek, zuri-gorriz jantzia eta eskuetan bi makila zeramana–; ikusi, eta ikasi –esan, eta makilak Nikori utzirik, hasten zen polliki eginez besteek arin-arin egiten zutena.

Nikok ez zuen jakin nola izan zen; arretaz segitzen zituen oinak bat-batez fziu! desagertzen zitzaizkion. Lurretik bista altxatu onduko, bi mutur gaizto zituen pare-parean.

– Aja! –atera zuen hotsa txerri muturra zuen batek.

– Anttonen laguna, e? –atera zuen besteak, txakur muturrekoa.

– Antton? Ze Antton? –eta inguruan ez Anttonik ez lagunik ez zuen ikusten Nikok, eta bihotza galtzen zuen.

– Inoxente... gaixo xaloa... eztakixu Antton xein den exta? –galdetzen zion txerriak.

– Eta makilak? –galdetzen zion txakurrak–; makilak ere ez duzu jakingo zelan dituzun...

– Horrek eman dizkit; dantzarako noski, makilak; makil-dantza...

– Klaro motel –txerri muturrak, katxondeoan–, dantzarako, zertarako bestela? –eta txakur muturrari:– ez al hekien, hik, makil-dantzarena?

Orain Esteban bertaratu zitzaien.

– Aber, aber –esaten zuen, eta makiletan jakintsu bailitzan. Nikori hartzen zizkion, eta alde guztietarik miatzen:– bai, ez dago ezpairik, hauek makilak dira; tori makilkada! –eta halako kaskarrekoak jotzen zizkien txerri-txakurrari seko lurreratzen bait zituen-.

– Inspektoreak ziren ezta? –galdetu zion Nikok Estebani.

– Bai.

– Iruditu zaizkit: zeren bila ordea?

– Herorri ez badabilzkik, egon lasa!

– Antton hori zein da?

– Antton aipatu dute? Ez al dakik? Dantzaririk peligrosoenetakotzat jotzen ditek hori! Gibel oneko mutila! Gibela! –eta, Nikori estraino egin zitzaion asoziazioz, bat-batean gogoratzen bide zen:– Ene! Ama! Zer egiten dut nik hemen! Eta karga pasatu gaberik! Adios, hi, bistartio! –eta eskutan makila bana zuela lasterkari ematen zion.

Azken gertaerak belozidadean nola ziren gertatu, Niko –inguruan dena musika eta dantza, hantxe aurrean bi gorputz zerraldo, eskuan amonaren pastekin poltsatxoa–, despistaturik zegoen.

Despistaturik segitzen zuen Xelmo, Artzaia, Ruiz, Lolo eta Patxiku trikitrixa amaituta izerditan blai etorri zitzaizkionean, eta Ruizek, jota gorputza izaki:

– Orain –proposatu zuen–, enbido diskotekara!

«Proposamena al zen?», pentsatu zuen Nikok, bere bost lagunekin lanroberatzen zelarik.

IX – Txanpan kopa bat eta hiru neska

Non barrena, ez eta ideiarik ere: berriro tente aurkitu zenean, «Gure borda» argi berde sarkorrezko letra handiek itsutu zuten Niko.

Jende mordoa pilatzen zen sarreran. Esaten zen, furi-furian zegoen kanpoko talde bat jotzeko zela, eta horren interesean urrutitik etorria zen jendea. Nikok dialekto aldrebesak entzuten bait zituen.

Sartzeko problemak. Artzaiarekin, problemaerdi. Arrazoi onekin, entzuteko gauza zinenei, eta gainerakoei atxumurka, bidea egiten zuen Artzaiak, eta haren gibeletik, beste bostak.

«Hau da koadrila desberdina –pentsatu zuen Nikok–: eta, hala ere, ondo nago». Pittin bat izutu zen porteroarengana iritsi zirenean.

Artzaia ez zen oilotu:

– Hauek –lagunengatik– nerekin heldu dituk.

Ez zuen besterik esan. Porteroak, bazen-ezbazen, pasatzen utzi zituen. Nikok, besteek be-

zala konpostura gorde nahirik, ez zedin atezaina moskeatu.

Ruizek eta Patxikuk sobera edanda egoteko probak ematen zituzten.

Munduko gauzen errematia
dakar azken juiziyuak,
auts biurtuta utziko ditu
erri ta palaziyuak,

kantatzen zuten.

Nikok lurrean –ispiluzkoa zen eta– ikusi zuen bere burua. «Ni, horren edanik ez nago», atera zuen konklusioa.

Txanpaña erruz isurtzen zen. Denak ziren kopak eta botilak, denak ezpain busti sensualak. Ezpain haien atzetik begiak joaten zitzaizkion Nikori, eta pasatu zioten kopatik plazerraren printzipea bailitzan gozatu zuen.

Artzaiak ere jotzen zion orain txanpañari, sagardorik ez zitzaion gelditzen eta.

– Gainera –esaten zuen– hau perfektamente konpatiblea duk!

– Ordu honetan... –esan zuen Xelmok, bixibixi.

– Ordu honetan, horretan eta hartan! –Artzaiak ez zuen bat ere barkatzen.

– Gora San Fermin! –Patxikuren pentsamentuen haria beste nonbaitetik joaki antza zenez.

– Behera Patxikutarrak!

– Pasa!

–Tori!

– Iufa!

Pista zabala zegoen dantzarako. Baina ez zegoen pista non hasten zen esaterik, punta batetik bestera mutilak eta neskak, dantza arrimatuak eta askatuak, edantzaleak eta amorosoak, denak nahasten bait ziren iskanbila batean.

Nikok ere astintzen zuen hezurreria, sekulako adiskidetasuna sentituz, zirrimirri neskekin batez ere.

Bati polliki begiratu ziolako, hura zas!, harekin gelditu zen, eta Nikok, ez gustatu arren, jokua segitu zion, martxa ona bait zeraman. Gehiegisko enamoratzen ari zitzaiolakoan, gero, hura utzi eta beste talde batera jo zuen.

«Hori da ipurdia hori!», pentsatu zuen neska batenaz. Izan ere, toke berezia ematen bait zion neska hark bere ipurdiari Nikoren aurrean. Nikok

desiratu zuen ipurdi hura, biziro desiratu, eta neskaren nortasuna ezagutzearren buelta emanik aurpegira begiratu ziolarik, horra!, Fela bait zen, lehenik hallean eta gero akelarre moduko hartan ikusi zituen hiru sekretarietarik bat.

Felak bazuen xarma, ezin ukatu, eta musikaren erritmoa ongi, oso ongi jarraikitzen zuen. Nikoren nahi begiez ohartu zelako, irribarre probokatiboa egiten zion, eta ariketa areagotzen.

Horrela, bereizten eta bereizten besteengandik eta leku iluntxo batera eraman zuen Niko, jenderik ez zegoena. Jenderik ez, eta ohe bat ondo zabala hantxe. Ohean, neska batzu zirela iruditu zitzaion Nikori, baina, bertagotik ikusita, bi neska besterik ez zirela konprobatu zuen, ondoan atorra garbi-garbiak, plantxatu-plantxatuak zituztela. Bi neska haiengan Kolette eta Pilartxo ezagutu zituen, haiek ere desiragarrizko keinuak egiten zizkiotela.

Oheratu zenean, bizkarrez atorra garbien sentitzeak hotzikara jo zion, hain zeuden fresko eta perfumatu.

Lau gorputzak elkartu ziren kalidoki. Nikok eskua luzatuz Koletteren braga azpitik sartu

zuen behatza eta gogoko lekuetan barrena hasi zen murgiltzen.

Pilartxo, aho luze zurrutaria, musuz musu ezarri zitzaion, eta txistuz bustiriko muxua eman zion, goxo, gosez, eta Nikok xurgaka xurgaka nabaitzen zion eta oso pozik zegoen, Pilartxoren musuan harrapatua sentituz.

Hartan zirela, Fela gainean etzaten zitzaion –Niko buruz beheiti zen musuka– eta saihetsetatik pasatzen zizkion eskuak, ja ukitzeke, gorputzaren deskargak probokatuz. Geroxeago, lan horri utzi gabe, gerrian eseritzen zitzaion, eta bizkarrean haren hankatarte zabal beroa eta musuan Pilartxoren ahoa, eta Koletteren dardarak. Nikori guzti hura delizioso zitzaion, eta estasis ametsetan galdu zen zeharo.

Lotan zegoela, xuriz jantzitako neska bat bistaurretik paseatzen zitzaiola ikusi zuen. «Hori edertasuna da», pentsatu zuen. Neskak pasiorik gabeko aurpegi dibinoa zeraman. Ile luzea zuen, gorrizta, graziaz bildua kordatan, korda ugari buelta askotakoak, baina puntta denak solte-solteak; belarri erdia ile artean ageri zitzaion; haren kinkiletik hasten zen masaila, beheruntza suabe,

eta gero biribiltzen zen aho tikiraino, gorri bizia ahoa, eta sudurra, bi zilanga delizioso, kurba somagaitzak, begi ameslariak, betazalak linea bat besterik ez, goitixeago bekaina, intelijente, eta kopeta, irekia, bat ere zimurrik gabea, bestetan bezala, dena leuna, dena ñabarra, dena armonioso. «Baldin bada edertasunik, hauxe da», pentsatu zuen berriro. Lepo eznea itzuli ziolarik Nikok bihotz partean opresio bat bortitza sentitu zuen.

Itzarri zenean, diskoteka hutsik zegoen. Pasatutako dena bere ametsa izango ote zuen bururatu zitzaion, baina sekretarien usaia nabari zuen gorputzean, eta hasperen bota zuen. Gainera, ohartxo bat aurkitu zuen eskuan, bi hitzok idatzirik: «Kontuz Agirrerekin». Nikok ez zuen jakin zer pentsatu hartaz, eta janzten hasi zen.

Gora-behera haietan amonaren pastak zituen poltsatxoa ez zuen oraino galdua eta, gertaturikoetaz pentsakor, pasta bat atera zuen eta hura jaten hasi.

Gizontxo apala zebilen handik lanean, muebleak eta beste dena ordenean jarriz. Nikok gabon batez agurtu zuen.

– Gabon edo –erantzun zuen gizontxoak, ez izanagatik. Nikok nahi baldin bazuen, gaua izan zitekeela adieraziz.

– Pasta bat gura duzu?

– Bai eskerrik asko –erantzun zuen, ilusio pizka batekin, gizontxoak, eta pasta hartu zion.

– Aizu, hotela joateko, zer egin behar dut hemendik? –abenturatu zen Niko, gizonak ezagutu zezan bezain hurbil egon zedin esperantzaz.

– Joateko, ezer ez –erantzun zuen gizontxoak–. Bertan zaude eta.

X – Eroen itsasontzia

– Eta –Nikok sobera harritzen ez zelakoa egiten zuen– geletara joateko, zein da bide lasterrena?

– Laster-lasterrik –erantzun zuen gizontxoak, pazientziaz–, ez dakit dagoenentz. Orain, hori informazioan esan ahalko dizute.

– Eta informaziora joateko?

– Nik egia esango dizut. Badakit hotelean bizi garela (ezkondua bait nago, jauna, emaztea eta bost alaba ditut), baina gure bizi guztia alderdi honetan egiten dugu, eta ez dugu (nik dakidanik, badaiteke alabaren batek zerbait gehiago jakitea, baina ez dut uste) gainontzekoaren berririk, ez bada zuk hezalako bidaiariren batengandik, hau edo hura kontatzen diguna.

– Orientatu bederen egin nintzakezu, zer aldera jo beharko nukeen.

Orientatu, bai. Orain dela denbora asko gabe, handik zuzen etorri batek esan zigun gauza berria, esan nahi bait da, handik etortzeko ez zela, beti uste izan genuen bezala, distantzia problema, altura problema baizik.

– Alegia...

– Alegia, garrantzitsuena igogailuak ongi erabiltzea zela.

– Horrek kezkan uzten nau, nere gelatik honaino igogailu bat bakarra ere ez bait dut erabili.

– Eskerrak, eskerrak. Denbora gehiago beharko da, gauzak diren bezala, baina igogailuak ez dira nahita nahiezkoak. Horren kontura izan dugu emaztea eta biok nahiko eztabaida. Aizu –animatzen zen gizontxoa– eta handik etorria zarenez, esango al didazu noski, han, zer moduz bizi den jendea?

– Ezin ikusi ordea, atzo iritsi bait nintzen.

– Tamala da; emaztea eta biok, alabak aldentzen hasiak eta, hotelaren bazter lasaiagoren batera joateko planak egin nahi bait ditugu, baina besteren informaziorik ezean...

– Baina ni egun batez iritsi banaiz, zuek zergatik ez...?

– Bai, baina zu, zu, eta gu, gu! –sententziatu zuen gizontxoak, eta, bekokia ilunduz, haserre legean, lanari ekin zion.

Niko –bizkitartean pastak jan eta jan–, zutik jarri zen, eta gizontxoari agur emanez –«bai» erantzun zion hark gozagaizki– diskotekaren irtenbidera zuzendu zen.

Irten eta, hiru bide kausitu zituen. Lehena goitik, bigarrena erditik, hirugarrena behetik. «Zierto hasten banaiz honetatik kontatzen hirugarrena goikoa izango da», okurritu zitzaion, berehala okurrentziaren ezteusaz ohartu zelarik. Goitik jende anitz zihoan eta Nikok ez zuen jende anitzik nahi. Erdikoa elurrez zegoen eta jende gutxi zebilen, baina zebiltzenak elur pilotekin borrokan, eta Nikok ez zuen borroka haietan sartu nahi. Gelditzen zitzaionetik hasi zen.

Bide hau landarez zerratua zegoen, eta lurrean, karrask-karrask horbela. Minutu gutxitan, gizon batzuekin elkartu zen Niko. Haiek eskurtsioan zebiltzen, fresko eta patxadaz. Nikok kontatu zien beste bi bideetan ikusi zuena. Batek esan zion goiko bideko jendea prozesioan zihoala, negar eguna zelako. Beste batek, bigarren bidekoetaz, esan zuen:

– Nori okurritzen zaio, elur botaka!

«Jende sinpatikoa da hemen», pentsatu zuen Nikok, eta harekin, landareetaz eta giroaz eta beste holakoetaz solaska, egin zuen bide puxka.

Aire zabaleko bide hark tunel baten ahoan bukatzen zuen. Han, denak sartu ziren. Hondarrezko lurra zegoen, plaietakoa hezalakoa, baina fin-fin-fina eta oso-oso garbia.

Tunelak iluminazio ona zuen, eta tartetik tartera arroka zilatua zegoen eta zilo haietan, arduraz bildurik, gorpuen hezurdurak zeuden. Nikok nola-halako beldurra sentitu zuen haseran, baina lagunen patxadak (hezetasuna komentatzen zuten, hondarraren kalidadea, eta abar) konfiantza eman zion. Hala ere galdetu zion aurrean zuenari:

– Zer dira guzti horiek?

– Arbasoen hezurdurak –erantzun zion hesteak, eta segitu zuen.

Horrela iritsi ziren ate batera, berria baina zaharren ereduan, lodia eta burdinez josia. Han batek hots egin zuen, eta barrendik ireki zieten.

Andre adintsu ile kizkur atsegina zen atea ireki zuena. Niko eta lagunak sala txukun batera sartu ziren. Txartel batean «bisita ordutegia» jar-

tzen zuelako, museo batean zirela ulertu zuen Nikok. Lagunek, arreta handiz, gorako eskailera bat hartu zuten. Niko, han enplegatua bide zegoen hamabost urte ez zituen neskatilak geldierazi zuen:

– Nik zu nondik ezagutzen zaitut? –galdetu zion.

Nikok begiratu zion.

– Bai, nik zu nonbaitetik ezagutzen zaitut.

Atrebida samarra iruditzeaz kanpo, Nikok ez zion inondikako antzik hartzen.

– Oker hago dudarik gabe...

Nikok esanak pena ematearena eginik, eta zeozer bekatuzko proposatuko balio bezala:

– Lagun zaitzadan uzten al didazu?

– Bai... –erantzun zuen Nikok, ezpaikorra hala ere.

– Goazen hemendik –eta eskua ematen ziola, bisitari gutxi zegoen sala handi batera pasarazi zuen; eta informatu zion:– Ni Graxi naiz.

– Ni Niko naun...

– Ikusi, Niko. Sala honetan badago koadro bat gustatuko zaizuna.

Eta Graxik arin-arin zeharkatzen sala irudi handi baten aurrean ipini zuen Niko.

Beheko karteltxoak honela zioen: «*Eroen barkua.* Oskan Laske».

Gero Graxik ilusioz esan zion:

– Begira zenbat jende dagoen hor!

Hala zegoen, bai. Nikok ez zekien nondik hasi. Horra hor bainontzian neska bat gizonezko bat garbiketan duela, neska mutilak ohean gozatzen, eta hor bortxaketak, beste batek bere buruaz beste egiten du, aldamenean ospitala tipo bati operatzen, espiritistak ondoan mamua dariela, bilera sekretoa, dirua eta jokua, dantza suabe, dantza frenetikoa hiru neskek, marionetak, banketea, bat eguzkitan, zorabiatua ondoan, meza beste batek, katu-txakur mordoa, txikitrixa, jaun-hartzeak, urkatua, borrokak, neska batengatik disputak, bingoa, pokerra, lurperatze bat, desmadrea, gitarristak, ametrailadoristak, gerrak, jendetza sutara, buruz behera batzu, borroka librea, tenisa, kotxe karrerak, zaldizkoak, apustuak, hilketak, hiletak, prozesioak, politikoak bileran, bat gurutzaturik, txikleteroa, berbenatxoa, tiobiboa, paurrikak, millonarioak, mise-

rableak, romantikoak, denak barku barruan eta gehiago.

– Eta hori, ezagutzen duzu? –galdetu zion Graxik koadroaren pertsonaia bat seinalatuz.

Niko hurbilagotu zen. Bai, koadroko mutil uniforme gorrizko hori ezaguna zuen.

– Txo! –esklamatu zuen.

– Niko! –bota zioten atzetik. Han zen Txo, bere begi bihurri-bizkorrez eta uniforme gorriz.

– Txo, hi hemen? –galdetu zion Nikok.

– Baiki! Egunero gosaltzen dugu elkarrekin arreba eta biok; nahi baduzu gurekin egin gaurkoa.

– Arreba duk Graxi? –berriz galdetu, Nikok.

– Bai! –erantzun zion Graxik, eta liluraz:– Benga, etorri!

– Beno, gosalduko gaitun –eta Txori:–; gainera badizkiat hiretzako galdetxo batzu...

XI – Pizberriaren kasoa

Museotik atera eta pareko kafetegian sartu ziren. Kafetegi hartan dena zen plastikozkoa: mahaia, aulkiak, lurra, dekorazioa. Hirurak eseri zimen. Bazegoen beste mahaietan ere jenderik.

– Zuk zer nahi duzu? –galdetu zion Graxik Nikori kamareroa etorri zenean–: guretzat, betikoa.

– Neuk ere –eskatu zuen Nikok– beste bat betiko horietakoa...

– Txokolatea ogi errearekin –txutxumutxuka informatu zion Graxik, eta berak kamareroari:– Hiru! –agindu zion.

Joan zen kamareroa lepo tente eta Nikok hasi zuen berea:

– Begira. Txo. Bart festetan geundela kontserje bat etorri, bueno azaldu zitzaiguken, primerako kontserjea esan ziguken, eta jendehartzailearen partez esan zidaken, Mujika, badakik ezta?, Mujika onezik edo ez zekiat zer zegoela eta haren ordez Agirre etorriko zitzaidala. Hik badakik Mujikari zer gertatu zaion?, badakik Agi-

rre hori zein den? (gaur itzartzean eskuan ohartxoa bait neukan: «kontuz Agirrerekin», zer da hori?), eta badakik gelara orain gosalondoan joateko nondik behar dudan...?

– Zuk –moztu zion Graxik jakinmin espontaneoz–, zer egiten duzu, ba?

– Nik erreportajeak egiten dizkinat. Ikusten dudana, idatzi, eta hortik bizi naun.

– Polita da zure lana! –eta Graxik ameslari begiratzen zion.

– Orduan –galdetu zion berriro Nikok Txori–, zerbait al dakik...?

– Mujikari zer gertatu zaion –hasi zen mutikoa–, ez dakit nik; baina –eta begiak zabal-zabaltzen zituen– hemen zerbait gertatzen dela, horren komentzimendua badaukat. Badakizu zergatik? Atzo eta gaur hotela konserje, inbestigatzaile eta inspektorez bete delako. Da saltsa bat! Ongi disimulatzen dute, eta ez dakienari akaso sartuko diote, baina neri!, kontrolak badituzte korridore guztietan, eta arratsean kantari zihoan bat, hartu lauren artean eta ostikatu zuten, galanki!, neretzat zerbait, ez dakit zer, gertatu

dela: orain ezin esan seguru Mujika horretan dagoen edo...

– Eta orain bidaltzen didaten Agirre hori, zein ote da?

– Agirre? Hori ere –eta hatzamarrez gora apuntatuz– esferetakoa, bestea bezain batekoa da hori... Horiek bilera ez dutenean batzarrea dute, handik atera eta beste bat bilkura esaten diotena, beti haruntza, beste puntan, nik ez ditut ikusiak, entzunez bakarrik... Eta zure ohar hori, ez dakit ba, hainbatek idatzi lezake.

– Ba nik bata ez bada bestea ikusi egin beharko derrigor: jakingo duzue nola joan naitekeen hemendik nere gelara, han edozer gauza lokaliza nazaten?

– Oraintxe joango gara zure gelara, neronek lagunduko zaitut –eta gogo onean irensten zituen Txok txokolate goilarakadak.

– Eta ez zara aspertuko han gelan bakarrik? –galdetu zion Graxik Nikori.

Nikori gustatu zitzaion neskatxa.

– Ez naiz luzaz egongo. Gainera, dutxatu beharra dut.

– Dutxatu? –salto egin zuen Graxik–: hori Muskingo iturrian egin! Ez dakizu hori zen den! Hori da bainua! –eta, naturaltasunez, belaunetan eseri zitzaion, eta Txori:– Baietz!

– Bai: munduan ez dago hobeagorik, egitan –eta, lekuz aldaturik, arrebaren izterrean hasi zen pianoa jotzen, arront kontzentratua bere eginkizunean.

Niko, Graxi gainean eta Txo manera hartan, harrituta zegoen, eta objetatu zuen:

– Arropa ezin aldatu ordea!

– Horretaz –Txok izten-pianotik begi keinua egin zion– lasai: hementxe dago labanderia eta elegante jantziko zaitut.

Graxi txokolatea bukatu eta jeiki zen saltan:

– Zer, goazen?

– Begira –esan zion Txok–, nik arropak utziko dizkizut eta lanera joango naiz, badakizu: kafe parean badakizu Graxi dagoela, total, honek berdin eramango zaitu gelaraino gero...

– Bai noski: bueno Niko –esan zion Graxik, ahoan musu emanik–, gero arte: ni hortxe nago –eta irten zen kafetegitik eta museoan sartu zen.

– Zu, etorri hemendik –esan zion Txok.

Ate gabeko errezinto batean utzi zuen.

– Hor duzu Muskingo iturria. Espeziala, ikusiko duzu. Arropa, hementxe duzu pare bat minututan. Gero arte, Niko, eta suerte.

Nikok mutikoa agurtu zuen, eta errezintoan sartu zen. Errezintoa handia zen, parke bat zuen erdian eta parkearen erdian, ur gardenezko iturri zirkularra eta potentea. Zulo kontaezinetatik isurtzen zen ur freskoa gora, eta Nikori, hartan sartuta, zinez gauza probatzekoa iruditu zitzaion.

Iturritik irtenda, han zituen Txok ekarri arropak. «Elegante!», pentsatu zuen. Galtzontzilo deportiboak jarri zituen, jarri zituen oihalezko prakak eta alkondara txuria, galtzerdiak ere jarri, zapata bat...

«Non dago beste zapata?», galdetu zuen bere kasarako. Han ez zegoen behintzat. Hemen eta hor begiratu zuen, eta ez zuen zapatarik ikusi, haruntzxeago begiratu, eta ezer ez. «Ez zen hegazka joango, bada!», bromeatu zuen, eta badaezpada ere goiti begiratu zuen. Baina ez, han ere ez. Itzuli ematen hasi zitzaion iturriari, Txoren bihurrikeria xalo bat izango zelakoan.

Baina beste aldean ere, zapataren haztarrenik ez.

Orduan baten bat negarrez somatu zuen xara baten atzean. Burua agertu zuen eta han zen gizon txapeldun bat banku batean guztiz deskontsolaturik. «Esango al diot zerbait ala dagoenean utziko?», duda-muda egin zuen Nikok instante batez. Baina, berehalaxe:

– Barka molestatzen bazaitut...

Gizon txapelduna Niko entzunez asaldatu zen: segidan berriz kalmatu zen, Nikok segi zezan:

– Zer duzu, gizona? Zergatik egiten duzu negar? –eta urreratu zitzaion eta aldamenean eseri.

– Zer dudan? Ikusi –eta barne sakeletik gizon baten argazkia ateraz eta Nikori erakutsiz:– Hau, ikusten duk, hau? Hau, gizon zintzoa huen, lagun ona, lagun mina neretzat.

– Eta zer gertatu zaio zure lagun horri?

– Hil dela, aizak, hil dela ni hemen bakarrik utzirik...

Hil kanpaiek –Nikok hilarenak izan beharko zirela pentsatu zuen– jo zuten orduan, eta gizon

txapelduna, muki-malkoak zapi batez xukatuz, jaiki zen.

– Nahi badiok, hik ere, azken agurra eman... Eta Nikoren esperoan gelditu zen.

Nikok, txapeldunari so, zango hutsari so, berriz txapeldunari, eta bigarren honi zangoari baino urrikalgarriago iritzi bait zion, «goazen» esan zion eta esana konprentsiozko sorbaldako batekin lagunduz, elkartu zitzaion eta biak abiatu ziren.

Elizara iritsi zirenean –isilik iritsi. Nikok ez zuen eta bestearen minaren tamainarako hitz egokirik aurkitzen–, nor eta Artzaia elizatarian. Txapelduna elizan sartzen utzi eta Artzaiarengana joan zen. Honek ere agudo ezagutu eta:

– Niko! Zer berri honontzaldi?

Horrekin topatu naiz eta, bere lagunik onena hil omen zaiola eta...

Horri? Bai horixe! Hemengo tabernaria bait da, eta hildakoa kategoriako edantzale! Beste bat holako eta itxi negozioa! Gaur izango duk lehen aldia, hildakoa tabernara gabe mezara datorrela! Eta hik, zer egiten duk zapata batekin errenka?

– Ez bait dakit, Artzaia. Nonbait galdu dut.

– Baten batek galeraziko zian...

– Ez; iturrian eta...

Igual ziok, igual ziok. Kasualidadea, badiat hemen ezpartin pare bat... ze zenbakia darabilk?

– Berrogeia.

– Nik bi gehiago, baina hori ez duk problema: bi gutxiago izango hukek problema –eta poltsa batetik ezpartin parea atera zuen–: tori, beste neska batek erantzi arte...

«Ikusiko al ninduen diskotekan?», pentsatu zuen Nikok.

– Hi –segitu zuen Artzaiak– jotzaile txintxoa haiz e!

«Pse» esanez bezala aingeru aurpegia jarri zuen Nikok eta ezpartinak ondo zihoazkiola konprobatuz:

– Ez dugu barrura sartu behar?

– Nik ez: ni barrura atera nauk kanpoan sobera jende zegoelakotz!

– Beti adarra jotzen...

– Ezin bestean! Batzuek besterik ahal dute baina! Hor meza ematen dagoen apaiza bezala: neskazale amorratua, hori ere: horrek egiten diz-

kik horrek, bereak eta besterenak. Tipo sanoa izaki: karlista hori kontrastea: imajinatzen duk hik, garaiotan, karlista? Hala omen duk bada, fuertetakoa gainera. Santa Kruz eta gudukante haien zalea. Liberalak ezin dizkik pinturan ikusi. Ixo, hor heldu duk.

Izan ere elizatik ari ziren fededunak –eta fianbrearen beste adiskideak– irteten. Apaiza ere, eta begirada makurrez heldu zitzaion Artzaiari.

– Lagunaren agurtzera ere ez zinen elizan sartu behar Artzaia...

– Horrek ez ninduen ni agurtuko, eta Jainkoak hemen hobeto ikusten nau.

Apaiza ez bide zen tolerante horietakoa, eta berehala sutu zen:

– Zerura nahi ez baduzu, segi ezazu segi gaitz bide horretan...

– Oraingoz bai, aita. Larogeiak paseak hasiko natzaizu zerurako prestatzen.

Nikok polizi hotsak entzun zituen orduan.

– Ostias, deskubritu ditek! –esan zuen Artzaiak, eta fistu luzea bota zuen. Entzun ziren orduan eliz barrutik burrunbak eta garrasiak eta

apaizaren jesus batean nondik ateratzen bait da elizpetik mutil bixar motxa, denen sorpresarako:

– Antton! –bota zuen Nikok.

– Hildakoa! –bota zuen apaizak.

– Hori ez da gurea! –bota zuen emakume beltz jantziak.

Eta Nikok tipo batzu pipa eskuan zutela gainean zetozkiela ikusi zuen. Artzaiak eta Anttonek, orduan, dinbi-danba-dunba ikusi eta ez ikusi, hiru pirueta emanik kanposantuaren paretaren bestaldean ziren, eta etorritakoak, alde honetan eta pipekin zer egin ez zekitela.

XII – Arbola gauza ona da munduan

Nikok ez zuen jakin nola izan zen. Artzaiak eta Anttonek kanposantuaren pareta gainetik salto egiten zutelako elizaurrean zirenak pipadunen presentziaz ohartu zirelarik, beldur ikaraz barreiatu ziren lorategi eta mendi bazterretan. Nikok apaizaren sotana ere bospasei salto bizkorretan elizan gordetzen zela ikusi zuen.

Nikok, zer gerta ere, hankari eman zion eta zuhaixka batzuen atzean beste batzu zeuden lekuan errefujiatu zen: han egin zuten minutu zenbait, bihotza bildua eta belarriak ere.

Apur bat laxotu zenean, Niko bere ihes lagunengan fijatu zen. Bi ziren, eta artean lurrean gertatzen zen zerbaitetan jarria zuten adimena.

– Zer dago hor? –galdetu eta burua luzatu zien Nikok.

– Hemen, zerbait txarto doala –ihardetsi zion batek, mutil masail gorri osasuntsua. Bestea deuseza zen, argala, zurbila, penetan dabilen

anima irudi: horrek lupaz aztertzen zuen luma, eta masail gorridunak:– bai, iñurritegi honetan gauzak txarki doaz, ohizkoak ez diren joan-etorriak nabari dira: horrek zerbait esan nahi du –eta pentsetan gelditu zen.

– Zer esan nahi dezake? –galdetu zion Nikok.

– Badaiteke lurraren arazoa izatea, eguraldiarena ere badaiteke, edota iñurriena beraiena, beren arteko tirabirak. Gure ustez, baina. Naturarekiko gizakiaren jokabideetan bilatu beharko da anomalia honen zioa. Eta egin egin beharko da zerbait.

Egiaz, ez dut gaia terrible ezagutzen...

– Barkatu –diskulpatzen zen, irribarre zabalez, masail gorriduna–, ni Azpitarte naiz, eta hau Pako –honek lupa uzten zuen, agur egiteko–: ekolojista radikalak.

– Ni Niko nauzue. Eta, zera, barka galdera, baina, zuek zer egiten duzue?

– Gaitzak ezagutu, eta salatu: sakon inbestigatu, ziria nondik sartu hobeto jakiteko; gizarte zantar hau popatik hartzera joan dadin, bizibideak sortu. Ni, horrek gidatzen nau. Hau, bestela da: ez dago burutik oso ondo. Egiten du gauza

arraro bakotxa! Radikal-radikala, hori bai: baina aldi berean bakezale: horretaz jota egon behar. Badu etxean asto bat, eta hark isatsa nola mogitzen duen, horrelako edo halako giroa izango da. Erlojutzat ilargia besterik ez du nahi. Eta makina guztiak, inpernuko erremintak direla: nik, neretzat, burua galtzen hasi dela...

– Zer da, gorra? –galdetzen zion Nikok Azpitarteri. Pakok denari baietza ematen ziola ikusita.

– Ez, hori ere berezkoa: sano bizitzekotan, esaten du ez zaiola inori kontra egin behar: hori ere! Nik esaten diot: hori naturaz kontrakoa duk motel! Eta Pakok: Bai, zierto, naturaz kontrakoa izango duk seguru aski: eta gero berdin berarekin. Bestela ona Pako, baliozko mutua –eta besarkatzen zuen maitasunez–: eta, bere gisa, radikala. Arbolekin batez ere, e, Pako?

– Arbola da gauza handia, ona munduan –erantzun zuen Pakok, begiak argitzen zitzaizkiola.

– Aizak. Niko –hikatara pasatzen zitzaion Azpitarte–, laster bazkalordua izango duk (gure-

tzat. Pakok ez bait du bazkari egiten): gurekin etorri nahi duka?

– Arestian gosari txiki eginda nago baina bueno...

– Etorri, etorri. Utzi hori orain. Pako, gero jarraituko diagu iñurriekin –eta ia zutiturik Nikogana itzuliz–: iñurrien gurekiko antza ikusgarria duk, ez al haiz sekula fijatu...?

«Pakori berba batzu utziko balizkio, bikote ekilibratua!», pentsatu zuen Nikok jatetxerakoan.

Bideak kanposantuaren paretondoa segitzen zuen, eta auzo berri batean bukatzen zuen. Baziren etxe aberatsak, gaztelu bat, eta gero etxe pobreak: bigarrenotan zegoen taberna. Etxepe txikia zen, argi gutxikoa, botila asko, egutegiren bat eta lau edo bost mahai kili-kolozko. Goiztxo zen, eta itxaroteko bi mosto eskatuta – Pakok deus ez–, mahai batean eseri ziren.

Telebista pizturik zuten, eta hasten zen berri bat emanez: «Oraindik berririk gabe atzoko bahiketaz: uste denez...» Orduan, klik, argindarra joan eta telebista itzali zen. Niko gogoratu zen,

lehengo eguneko egunkari batean bahiketa horren berria irakurria zuela.

– Urde zakilak! –bota zuen orduan tabernariak, tankeraz bestela emakume lasaia– Berriro argia kendu zigutek!

– Hauek ere ekolojistak izaki –esplikatu zion Azpitartek Nikori–, ez ditek zergarik ordaintzen, eta aldian behinka taka. Enpresak moztu egiten dik. Baina instantean egingo diagu gerok konponketa.

Pako eta bera altxa, eta Kata tabernariari eskailera eta elektrizidade mundu haietan eskua sartzeko behar zuten tresneria eskatu zizkioten. Hasi zelarik Pako kajan, eskatu zuen:

– Kablea.

– Ez zegok kablerik! –erantzun zion Katak.

Orduan Azpitartek, bera Pakorekin eta, esan zion Nikori:

– Niko joango haiza honaxe ezkerrera bi portaletara dagoen ferreteriara? Kable zati bat galdegin ezak.

– Bai noski –erantzun zuen Nikok–: oraintxe heldu naiz.

Ferreteria zaharra zen, eta erdoildutako burdin artetik gizon kaskazuria agertu zitzaion:

– Bai?

– Kable zati bat mesedez.

– Normala?

– Bai, normala.

– Zenbat?

– Ez dakit; metro batto...

Kaskazurik kablea moztu zuen, paper batean tolestu zion, eta galdetu zion:

– Ez da izango ezer ilegala, pentsatzen dut.

– Ilegala? –ikaraz, Nikok–; ez, ez, ez da ezer...

– Bon, bon –esan zuen Kaskazurik, serio-serio, eta kablea eman zion.

Niko inpresionaturik irten zen dendatik, eta tabernara itzuli zen. Azpitarteri eman zion kablea, eta barran gelditu zen begira. Kata, barraz bestaldetik, baso garbiketan ari, hasi zitzaion zerbait kontatzen:

– Onetan esaten duk: egia duk eta!: haiek ere, zuri etorki; faltso, faltso; ez duka nahi? bat t'erdi!; lehena balitz!: besteak hezala: hemendik parrokiarako; bi bide, ez omen aski; moztu egin behar; inbertsioa, halakoa: neronek ere, ez pen-

tsa; negarrez etorri eta zen!: eman; gero elkartekoak bestetik, hura haiena zela ez dakit zer badakit zer; bronka; neri, mekabuen!; nik eman hurrengoan!; bat hemen, bestea han, itto hi!; ez al da hala?; legea duk; denen kontra; horrela bai; bestela ez; ez.

– Niko ez zen ontsa aklaratzen, baina ahots doinuagatik emakumearen kexuak zirela uler zezakeen. Barra ondoan zegoen sukaldea, eta indabei buelta emateko hara joanik, Katak segitzen zuen:

– Eta hi, bakarrik; gizona balego: hori, badakik: tu-ru-ru: atakeak eman eta hura benga!; neska, non dago neska? de peska; fama golfa samarrarena: zer erein, hura bildu: hark, gaulana; besteok, eguerdiz, zerrijana: eguerdikoz preziso behar nuela, gaur: konpromisua bazuela ez dakit norekin: parpada nahi dirua; ez dute estimatzen; kuidadozko lanak dituk gero!; eta ni ez nauk kejatzen!; ezin kejatu ulertzen? Bueno, jarri lagunekin, orain aterako dizuet eta potajea.

Pako eta Azpitarte, indarra emanik, mahaian ziren berriro. Niko haiekin zen.

– Ez kasurik egin –esan zion Azpitartek. Katagatik–: emakume balientea duk, baina txoratuta zegok.

Potajea ekarri zien, haiei eta beste mahaietan eseri ziren tipo ilun goibelei, eta harekin bete zituzten urdailak Nikok eta Azpitartek –elemele Azpitarte, jan lanari horregatik utzi gabe: eta Pako desgogoz eta malenkoniaz begira zutela.

Orain, kafea, kopa eta purua –hots egin zuen Azpitartek: Pakok keinu gaitxa egin zuen.

Niko erlaxatu zen aulki kaskarrean.

XIII – Bestela koartelean jarri bonba

Azpitarteren puruarekin batera, Katak Nikori enkargu ekarri zion:

– Niko haiz hi ezta?: bai ba; bi, telefonoz hots egin diate; Agirre delako batek; ordu erdi barru hire zai egongo dela; zeran, gazteluaren atean: sinfalta joateko.

– Horiek lagunak, Niko –esan zion Azpitartek–: nola enteratuko zen Agirre hori hi hemen haizela?

– Atzo ere –esplikatu zuen Nikok– ni berbenan egon eta enteratu ziren; ez dakit ba.

– Bazkaltzen ere ez haute lasai utziko!

– Zoritxarrez luzatu ezineko asuntoa daukat Agirre horrekin –eta Niko jeiki zen–: alegratzen naiz, beste alde batetik, deitu duelako. Bazen orena!

Barrara hurreratu zen Niko, zenbat zen eskatu, eta Katak:

– Hirurogei duro, dena barne.

– Eta besteena? –galdetu zuen Nikok.

– Azpirena egiten duk? Mesede bai egiten diok: pobre, horiek!: hala jaio!; zeinek berea!; aber, aber... seirehun eta hirurogeitamabost dituk; ez kasurik egin horretaz!; harrapatzen badut horietako bat!; garaiz, esango duk!; badiat puxka oraino!; baina, tira, segi, hori zai izango duk eta, ondo izan mutiko!

Nikok denak agurtu zituen, eta joan zen Azpitarte Pakori opioaren marabilak goraipatzen hasten zitzaizkiola.

Gaztelua lehen tabernarakoan ikusia zuen, eta haruntz abiatu zen. Kaleak hutsik zeuden. «Bazkalondotxoan lo kuluxka», esan zuen bere golkorako, eta Agirrek esan ziezaiokeenaz hasi zen pentsatzen. «Dudarik gabe, pisuzko arrazoiren bat egonen da Mujika ez etortzeko; nik halakoa beharko dut, bestela ez bait litzateke jaun horiena jokabide zuzena. Ze planak izanen dituzte? Segur, denbora aprobetxatu beharko da».

Horrelakotan iritsi zen gazteluaren atera. Ez zuen sorpresa txikia hartu, ezezagutzen zuen baten ordez, Xelmo ikusi zuenean.

– Xelmo! Zu hemen?

– Nonbait egongo ginen eta! –erantzun zion Xelmok, bere hitz egiteko zehar modu bereziz–; nahi baduk orain nerekin etorri...

– Orain ezina, Xelmo. Kasualidadez batekin gelditu naiz hemen eta...

– Bai, bazekiat.

«Hemen, denek dena zekitek», pentsatu zuen Nikok.

– Nerea ere jakitekoa duk ordea –segitu zuen Xelmok–; neskakoia haizela jakin diat eta, badiat hiretzako bonboia.

Orduan, autobusa zetorren; gazteluaren atarian geralekua zegoen.

– Benga, sartu –eta Xelmok bultz egin zion Nikori barrura.

– Baina nik ez...

Dena dela, autobusean zen.

– Hi neska ikustera hator eta jarri hor isilik –konduktoreari ordainduta agindu zion Xelmok.

Niko jarri zen, eta:

– Baina, ni ezin naiz orain... –eskatu zion.

– Neska batek hori eta gehiago ez al dik merezi?

– Zita hori, ordea...

– Nerea ere zita duk, zer uste duk?

– Eta nora naramazu?

– Ez; bestela –moztu zuen Xelmok eztiro, eta «hau da misterio», pentsatu zuen Nikok.

Aldamenean bi neska eseri zitzaizkien. Bata mulatoa zen, eta bestea, erdibeltxa. Elkarri begiratzen zioten eta honela mintzatzen ziren:

– Gero, etxean –esaten zuen mulatoak–, ez ahaztu titietan ukitzea, badakin nola...

– Bai, bazekinat... –irri egiten zion erdibeltxak maleziz.

– Goiti dizkinat punttak, badakin...

– Izan ere, tipoek beti irrikaz uzten gaituzte...

– Gauza jakina dun...

Xelmok, fijatu zen Niko, edo ez zuen entzuten, edo ez entzunarena oso ongi egiten zuen. Nikok mulataren kamiseta beltzean bular ederrak antzeman zituen. Haiek jarraitzen ziren:

– Ikusten errebuelta hori? –galdetzen zuen erdibeltxak–; hori dun nik esaten ninana...

– Bai hori ez zegon gaizki...

– Hor saltarazteko aukeran ziauden...

– Bestela koartelean jarri bonba eta listo.

Irri-mirrika denbora guztian.

Hirugarren geralekuan Xelmo distraitzen zela ikusi Nikok, eta «hau da nerea» pentsatuz, ateak ixtera zihoazen instantean bota zuen bere burua kalera. Xelmo barne, abiatu zen autobusa.

Niko fijatu zen buelta handi bat eman ondoren autobusak hartu zuten lekuaren gaineko, gazteluaren gaineko kaleetan egon behar zuela, eta, bertan beherakoan eskailera maila pila bateko pasadizoa bait zegoen, hortik hasi zen jauzika. Pasadizoaren bi alderdietan etxeak zeuden, eta, etxe bateko atari batetik hots egin zioten:

– Aizu, aizu!

Nikok begiratu zuen. Mutikoxka ijitoa zen; Nikok gogoratu zuen: aurreko goizean bordan zirela txokolatea eskatu ziona zen hura.

– Zer nahi duk, mutiko?

– Hor behera ez zoaz inora; hobe duzu horko atari horretatik sartu, eta pasiloari segitu, barru eskailerak aurkitu arte eta, haietatik, bai, nahi duzuna jeitsi.

– Mila esker mutiko; nola duk izena?

– Nik, Haw.

– Eta hik zer egiten duk hemen?

– Zizak biltzen ari naiz. Eta?

– Gutxi! Arbra eta besteak?

– Gaizki; bart Arbra harrapatu zuten funtzionario batzuek eta bortxatu zuten; baina badakigu nortzuk diren; larrutik pagatuko dute.

Niko berriz inpresionatu zen mutiko haren heldutasunez. Eta Haw jadanik joan bait zihoan, hark esan atarian sartu zen, eta pasiloa zeharkatu zuen. Izan ere, han zeuden barru eskailerak. «Uste dut gaztelura garaiz helduko naizela orain-dik», pentsatu zuen, eta jeisten hasi zen.

Etxe bateko eskailera normalak ziren; hogeitapiko maila, eta beste pisu bat. Pisuak, beherago eta ilunago zeuden. Azkenean, ez zuen ezer ikusten Nikok, eta pisu hartako paretak ikutu-mikutu zituen, interruptore bila. Nahi gabean ate batean taup egin zuen, eta kriiiii eginez atea ireki zen. Etxe barrena argi zehar apalez iluminatua zegoen, eta portzelana finazko pitxar batek bizitu zuen Nikoren ikusmina. «Handikiren baten etxea izango da», pentsatu zuen, eta ezin izan zuen eutsi pixka batez sartzeko tentaldia.

Bere gibelean kontu-kontuz itxi zuen atea. Miresgarria zen etxe haren handitasuna, garai bateko muebleak, armiarma lanparak, ekialdeko

alfonbrak eta ehunak, urrezko marko eta brodatuak, koadro beltzak eta eskultura zuriak.

Aurreska-aurreska joaki, hots tiki arraro bat somatu zuen, baten batek ai-ai egingo bailuen. Hura gela batetik zetorren, eta hartara jo zuen Nikok.

Gela hark zabalik zuen atea eta leihotik eguzki izpi bat bulego mahai gainera infiltratzen zen. Bulegoan, gizon xahar bat kontzentraturik lanean. Bi besaulki, alfonbra lodi bat eta hainbat liburu eta paperak osatzen zuten dekorazioa. Beste bazter batean, berriz, tipo bat, ai egiten zuena izan ere, esku-zangotik lotuta eta zatar bat ahoan.

«Zer egiten du gizon horrek hor?», galdetu zion Nikok bere buruari: eta, galdera zuzenean egitekotan, zatarrez askatzera joan zitzaion. Orduan, atzetik:

– E, nor zara zu?

Galdera atzetik zetorkion. Niko itzuli zen. Neska bat zegoen han pistolaz berari apuntaka, aho-begietan dezisioa zuela. Nikok atzera egin zuen.

– Baina Max: ez al dizut esan –mahaian lanean ziharduenari galdetzen zion neskak– ernetxo egoteko?

– Bai, baina –diskulpatzen zen gizon xaharra–, lanean hain ondo nengoen...

– Eta zu, nor zara? –errepikatu zion neskak Nikori;– zer egiten duzu hemen?

– Ni... eskaileran argirik ez zegoen eta, zera...

– Bueno, bueno, ez da deus gertatzen: nahi baduzu egon hortxe, irakurri edo nahi duzuna egin: baina tipo hori bere horretan utzi. Ez bait da laguna, hori.

– Zer egin du, bada? –galdetu zion Nikok.

– Laguna ez bada, zer egingo zuen? –erantzun zuen, lojikaz, neskak. Eta Nikok bere buruari «gaztelura joateko betarik izan nezake oraino?» zalantza planteiatzen ziolarik, neskak, zorroan sarturik pistola, xaharrari galdetzen zion:– Zer, aurrera, orduan?

Gizon xaharra hasi zitzaion esplikatzen suharki.

– Ari naiz ari ikusten, errealidadea ez dela osorik hartzekoa, puxkanaka hartzekoa dela, osorik ez bait da konprenitzen ahal (nahiz eta

puxkak ere nekez konpreni daitezkeen), edo bestela asimilatzen gaituzte (nahiz eta zerbaitetan zentraturik ere asimilatzen gaituzten)...

Hori izan zuen hasera, eta ondotik aspaldiko fetxaz eta kimikaren sinbolojiaz nahasiriko bakarrizketa izan zuen, neska pistolariak nonbait segitzen ahal zuena, baina Nikok, saiatu arren, berehala galdu zuena.

Bat-batean, egundoko zarata. Orduan neskak lotuta zetzanarengana joan zen, galtzarbetatik heldu zion eta arrastaka eraman zuen armario batera, bertan sartzeko. Gero, esan zion xaharrari:

– Zuk, badakizu; eta zuk –beste hau Nikori–, hobe dukezu badaezpada ere hemendik ateratzea –leihoa seinalatzen zuen–, eta haruntzxeagoko alfeizarrean esperatu nik esan artio.

Nikori ez zitzaion leihotik ateratzeko ideia gehiegi gustatu, baina gauzak ez zitezen okertu aholkua segitu zuen.

Alfeizarra estu-estua zen eta apenas ahal zitekeen zutik egon bertan.

XIV – Hauek ondo bizi dire

Nikok, leihoari eutsita alfeizarrean zegoela, pentsatu zuen: «seguru aski hona bidaliko ninduen ez nazaten barrendikan ikus: beraz, aurreraxeago egin beharko dut». Eta, ezpartinak irrista-irristatuz, paret hutsari helduka, apartatu zen leihotik. Bete-betean jotzen zion eguzkiak burua berotzen ziola, eta mina sentitu zuen. Eskuek huts egiten bazioten ere, behera begiratzera ausartu zen.

Hara! Balkoi batetik bi metrotara ez! Ustekabe hartaz ia erortzen da; erori ez bait zen, luze gabe, bota zuen bere burua.

Balkoi txikia zen, marmol txukuna, krabeliñ loreak, elegante. Haren kristalezko atea irekia zegoen, eta Nikori, behera balkoitik ez balitz egon ze kraskatekoa hartuko zuen ikusten ari zela, musika batek belarriak ernearazi zizkion.

Musika gortinen bestaldetik zetorkion, eta suabea zen, atraktiboa. «Deitzen nauela ematen du», esan zuen Nikok berekiko. Musikak estal-

xeak, ahotsak ere bazetozen: han zer zen ikustearren, gortina tolestu zuen arduraz.

Jai bat zen, saloi luze-zabal batean. Saloiaren alde batean, mahai luze bat zegoen, eta bertan gizon-emakumeek jan-edatekoak egiten zituzten. Beste alde batean, aulkietan jendea behabeha, masailaren zaintxoak gorriztaturik, gizon bizardun batek egiten zuen hitzaldi. Gainerakoan, hor eta han, talde txikiagoak mar-mar eta kux-kux, korte berdineko traje-gorbata barruan, gehienbat funtzionarioak izango ziren, ez arront altu ez arront baju proportzio beretakoak, musu aluak hizka-mizka. Bat piano joka eta besteak inguruan barretsu, neska ongi ezarri talde miresgarria zegoen bazter iluntxo batean. «Hortik musika, dudarik gabe», pentsatu zuen Nikok. Musika ozena zen, beste inork entzuten zuenik ez zirudielarik ere.

Inor ez bait zen beragan fijatzen, ahal izan zuen ezaxola tankerarik onenean, aurrera urratsa eman zuen Nikok, eta jende talde kurioso haien artean murgiltzen hasi zen, inondik hasita, lehen gauza ikusi zuena paretetan zeuden argazkiak izan ziren, ugari bait ziren eta politak.

Baziren argazki haietan inaugurapenak eta klausurapenak, bilerak eta batzarrak, bandera-emateak eta bandera-kentzeak eta beste batzuk horrelakoak. Niko harritu zen, marko gorri burdigalezko argazki batean Françoise ikusi zuenean: Françoiserekin argazki hartan, Karmen zegoen: eta bi hauen artean, beste emakume bat, adin beretsukoa. Bi adiskideren kontenplazioan zegoela, atzetik ere ahotsak:

– Zer, ezagunak?

Niko itzuli zen. Argazkiko hirugarren emakumea, erdian zegoena, han zegokion, irri airez begira.

– Bai –erantzun zuen Nikok, eta bihotza taupa-taupa antzeman zuen–: beste bi hauek ezagunak ditut.

– Gaitz duk –eta emakumeak Nikori pelusaz garbitzen zion ilea, edo garbitzeko legea egiten zion– Karmen eta Françoise ezin gurera etortzea: senarrek jakingo balute hemen izan direla! –eta, keinu kapritxosoa eginik:– Politikoak! Txanpaña nahi duka, maitea?

Niko xarmatuta zegoen, zimur berriz erein aurpegi espresibo maitakor harekin. Batek hots

egin ziolako, izena Izaskun zuela jakin zuen, Izaskunek bata eta bestea presentatzen zion, txanpaña eskatu zuen, eta txintxin egin ondoren zurruta eta musu eman zion Nikori. Niko asaldatu zen apurtxo bat, hainbat ezagun han, Izaskunenak behinik-behin, baina Izaskunek ez zion inori jaramonik egiten, eta jarraitu zitzaion musu tipika, samurki beste bat eta laztantxo buruan, eta barreka, eta ezpainak delizioso juntu-juntu, eta txistua, eta gogoa. Besotartean emearen gorputza urtutzera zihoakiola, ejem-ejem! ozenak ebaki zien maitaldia.

– Martin, nere aita eta senarra –presentatu zion Izaskunek Nikori, bihurri.

– Faborez, etorriko zara momentu bat? –galdetu zion Martin zelako hark Izaskuni.

– Ez –erantzun zuen Izaskunek–: orain ondo nago. Faborez, etorri –gogortu zuen Martinek doinua.

– Orain, ez –berresan zion Izaskunek.

Orduan Martinek bortxaz heldu zion, besotik, handik eraman nahirik. Nikori odola gori-gori bururatu zitzaion.

– Ez duk ikusten ez duela nahi? Uztak ba bakean!

Niko berehala harritu zen esandakoaz. Martin, berriz, bera baino harriagotu nonbait, malaostia irentsirik, gorroto eta mespretxuz begiratuz biei, joan egin zitzaien.

– Ez dik notarik eman nahi –esan zion Izaskunek Nikori–: bestek ez dik molestatzen, baina. Egun goiz hasi zaidak nazkatzen, gona motzegia neramalako, lehen tipo batek begiratu didalako... En fin... –eta, aspertu antzera:– soportaezina!

Berriz musu eman zioten elkarri. Ahoaren gozatuz Niko xoro-xoro zegoela, tas-tas eman zioten sorbaldan.

– Niko!

Estebanen ama zen, portuko etxean pastak eman zizkiona.

– Kontxo, amona, zu hemen! –agurtu zuen Nikok.

– Hementxe! Uiba! Izaskun! Ez zintudan ikusi!

– Mutilarentzat begiak zuk ere!

– Bai noski! Ez zara galtzen e!

– Pues zu ere ez itxura denez... Baina, barkatu –beste nondipait dei egiten bait zioten–, uzten zaituztet pixka bat bakarrik –eta Nikori:– gero ikusten gara –eta honek erantzuteko begiz eman zion azken laztan biguna.

– Ez dakit, ba, Niko –esaten zion iadanik amonak-zer egiten dudan nik hemen, soziedade ponpoxean.

– Zeu ere ponpox etorri zara ba...

– Ba, ba! –arropengatik:– gordean neuzkanak... Eta zu, zer, dena ondo? –interesatu zen amona.

– Galduan nabil ni, galduan –erantzun zion Nikok.

– Ez: zu ere ez zara galduko, ez –esan zion amonak pikardiaz–: zu ere, Estebantxoren gisarakoa zara, bai.

– Non da Esteban?

– Arrantzan! Aita berriz, gaixorik. Hark bidali nau eta! Burutik hala-hola dabil. Bart hasi zen esaka, hura betidanik alderdikoa izanda, alderdia utzi behar duela eta utzi behar duela. «Eta nora joan behar haiz edade horretan?», galdetu nion nik. «Sozialista egin behar naun, sozialista»,

arrapostu hark. «Beti horien kontrakoa izan, orain sozialista, txoriburu?», galdetu nion. «Hiltzeko eguna hurbil zegon-da, beti izango dun hobeto sozialista bat hiltzea, gutarikoa baino», eman zidan erantzun.

Nikok barre egin zuen.

– Etorri, etorri –esan zion amonari–, zeozer edanen dugu eta –eta taberna aldera eramanez:–: zer nahi duzu?

– Honezkero, txanpaña edan beharko! –erantzun zuen amonak.

Nikok kopa bi txanpañ eskatu zuen, eta gero:

– Zenbat da?

– Hogei-ta-bost duro kopa, berrehun eta berrogei-ta-hamar.

– Baina, nola? Honi –aldamenean zuenagatik– hogeitan eman dizkiozu.

– Hori misioilaria delako. Misioilarientzat, merkeago izaten da.

Misioilari hura ikaragarrizko tipo handia zen, eta barre karkailaz betetzen zuen ingurua. Koadrila handi batean zegoen, eta lehen kopak txukatu zituztela botila bat eskatu zuen. Ireki baino lehen hura, astindu zuen bortizki, eta pop! kor-

txoaren atzetik hitsa erreka jaurtiki zuen, eta besteak beste Niko eta amona bainatu zituen.

– Kontu pixka bat izan zenezake –esan zion, arroparengatik haserre, amonak.

Misioilariak aldiz barre ozenagoa bota zuen, bertan usteldu behar zela ematen bait zuen, eta ez adituarena eginik segitu zuen.

Segitu nahi izan zuen, zeren orduantxe amonak –Nikoren txundidurarako– eskutik kendu bait zion misioilariari erdizka beteriko botila, eta bi eskuz hartuta indar guziz sekulako koskotekoa eman bait zion bertan seko utziz.

Hura izan zen onduan saltsa-maltsa. Amonaren aldekoak eta aurkakoak hasi zitzaizkion elkarri ostikoak banatzen, etorri ziren uniformedun batzuk borrak eskuan ordena egon zedin eta okerrago izan zen, han-artean hasia zen pianoaren lagungarri koadrila bat koruan kantatzen, eta mitinlari bizardunak inposatu nahi zuen bere jarduna; inor ez zen aklaratzen. Beste batzuk, paretak erortzeko arriskuan baileuden edo, eutsi egiten zieten, eta Niko, amona galdurik eta Izaskun ikusteko esperantza gutxi zuela, atetik irten zen isilik.

XV – Alimalekoak

Batleku hartatik atera zenean pare-parean aszensore bat ikusi zuen. «Izanak izan, suertean nago», esan zion bere buruari.

Sartu zen, beherako xedez; bai eta, botoiari eraginda, abiatu ere. Ziztuan abiatu. Nikok deskontzierto ta zurrunbilo somatu baitzituen buruan.

Heldu zen noizpait beheraino: B letra gorri elketrikoz piztu zen, eta ate automatikoak zabaldu zitzaizkion. Irten zen Niko. Aurrean, karrika zegoen izan ere. «Kanpora eta lehen ikusten dudanari galde eginen diot nererako bideaz», erabaki zuen.

Baina atarian pentsatu ez bezala zezen bat ageri zitzaion. Nikok, hasi-hasieran, ez zuen asmatu zer egin: zezena bai, beraganatu zitzaion: orduan. Niko ere, atzera, aszensorea utzita korrika handian eskaileretan goiti. Lehenbiziko pisuan ladrilorik ez, mendia baizik: taketak eta burnisarea, hesi bat zegoen. Nahiz eta zezenik

iadanik ez etorri, balanga pasa eta hantxe errefujiatu zen Niko.

Pagadia zen lekua. Nikok aurrera egin zuen. Adarje apaleko pago baten azpian gelditu zen gero, itzuli edo zen egin behar zuen pentsatzeko.

Bazeuden pagopean harri batzuk, eta han ikusi zuen eszenak erditik egin zion Nikori. Baziren harri xabal baten gainean lau xomorro eserita, bi txikixeagoak eta bi handixeagoak; handiotan ere, bata bestea baino handixeagoa zen. Lauen erdian baziren hosto mardul batzuk, antza zenez xomorroen apairu legea; marra-marra bizkor jaten zuten. Halako batean, txikietarik bat jeiki zen, eta kontentuaren kontentuz dantza batzuk egin zituen hostoen gainean. Berehala zen atzera eserita, hala ere lauetan handienak jaten ari zenari utzi, dantzariarengana joan, eta adarrondoko bat eman zion. Hasi zen txikia negarrez eta erdi tamainakoak errixtazko ai-ai-ai! egiten zuelarik buruaz, handiena bueltatu zen bere lekura janarekin segitzekotz.

Nikok begiak igurtzi zituen, baina ez, halaxe zen, harri gain hartan huraxe gertatzen ari zen.

«Ez nuen behin ere holakorik ikusi», aitortu zion bere buruari.

Gero, aszensorera itzuli nahi izan zuen, baina pagondora nondik etorria zen ez zen oroitzen, eta eskuarekin bisera egin zuen, ea antzematen zuen daturen bat gidagarria. Natura ez zenik, arrano iritzi zion egitura bat baizik ez zegoen, eta hura ez ondo-ondoan; halaz ere, bost minu-tutan iritsi zuen.

Bertatik ez zitzaion horren arraro iruditu. Ohe zabal bat zen, eta ohean oinburuka neska bat begiak hertsita. «Yoga egiten ari da dudarik gabe», pentsatu zuen Nikok.

Neskak begiak zabaldu zizkion.

– Agian –esan zion mantso-mantso– harrituko zara hartzen dudan jarreraz.

– Bai –esan zion Nikok–, egia da, harritu egin naiz.

– Ba, hau, oso ona da nork bere burua bilatu dezan –Nikori neskaren hitzak ere oinburuka etortzen zitzaizkiola iruditu zitzaion.

– Burua ez, bueltarako bidea nahi nuke nik aurkitu.

– Deus aurkitzekotan, zerorren burua beharko duzu bilatu lehendabizi –eta animatzen zuen:– Etorri nere ondora, ni bezala jarri, eta saia zaitez bilatzen.

Nikok ez zekien horretan sartu orain edo zer egin.

– Ez bait naiz horretan saiatua...

– Horregatik zabiltza galduan –esan zion neskak, segurtasun doinuz.

«Horregatik izanen ote da?», galdera bururatu zitzaion Nikori. «Bueno; hemen poliki egoten da, tarte bat eginen dut neska honekin eta segituren gero», erabaki zuen. Arropak erantzi, eta oheratu zen. Ohean zulo moduko batzuk zeuden.

– Ohe honek zuloak baditu... –erakutsi zion neskari.

– Bai. Egunero berregiten dira, segun zenbat lagun dagoen, nolakoak eta nolatan.

Gorputzaz laster erdietsi zuen neskaren gisako zerbait Nikok. Aitzinean, ispilu bat zeukan, eta hor ikusi zuen bere burua. «Nahiko mutil liraina nago», pentsatu zuen.

Lepoa begiratu zuen, eta sorbaldak; besoak eta eskumuturrak; bularrak, eta sabela. Sabela-

ren gainetik, zakil-barrabilak. «Masturbatzeko uste izaten den baino posibilidade gehiago dago», pentsarazi zion Nikori perspektiba berriak.

Orduan, hankatartetik tximinoak eta leopardoak hasi ziren jalgitzen. Anitz ziren tximinoak, eta, jolasean bazetozen ere. Nikok ongi antolatuak zeudela erraz ikusi zuen. Zenbait eseri zen erdinguru bat eginez, eta leopardoak haientzako dantzan hasi ziren.

Batera mogitzen ziren, leun-leunki, ederederki. Gero tximino batzuk ere inkonporatu ziren dantzara, eta batek anuntziatu zuen:

– Erdi-dantza!

Goxo suabe sensual mogitu ziren denak orduan, eta ama mutur luze-luze batek esan zuen, haurrari musua nola ematen zaion erakutsi behar zuela; Nikok ikusi zuen ama hori emazteki beltza bilakatzen zela, eta musua berari eman behar ziola.

Bat-batean, katakras!, beheiti inbentoa, Niko lurrean zen eta ohetik neskak galdegiten zion:

– Mina hartu duzu?

– Ez, ez dut minik hartu; baina –aitortu zuen apalki– uste dut ez dudala aurkitu bilatzen nuenikan.

– Zu, saiatu; ez etsi.

– Bai. Baina berandu egiten ari zait.

– Eta? Zer dauka txarrik?

– Ona al da bada berandu iristea?

– Horixe! Berandu iristeak burua askatzen dizu, zauden eta maite ez dituzun lurraldeetatik libratzen zaitu.

– Gauza berria, neretzat.

– Deslurreratzearen teoriak dituzu; garrantzitsuak, ongi biziko bazara.

– Ez dakit –dudatu zuen Nikok–; orain, ordea, hotelera nahi nuke joan, neure gelara, zera batzuetarako.

Neskak irri egin zion.

– Bai galduan zabiltzala benetan!

– Zer, ba?

– Uste duzu, ohe hau nik bizkarrean ekarria dela? uste duzu, hotelean ez banintz, bilutsik eta ahozpera lasai nintzatekeela hemen?

Niko gorritu zen. Ez, horrek ez zuen sentidurik, egia esateko.

– Begira –jarraiki zen neska–, xendra honi segiozu, eta hortxe zehar irtengo zara. Irteeran, baduzu edifizio handi bat. Edifizio handian, telefono bat duzu. Hots egiozu handik, nahi baduzu, nahi duzunari.

XVI – Telefono xerka

Nikok eskerrak eman zizkion neska yogalariari, eta hark seinalatu bide zidorrez hasi zen.

Bai, neskak ez zion gaizki esan: han zegoen bidearen bukaeran berak esaniko edifizio handi hura. Leiho eta tximinia asko zuen edifizioak –horretan fijatu zen Niko partikularzki–; bestela, beltz astuna zen eta antipatiko samarra iruditu zitzaion.

Sartu eta, hura ere bai egia, telefono publiko bat hantxe. Niko joan zen eta deseskegi zuen. «Rezepzioan emanen didate Agirreren berri, eta joateko moduaz informaturen naute», pentsatu zuen; aparatoa eskuan zuela berriz, nondik has jakiteke geratu zen, oroitu bait zen, telefono zenbakirik ez zuela; eta konturatu, ondorioz, han segitu baino hobe zuela hartaz baten bati galdetzea.

Gazte bat zetorkion momentu hartantxe, eta hizketan aurrea hartu zion Nikori:

– Aizak, tori pegatina hau; borondatea –eta eranskailu rektangulo gorria luzatu zion. Letra

txuriz berba bakarra zegoen: «Independentzia». Nikok poltsikoak bueltatu zituen, eta zituen diru xeheak (deus besterik ez zitzaion gelditzen; eta gelatik zenbait bilete berderekin atera zen; hemen edo han ebatsiko zizkioten, seguru asko) eman zizkion gazteari, eranskailuaren truke, gero berak eskatzeko:

– Aizu, arren, telefono giarik badakizu non aurkitzen ahal dudan?

– Bai; igual puxka bat itxadon beharko duk, zeren atezaina (horrek dizkik eta) areto batean bait dago, hitzaldi batean, eta ez zaiok gustatzen horrelakoetarako molesta dezaten... –eta gazteak ate bateraino eraman zuen Niko, eta isil-isilean hura erdizabaldu, eta esan zion:– hura duk, ikusten? –eta gizon traje urdin burusoila erakusten zion.

– Bai, bale, hemen egongo naiz, eskerrik asko –esan zion Nikok, eta gazteak «eskerrak hiri» esanik alde egin zion.

Hortik denbora gutxira, «zergatik ez sartu?», pentsatu zuen Nikok, «horrela ez dut itxaroten denbora hutsalki galduko». Esan eta izan, barrura. Hitza zuenak ez zion jaramonik egin, eta Niko

aulki batean jarri zen; hagitz jende gutxi zegoen eta leku libre sobera.

Hiztunak ez jakin zer hizkuntzaren ezaugarri mitiko-fonetikoen gainean ziharduen; atezain burusoila zen notak hartzen zizkion bakarra, besteak lo beharrean bait zeuden.

Bai eta Niko ere, heldu eta ordubete batera, ezin izan bait zuen orduan ahoa nagi-nagian zabaltzerik erreprimitu. Hiztunak bera ikusi, eta suzko begirada bota zion, Nikok irtetea nahiago izan bait zuen, ea hitzaldia suerte pixka batekin ez al zen beste horrenbestez luzatzen.

Itzulitxo bat egin zuen baina, beransko izango zelakotz estu samarrik, oraingoan sartzean atezainari bere nahia agertzea erabaki zuen, gia baten ematea ez bait zen, azken finean, lojikaz bederen, inor haserra zedin adinako beharra.

Zoritxarrean, bigarren honetan, atezaina bera ari zen zegoen lekutik mintzatzen, zalantza eta proposamen batzuk egiteko zituela eta. Askoz jende gehiago zegoen oraingo honetan, bete-betean gela, eta atezainarenak ez zeraman –hartu zituen oharren luzea ikusita– labur jotzeko biderik; horregatik –eta kopeta makurrik, au-

rreko hizlariaren beraganako esne txarra goiti bide bait zihoan– Niko irten zen berriro, eta geldiezinik paseoan hasi zen.

«Badakit; gia nahi dudala papertxo batean idatziko diot, erantzuna ia segurua dut eta gainera nere fintasuna haintzakotzat hartuko du», otu zitzaion. Baina, horretarako sartzera zihoala, nonbait hitzaldia amaitzen zen, eta denak zutik jartzean, Nikok galda zuen atezaina; bestalde, jendea zutitzean, aretoa Nikok uste zuen baino handiagoa zela ikusi zuen, eta ehundaka koloredun ikasleak irteera desberdinetatik hasi ziren trumilka ateratzen, eta Niko, ez zezaten zapal, erretiratu zen atetik, eta burua desitxaropenez bete zitzaion.

Etsi tamu hartan, pasilo luze batetik abiatu zen, baldin ba edifizioaren erdiruntz. «Erdian egonen da, noski, argibiderik», pentsatu zuen.

Irten zen patio batera, zeinaren erdialdetsuan beste edifizio gris txikiago bat bait zegoen. Aihen-belarrak estalia zegoen bigarren hau, eta atearen gertuan zenbait hilobi zuen.

Niko hurbildu zen hilarrietako hitzak ikusteko asmoan, eta besteak beste Bosch, Poe, Hugo eta

Dostoievskiren izenak ikusi zituen; goroldiozko hilarri batean, «Macheth» irakurri zuen. «Hona pesadila, miseria, ikara, alkohola eta epilepsia, elkarren arrimuan», pentsatu zuen Nikok, edifizioan sartu aurrean.

Barnean dena ziren liburuak, liburu handi txarrak eta liburu txiki interesgarriak, metro anitzetako apaletan egokiro klasifikatuta, letra eta zenbakitxo bana zutela.

Gela bat Picassori eskainia zegoela ikusi zuelarik, esku-begiak nahi gabez horko liburuetako laminen atzetik joan zitzaizkion.

«Hau da hau» atseginez bere kautan esaten ari zela, emazteki boz txirrinak jo zion:

– Aizu, aizu, zer egiten duzu hor? –galdetu zion.

Nikok begiratu zion. Ez zen gaztea baina, ile horia bera, zaharra ere ez zen. Desagradablea ez zen, nahiz eta oso agradablea ere ez.

– Konproba dezakezu –erantzun zion Nikok–, soil-soilik laminak ikusten ari naizela.

– Ez dakit nor zaren: ez zaitut inoiz ikusi; baina hemen sartzea ilegal dagoela jakin bazenekien...

– Berria naiz eta –defendatu zen Niko–, nola jakingo nuen...?

– Jin zaitez nerekin, mesedez –gonbidatu zuen emaztekiak, gozotasunez, eta kontatu zion:– ni liburuzaina nauzu, eta gustatu egiten zait jendea etor dadin; zorigaizki, federatu ez dagoenarentzat, galerazia dago hau, eta gero garrasiak (eta garrasiak bakarrik balira: mundak ere!), neretzat izaten dira. Baina hemen –hiru mahai zegoen idazkaritzara iritsiak ziren; mahai batean mutil bat zegoen zurrunka lotan; beste batean, xahar xokozale liburukoia («Max!», ezagutu zuen Nikok); emaztekiak hirugarrenaren azpia erakusten zion:– baina hemen, nere mahaiaren azpian, gustora egon ahalko zara, libururen bat nahi duzularik neri eskatzen didazula..

«Mahaiazpian kukubilka egotea orain ez da gero fantastiko proiektua», pentsatu zuen Nikok, «baina». Gainera ideia distiratsua otu zitzaion, eta emaztekiak galdetu ziolarik:

– Zeinekin hasiko zara? –Nikok ihardetsi zion:

– Aurtengo giarekin, plazerra baduzu.

Emaztekiak «bon zergatik ez» adierazten zuen keinua eginik fitxetan bilatu zuen, fitxa es-

kuan zuela apaletan gero, eta gia atera zuela, ekarri egin zion. Niko, giarekin, bere txokorat. Eta, emaztekiaren galtzerdiek sudurra laztantzen ziotela, bilatzen hasi zen, orriak pasaka.

Orriak pasa eta hotelik ez. Pasa eta pasa, eta gia mardulagotzen zitzaiola iruditu zitzaion. Multzoka hasi zen pasatzen, baina horrela ere ez, hotelaren aztarrenik. Hurbil zirudielarik, parrafo eta orrialde berriak tartekatzen zitzaizkion. Orduan:

– Aluia! –bota zuen. Eta, letra txikiz, «hotela» agertu zitzaion.

XVII – Hau da pelikula

Niko telefonoa begiratzera zihoala, tipo zainsorta bat presaka sartu zen idazkaritzan, oihukatzen zuela:

– Aguro, aguro, denak kanpora, behean bonba jarri dutela eta! –eta irten zen, berdin presaka.

Niko izan zen, gia lurrean utzita, jeikitzen lehena. Emazteki bibliotekariak egin zuen komentario:

– Beste bat! Kilo gutxitakoa izango al da bederen!

Xaharra liburuetatik esnatu zen, eta lo asperralditik gaztea, eta patxada handian atera ziren. Niko ere bai, urduriago, eta emaztekiari galdetzen ziola:

– Baina zeri jarri diote bonba?

– Behean sukurtsala dago eta –erantzun zion emaztekiak, eta urrundu zitzaion.

Nikok berriro bakarrik ikusi zuen bere burua, eta pentsatu zuen: «Apika, ibilitakoak desibiltzea litzateke hoberena, eta, beharbada, bueltarako

bide bakarra»: nahiz eta ideia bera ere nekagarria egiten zitzaion.

– Aizu gazte –deitu zioten orduan; Max zen ondoan zuena, antiparrak sudurpuntan–: lehen eta orain fijatu naiz, egun galdua duzula. Zer zabiltza, ba?

– Hotelaren bila nabil, eta hura agertzen ez –erantzun zion Nikok.

Xaharra eskua lepatxokoan pentsakor instante batzuk eta gero:

– Gauzak diren bezala: ez nuen imajinatzen hori izan zitekeenik; dena dela –erantsi zuen esperantzatsu–, gauza bat iruditzen zait klaro: ordu txarrez ari zarela hotelaren bila. Zergatik ez egon, total!, iluntzerarte? Egunaren argian hotela bilatzea, ongi ikusita, disparate txikia ez al da?, gauez aise aurkituko duzu: eta, bien bitartean, pasa ezazu lasaiki denbora!, ez da gisa aurpegi hori!, joan zaitez zinera!, e?, zergatik ez zinera?, zine bat baduzu hementxe, espaloi honetan bi etxesail haratago, filme ederra duzu gaur, bai motel!, anima zaitez!

«Arrazoia du xaharrak: total!», pentsatu zuen Nikok, eta eskerrak emanda, eta xaharrak irriba-

rrez ez da zeren erantzunda, zinealdera abiatu zen, eta oso laburrean ailegatu.

Bestibuloan, inor ez zegoen kobratzeko. «Hobe noski, bat ere sosik ez bait dut», oroitu zen: eta, inor eza aprobetxatuz, isil-isilik salara sartu zen.

Txuri-beltzezko pelikula zegoen, han urrun pantailan, baina sala, hain zen beltza, eta hain egitura bitxikoa (Niko butaka eta kolumna artean topoz-topo zebilen), ze azkenik lurrean jarri bait zen bazter uste batean, bista girotu arteino.

Apenas argumentoaren romantzeetan lekutzen hasten zela, oinmuturreko bat eman zioten eta, eman legez, eman ziona bertan behera etorri zen. Bai eta sakreka hasi ere, gisa itsusiz Nikoren hildakoak aipatzen zituela.

Haren umoreaz alarmatu zen Niko, eta berehala izutu ere, tipoak linterna piztuta harrapatu nahi zuela ikusirik. Hasi zen orduan Niko butaken gainetik lasterka, eta zinearen gibelean inortxo ez bait zegoen, eroso ibili zen, arinki. Gero, berriz, aurrerago, dena beteta zegoen, eta Nikok, ohartu orduko, kasko bat edo beste zapaldurik zeukan. Akomodadorea –hura bait zuen pertse-

gitzaile– Nikok zapaldutakoengana iritsi zelarik, ikusleek heldu zioten berari, matraka haren sortzailea zelakoan, eta horretan amaitu zen Nikoren ihesa.

Aurreneko lerroko butaka batean eseririk zegoen.

Arnasa oraindik estu zuela, moztu zen proiekzioa. «Nere bila ote datoz?», erdi beldurtu zen Niko, eta butakan ahal bezala izkutatu zuen bere burua. Geroxeago argiak piztu ziren, eta hogeitamar bat urtetako gizona igo zen publikoaurrera.

– Barkatu, jaun-andreak, barkatu –esan zuen, tarrapataka–, tekniko ofiziala oporretan dago eta ni teknikordea naiz; aberia bat izan da proiektagailuan, ba ote dago zuen artean honetaz dakienik?

Isiltasuna salan.

– Ez dago inor-inor-inor? –erregutu zuen teknikordeak.

Gizakume bat altxatu zen atzekaldean.

– Bai, ni! –esan zuen, eta kapela, purua eta teknikordearekin salatik irten zen, eta hura konpontzera abiatu.

Laster fokoak iraungi ziren eta berriz martxan zegoen roiloa. Niko kontzentratu zen.

Deus gutxi iraun zion kontzentrazioak, aldamenean zenbait plazerrezko intziri entzun zituelako. Behatu eta bai, ezkerreko butakan, emakume bat norbaiten gainean jezarrita zegoen, pantailari atzea emanda, hau da, bestearekin larru jotze jarreran. Nikok ez zuen aurrerakoan pantailakorik ikusi, bai albokorik sentitu; eskua luzatu zuen emakumearen ipurdira, eta han kokatu zion eri behatza, alderdi zimurtsu bigunetan, pana finazko galtzetan guri-guri.

Behatzaren laztanak eta emakumearen goitibehera suabeak polliki-polliki gertatzen ziren, luzamenduz, kamara lentan, horren kalidoki, ze Nikori pizagale bizia etorri zitzaion.

Jeiki zen gehiago ezinik eta komunera joan zen. Zinearen komuneko sarreran neska maitagarri bat zegoen. Nonbait, hark Nikorekin sartu nahi zuen komunean, elkarrekin piza egin zezaten. Nikok sartzen lagundu zion, baina behin barrura ezkero deabru bilakatu zitzaion neska maitagarria, eta haginka nahirik lepoa luzatzen zion; Niko horzkadetatik ondo defendatzen bait zen,

taktika berria erabili zuen neskak: zangoak erakusten zizkion irriparrean, Niko seduzitunik hurbildu zekion.

Nikok horrela ezin berdin aguantatu, eta neska bentzitzen ari zitzaiola somatu zuen, bereganatzen zuela, eta laxatasuna sentitu zuen, eta neska kabriñaren hatzaparrak, eta min itsusi bat eztarrian.

XVIII – Bost izarretakoa

«Zer karajo ari da hori esaten?», pentsatu zuen Nikok burua etorri zitzaiola.

– Bai, hauxe zen!

Nikok begiak ireki zituen zuhurki. Burua atzera botata zegoen eserita, eta aurrean bi erizain izugarri eta akomodadore bat zituen. Hau zen esaten ari zena:

– Hauxe da, zalapartaria: linternaz txit ederki ikusi nuen.

– Zer ordukaldera izango zen? –galdetu zion erizain batek, libretatxo batean apuntatzekotan.

– Ordubete pasatxo, nik esaten dudana –erantzun zuen akomodadoreak.

– Zu, esan duzu, zarela...?

– Kontserje-akomodadorea, jauna, kontserje-akomodadorea naiz ni zuen zerbitzuko.

– Bueno, bueno, hau eraman beharko da hemendik –esan zuen beste erizainak. Nikogatik–: ikusi, itzarri egin da.

– Hi, zer, ontsa deskantsatu duka? –galdetu zion lehenak, halako doinutxoz.

– Nora eramateko diozue? –despistaturik. Nikok–: hotelera, menturaz?

– Bai, bost izarretakora!

Nikok ironia somatu zuen eta ezeroso sentitu zen.

– Traje txuri horiek zeri dagozkio?

– Hi, hi, hemen inork galdetzen badu, guk egiten diagu, hi isilik egon hadi –ebaki zion batek zakarki.

– Eta orain –besteak, ez manera hobean– zutitu eta lagun gaitzak –eta besoetatik hartu zuten, eta eramaten hasi.

– Behar duzuelarik... –arrastratzen zen akomodadorea erozainen atzetik.

– Bale, bale –lepogainetik, batek: eta Niko kanporatzen zutela, honek beste erizainari:– Nork daki! Igual sukurtsaleko atentatuarekin zerikusia izango dik honek.

– Hik uste duk hau miliki daitekeela? –harritu zen bestea.

– Gehiago armenio ematen dik baina!

Beste solasik gabe, Niko bi dorre haien antean darda gainean noski, bailara batean zegoen bila batera sartu zuten. «Dena dela, hemengo

arduraduna, hark konprenituren du oker ba dagoela», pentsatu zuen. Horma altuetako bila zen hura, erdian etxe bat kareztatu berria, eta atzerago, etxe gehiago, eta labe garaietakoak bezalako tximinia luzeak. Bi erozainek bulegoan sartu zuten, non monstruo batek eskuak bihurritzen bait zituen.

– Aja! –agurtu zuen monstruoak–, eta honek zer egin du?

Zine bateko lurrean eseri eta gero komunera lotara joan da –erantzun zuen erozain batek.

– Horri buruz legeak zer esaten duen ikusi beharko da –eta monstruoak belarria harraskatzen zuen.

– Baina nik ez dut uste egin dudanik... –saiatu zen Niko, baina erozain batek saihetsekoa eman zion arrasa moztaraziz.

– Resistitzen zarela pentsatu beharko dut? –bota zion monstruoak, horzdura potentea erakutsiz.

– Resistitu ez da baina... –orain heste erozainak jo zion beste saihetsean, eta mutuarazi, eta berak, erozainak, egin zion galde monstruoari:

– Nora eramango dugu orduan?

– Ba, ez zait iruditzen erabat inadekuatua denik. Segurrenik inkomodatua soilik edo-ta, gehienaz ere, inadaptatua izango da –hatzazalak jaten ari zenez Nikori kosta egiten zion denaren ulertzeak–: bai, horixe da, eraman ezazue B modulora. Eta zuek, ez bistatik gal, agian adarra sartu nahiko digu eta.

Indarrez atera zuten erozainek Niko bulegotik, eta galeria batzuk ibili ondoren, giltzapean utzi zuten, haiek kanpotik begira gelditzen zitzaizkiola. «Entzun bederen egingo balute, entendituko lukete...», pentsatu zuen orduan Nikok.

Giltzape hartan ez zen bakarrik horratik, jende gehiago zegoen. Pabelloi handia zen, eta makinari gaitza zeukan. Suak, metal hotsak, terriblezko piezak, eta guzti horien artetik, hau hara eramanki, hura hona ekarki, hamaika lagun, goiti eta beheiti. «Honek fabrika ematen du», pentsatu zuen Nikok.

Tipo bakarra bide zegoen lanik gaberik. Zaharra ez zen, baina bai zimurrez josia; begietan bizi tximista esanahikorra gordetzen zuen. Tipitapa Nikoganaino iritsi zen, eta esan zion:

– Zer, probisionala? Ni ere haninduken eta ikusten nauk.

– Lantegian zaudela?-interesatu zen Niko.

– Ez, beleroan! Atera hadi, bestela! Orain, nik lanik ez, e?, ez diat kolperik jotzen nik; tonto nola naizen; Tornilo esaten zidatek, baten faltan omen nagoelako: ez zekiat nola ez nauten orain-dik hemendik atera: haseran bai, gozarazteko: metala bezala gozarazten haute hemen: anbien-tea, badakik?; pse! atera egiten nauk oraindik baina hori ez zegok esaterik; ni, baserrian ondo motel!; hura hondamendian zierto, baina hau?, miseria!, neska falta gogorra!, esposatu nintzen egunaz oroitzen naizelarik!, hura izan zuken hura jataldi ederra: ogia, ardoa eta berrogeita-mar kilo xerra ekarri eta benga bukatu arte; han, ni ninduken, neroni, gero inbentoak eta bapo!, mendian gelditu direnak, haiek bai kanpetxano!, normal behintzat, ni behin ere jeitsi gabea eta, behingo batez eskolara joan behar, eskolan ez niken ikasi ez! gaixtokeria franko bestenik; hona ekarri nautenak; tristea!, izan hadin txintxo: An-tton dantzaria: horren aipua heldu duk hona!; mutil goxoagorik!, bihotz otzanagorik!, han jo

eta hark erantzun, omen!, ez ezak!, hor zeukatek ba harrapatu berria, peligroso!, aditu al duk?, non zegok deretxoa?, tonto ez banintz komaidios! ni isilik e!; ni, tonto; entzuten ditudanak!: orain ere, laster hasiko duk fandangoa: nik ez diat dantzatuko gaurkoan!: hauek ez buru ez hankarik: nik bururik ez: hankak onak!; asanblada: zergatik asanblada?, bazegok motiburik ala!; egingo?; behar luke!; paurrika danbolina, neretzat; produzitu; haiek produzitu zituen amek aborto egin balute!; ba, goikoak barkatuko naik!

Bitartean, Nikok ikusten zuen, lana utzi eta mono urdinak ari zirela hiltzen pabelloiaren erdian. «Hori izanen da asanblada», pentsatu zuen. Ertzainei begiratu zien, baina haik, musean ari eta, ez ziren enteratzen.

– Hik, nahi duana egin –esan zion Tornillok–; ni baniak torpedo; suerte!

– Zuk ere, suerte! –erantzun zion Nikok, eta bere golkorako: «Pena orain alde egitea; interesante mintzo zen».

Beharginak batuz-batuz zihoazela, Nikok, ertzainen naipezaletasuna aprobetxatuz, hankari

jo zion. Haiengandik urruntxo zegoela, hitz gutxiko mitinlari batek bota zuen:

– Ametrailadoreak behar ditugu, ametrailadoreak!

Deskarga hargatik edo, ertzainek begiratuko zuten edo, Nikoren desagertzeaz batera asanbladaz txunditurik edo, total alarma jo zutela, ertzain gehiago etorri zekien. Mono urdinak, orduan, makina bat ipini hemen eskorga bat han, barrikadak antolatzen hasi ziren. Niko, bazterrera, beldurrez. «Oxala ez banaute hementxe akabatzen», pentsatu zuen. Sarri hasi ziren konbateak.

Nikok, orduan, neska larrutsik baten irudia antzeman zuen lurrean. «Ze gauzak gertatzen diren!», esan zion bere buruari, eta jaso zuen irudia. Irudia jaso eta, bat ere arrabotsarik gabe, lurrean zulo bat. «Aibadios!», izan zen handik pozik sartu aurrez bere buruari egin zion azken komentarioa.

Lurra itxi zitzaion gainean, eta tunel zut batez labaindu zen. Salatxo batera iritsi zen, palangana handi bete ur bait zegoen. Niko garbitu

zen, eta jarraitu, beheitikoan jarraitzen zen tunelaz.

Gela txiki batera iritsi zen gero, bakarrik ispilu bat zuena. Ispiluan honela zioen: «Emakumeek begiratzen nautela argiz betetzen naiz, gizonek begiratzen nautela dardarka hasten naiz». Korrika Niko aurrera.

Azkenean, gordeleku galaktiko baten gisako galeriak zeuden, laberinto bat, eta, noizhehinka, emakumeren bat, beltza, txuria, edo bestela.

Gazte rubia batetaz gustatu zen Niko. Zerbait bazuen berezia hark, fisikoki ere, eta berari neska gustatu bait zitzaion, neskari ere gustatu zitzaion bera, eta kamantza batera sartu ziren, eta hasi ziren musutan. Niko poliki asmoz, baina berehala, galtzontzilotan zegoela, korritu egin zen, eta utzi zituzten musuak eta biak zakilari begira, eznea bota eta botaka, eta neskak etsi keinua egin zuen, dena bukatu bailitzan, eta Nikok hura ez zela bukatu adierazi nahi izan zion, penaz zegoen baina aldi berean ez gaizki, korritu zen baina ez zen korritu, eta sentsazio horrekin lokartu zen.

Hor nonbait ageri zitzaion Nikori neska ile gorrizta bat, eta segituan ezagutu zuen aurreko gauez ikusitakoa. Oraingoan, aldiz, haren edertasuna trapuz jantzirik zetorkion –kolore suabe arin, ugaritako trapuak, horiak, naranjak, gorriak, moreskak–, eta gainetik larru ñabarrezko gerriko askea, urrezko apaingarriak esku-lepobelarrietan, oinak sandalietan, eta ibilkera armoniatsuz zetorkion eta aldamenean zuen, eta irribarre majikoa zeukan eta aho gozatsu harekin musu egin zion hurbildu gaberik, eta Nikok gehiago ezinda galdetu zion:

– Neska, nor zara zu?

– Ni Zeta naiz –erantzun zion neskak: eta begi keinua egin zion eta deus baino lehen itzulia emana zuen eta etorri bezala, bero, ritmiko, delizioso, joan egin zitzaion.

XIX – Jeneralak txoriak akabatzen ditu

Esnatu zenean, Nikok gela txiki eta pobre bateko ohantzean sartuta zegoela ikusi zuen. Ohantzea ere txikia zen, eta pentsio batean egon zitekeela pentsatu zuen. Mesanotxean neska baten irudia zegoen, eta paperezko manilak zituen iratzargailu bat.

Oso goiz zen, baina Niko ez zen nekatua sentitzen, eta jaiki-jantzi-jalgi zen. Nonbait, lo egin zuen gela hura orain sartzen zenaren dependentzia zen, neskamearentzakoa pentsatu zuen Nikok, zeren orain sartzen zen hau anitzez handiagoa eta luxuzkoagoa zen.

Begira zegoela, atearen zabaltzeak susto eman zion, baina:

– Niko!

– Txo!

Han zen bai mutil uniforme gorria.

– Ze poza! –deklaratu zion Nikok–, uste bait nuen betikotz galduta nengoela...

– Ez zara aise galduko, hau txikia da eta.

– Txikia diok? Nik galdu baizik ez diat egiten eta!

– Haseran bai; trukoa hartu egin behar! Nahiago nuke nik bai, inoiz edo behin galduko banintz, baina eskakeatzen hasi eta zas! harrapatzen naute guzti-guztietan. Eta zu, zer zabiltza?

– Banenki mutil! Batetik bestera, eta nahi dudanik ez diat egiten bat ere!

– Baina zer da, zer da bada egin nahi duzuna?

– Erreportajea egin behar diat, Txo, hemen gertatzen denaz erreportajea; horretarako behar nizkian bada Mujika edo Agirre edo, haiek eman behar zidateken...

– Mujika! Oraindik ez al dakizu Mujikarena?

– Ez; zer gertatu zaio bada?

– Herenegun goizez, bahitu egin zutela.

– Bahitu? Herenegun? Orain ulertzen diat... nahiz eta... noski... agian... baina... eta Agirrez, zer dakik Agirrez?

– Agirrez? Hori ez zen atzo egun guztiz bere etxetik mogitu.

– Ez zela? Orduan bera ere ez huen zitara joango...

– Zita al zenuten?

– Bai ba...

– Nik ez dakit zuk erreportajerik edo beste zerarik egingo duzun, baina daramazun martxan zeu hasiko zara egunkarietan agertzen...

– Ni? Zer ba?

– Denak dituzu atzetik eta. Neri jendehartzaileak behin baino gehiagotan, zugatik galde, bila dabilkizula eta, berdin kontsejeroek ere, eta beste banaka batzuk, bibote ikaragarrizko gizon batek ere, bart, misterio handirekin, ea banekien non zinen zu; zer egin duzu, gero?

– Egin? Orain arte, ezer ez; baina gaur aklaratuko dizkiat gauza guzti horiek, eta serio hasiko nauk lanean.

– Nik ez dakit paper hauek interesatuko zaizkizun –eta Txok, mueble batera joanik, kajoi bat irekitzen zuen–, izena badute horrekin zerbait...

Niko joan zitzaion eta paperetan izenburua irakurri zuen: «Kontrainformazioa 5. Terroristak isolatzeko prentsaren erabiltzeaz».

– Jo! –eskapatu zitzaion; eta Txori:– Nor bizi da hemen?

– Jeneral bat; zuk, nola lortu duzu sartzen? Parte honetan bijilantzia handia dago.

– Ez zekiat; hor esnatu nauk.

– Oihanarekin? Gero, galduta zaudela... bai zera!

– Hi; eta hik, zer egiten duk hemen?

– Ni, jeneralaRi bala batzuk kentzera etorRi naiz, lagunendako. Etorri –leihora eraman zuen Niko–, hor parkean eskopetarekin ikusten duzun hori?, altu hori, mostatxo txuria, horixe da hemen bizi den jenerala.

Parkean gizon eta mutil batzuk zeuden. Armak zerabilzkiten, eta muin gain batetik txoriak askatzen zizkieten, haiek tiroz akaba zitzaten. Txori txikiak ziren batzuk, eta denak akabatzen zituzten. Gero ahate bat askatu zieten, eta hura hiltzeko bala bat baino gehiago behar izan zuten, azkenik batek buruan jo zion eta luma xuriak odoletan zituela lurreratu zen ahatea. Nikok ikusi zuen Txok begietan malkoak zituela.

– Asesinoak! –esan zuen Txok; eta segituan:– Aizu, laster!, jenerala heldu da eta, zuk egingo

duzu hemendik atera, hartu eskoba hau eta garbitzen duzunarena, ez zaizu konturatuko; ni –eta poltsikoak beste kajoi batetik hartu balez betetzen zituen– banoa; a, gero arte: eguerdian, geltokian, konforme?

Nikok baiezkoa egin zion –bere buruari «zergatik egiten diot baiezkoa?» galdetuz– eta Txo irteten zelarik, eskoba hartu zuen eta barritzen hasi zen.

Ohe azpitan zegoela sartu zen jenerala, eta bera agurtu eta begiratu gabe aldameneko egongelara pasatu zen pertxero batetik zintzilikatzeko eskopeta eta logelara itzuliz ispilu aurrean mostatxoa atontzen hasi zen. «Banoa oraintxe ala segitzen dut dena harritu arte?», duda egin zuen Nikok. «Eta Oihana etorriko balitz orain?», eta gogoratu zen: «gainera ez diot neskari oherik egin!» «Ikusiko al dut hura?»

Jeneralak segitzen zuen bere burua paratzen, eta Nikok dena zuen eskobatua eta pilatxo bat zeukan: «eta pala?», oroitu zen orduan. Lehendabizi pentsatu zuen pala bila ateratzea, berriro ez itzultzeko, baina, batetik, ateratzeko jenerala zen lekutik pasatu beharko zuen, jeneralari hain

segur gustatuko ez litzaiokeena, eta bestetik, Txok esan zionagatik, ez zen erraza izango kanpoko kontrolak igarotzea, eta bere aitzakiez balia bazitekeen ere, eta horiek balio baziezaioketen ere, ezein ikerketak jeneralarenganaino eramango zuen, eta honek zernolako erreakzioa, garbiketa zerbitzukoa ez zela ikusita?, aparte istilu horretan seguru aski Oihana gertatuko litzatekeela inplikatua, eta ez zen ordain polita izango, eroetxetik bere ihesaldian neskak zerikusirik baldin bazuen bereziki. Horregatik, pilatxoarekin aldameneko gelara pasatzea erabaki zuen. «Badaiteke hor pala bat egotea, edo bestela irtenbideren bat», pentsatu zuen.

Aldameneko gela handia zen, ongi ipinia, kristal garden baten atzean dutxa zegoen, eta Nikok beste aldean, muebleen ezarkeragatik, irtenbide batzuk asmatu zituen. Zabor pilatxoa aurretik, ondotik eskoba eta bera hirugarrenik, gela zeharkatuz, hara joan ziren.

Izan ere, hiru irtenbide zegoen; edo irtenbide bat, hiru aukera eskaintzen zuena: eskailera, dantzalekua eta jokurako gela. Eskaileratan ibiltzen asperturik zegoen; baina dantzalekuan ez

zegoen dantzatzeko inor, eta jokuan ez zekien, aparte xentimorik ez zuela. Beraz, asperturik egonda ere, eskaileretara abiatu zen.

– Bon giorno! –esan zion gizon ezkonberri batek, emaztearekin eskailerak jeisten zituena: Nikok buruz agurtu zuen, eta gogoratu zen, Txoren sorpresarekin eta jeneralaren bisitarekin, bere burua garbitzea ahaztu zitzaiola, eta ez hori bakarrik, koadrotxozko pañueloa ere, neskamearen gelan utzi zuela. «Ez dut galduko –pentsatu zuen–; gero etorriko naiz, jenerala bazkaltzen dagoela».

Orain, berriz, zabor pilatxoaz lehenbailehen libratzekotan, eskoin begira, ezker begira, eta alfonbrapean sartu zuen, gero eskoba artistikoki zutabe baten kontra ezartzeko.

Gero gelditu zen: «gora ala behera?» Seguru zegoen bidea gorakoa zuela, baina segurtasun horrek berak dudarazten zion. «Oraindaino horrela ibili naiz eta hemen naiz inoiz baino eztakit-nonago». Pentsakizunotatik gazte batek atera zuen:

– Zer, nora jakin ez? –galdetu zion, pasota; beste bik lagunduta zegoen.

– Bai, ez dakit hortik edo hortik joan –aitortu zuen Nikok.

– Aukeran hortik –gazteak behera seinalatzen zuen–: hor, putak dituk; polbo bat, hirurehun, bi polbo bostehun.

– Hobe bi jotzea –lagundu zion beste gazte batek.

– Joan, joan –esan zion Nikori hirugarrenak.

Nikok ez zuen ongi jakin gonbidatzen zuten edo joan zedin behartzen zuten: nolanahi ere, ez diskutitzearren, eskerrak eman zizkien, eta mailarik maila abiatu zen. «Bestalde putek gauza asko dakite», pentsatu zuen.

XX – Neskekin hobeto

Pisu bat, ez zuen bestenik jeitsi. Haseran ez zuen ezagutu aurrean zeukan neska zango makila, palma baten arregatzen zegoena. Segituan izen bat gogora zitzaion: «Ana». Ana, lehengoan baserrian gosari eman zion neskatxo sugandila.

Anak, Niko asko hurbildu zitzaion arren, ez zion jaramonik egiten: Nikok nahi zuen, bada, barekin mintzatu, baina Anak landare bakoitzari berea ematen bakarrik egiten zuen kontu. «Gogoratuko al da, elkar ezagutzen dugunaz?», egin zuen kili-kolo: badaezpadan galdetu zion:

– Ongi, landareak?

– Ongi? –erantzun zuen Anak, itzuli gabe, eta ondoren esplikatu zion:– Gehienak bai, polliki dituk: hau, esate baterako –eta hosto pintxodun bat erakusten zion–, hi astetan, horrela izatetik honela izatera pasatu duk; ez omen duk normal, horrenbeste, landare mota honetan. Dena dela, penak ere ematen dizkitek landareok: honek –altu bat orain, hostoak idorska–, hil bidea zera-

mak: eta okerrena, nondikako pena duten ez dakidala.

Orduan bai begiratu zion Anak:

– Nik hi ezagutzen haut ezta?

– Bai, ez haiz gogoratzen, baserrian nola izan nintzen, hik gosari emanik eta nik...?

– Ez ezak pentsa gehiegi inportatzen didanik –moztu zion Anak–: ezagutzen haut eta listo. Ba, ikusten duk, ni hemen –eta besoaz zirkulo egiten zuen, landareak eta neskak zeuden gela dena erakutsiz–, hemen bizi nauk; ez duk beste munduko lekua, baina. Baserriak badizkik honek ez dituenak; baina komodidade batzuk ere, etorri –eta atetxo bat irekitzen zion–, kukua zegok komuna baietz, armariotxo honek txukun egiten dik: bai, gustora, lagunak ere onak...

Hitz horiekin besteengana eramana zuen. Lau ziren, eta Ana, Ixi, Kati, Josune eta Josebe zirela informatu zion; Josune eta Josebe oso guapak iruditu zitzaizkion Nikori, Ixi ere bai, berrogeiak paseak igual baina; honek hitz egiten zuen, lasai, oso doinu bereziz:

– ...Orduan hark lurrean zetzana seinalatu zidanan-da... «Zergatik hil duzu hori?» esan zida-

nan-da... «Horrek beste hura (seinalatu nionan) hil zuelako», erantzun nionan-da... –esaldi hakoitza eta gero «da» ipintzen zuen Ixik, eta aldi batez beste alde batera begiratzen zuen, buruaren mogimendu azkartxo batekin–: gero juizio egunean, togadun eta letrau guzti horiek han hituen-da... nik haren alaba nintzela! esan nionan-da... aita aspaldian Ameriketara nola joan zitzaidanan-da... nola etorri zen hona bakarrik...! da... haiek orduan nola bakarrik!, emakume batekin etorri bait zen, nik ez bait nekien-da... hark izango al zuen zerikusirik gurean!-da... izan bazinan! ez balu hobe!... Zer, Anatxo, lagun berria? –Nikogatik esaten zion.

– Bai, laguna dinat, bisitan zegon.

– Ongi etorria –esan zion Josunek, eta Anari:– majoa daukan!

Anak ahoa xabaldu zion irribarrean, eta Niko eseri zen, mutildu samarrik.

– Aita hiltzeko gertuan-da... –gogoratzen zen Ixi–, nik ezin hartan ikusi baina joan nintzaionan-da... «ametsak, politak egitzazu» esan nionan-da... hark: «bai, amodiozkoak» esan zidanan hain goxo-goxo...

– Nerea ere –esan zuen Josebek– arront gaizkitua huen, ofean, eta lagun bat joan zitzaionan eta galdetu zionan: «¿Qué es lo que más te gusta del mundo?», erdalduna bait zen hura, eta aitak: «las mujeres»...

– Ez zekinat ba –moztu zuen Anak ezaxolaz–, hainbeste maite gaituzten: gero, honekin geldi-tu, harekin jo...

– Badakizue –animatu zen Kati– lehengoan Joxepari zer gertatu zitzaion? Gelan batekin geldi-tu dun. Erantzi eta ohera sartu dun. Pasa denbora eta gizona ez zetorkion. Bueno, ez dun etorriko gizonik. Jantzi eta joateko. Non agertzen da orduan bera sartuta egon zenaren ohearen koltxoi azpitik gizakume gizajoa, larri-larri eginda! Badakizue? Lehen aldia omen zinan eta potroak hemen omen zizkinan!

Bostak barretan lehertu ziren, eta Niko ere bai.

– Neri atzo gertatu zitzaidanan gertatzekoa! –esan zuen Josebek, alaiki– Periko, badakizue. Avinaretaren semea, harekin autobusean eta, bueno, musu bat gintunan ez dizuet gehiagorik esaten. Andere bat begira eta begira, antipatiko

begiratzen zigunan andereak eta nik azkenean galde egin nionan: «zer, zeu ere liatuta?» ur hotz pitxerrak ere ez zinan hala utziko: «eee!?» egin zidanan hola; ikaratu bait ninduen horrible:«ez-konduta nahi dizut esan...» esan behar izan nionan...

Berritu ziren irriak Joseberen ateraldiaz.

Pues nik –Josuneren txanda zen orain– beste bat bazeukenat hori baino misterioagoa dena: bost katu ezagutzen dizkinat egun guztian miarramiau isilik gelditzen ez direnak, eta etorri zaien txoritxo bat pio-pio pio-pio egiten duena eta ze gauza!, katuek ez diotela aginik botatzen...

Bostak berriro ziren barrezka, zeren Nikok ez bait zuen hau konprenitzen, baina besteak begiratzen nola bait zioten, instintuak begia bragetara eraman zion eta hura irekia zegoela ikusi zuen.

Hura hala moduz ixten ari zela, zanpa! bi funtzionario gainera.

– Seguru hago, hau dela? –galdetzen zion galoiak zeramatzanak ez zeramatzanari.

– Bera zen, bai, honaino segitu dut eta.

– Etor gurekin –eta heldu zion galoidunak Nikori–: alfonbrapean zaborra botatzen ikusi zaituzte.

– Nik ez... –defendatu zen Niko.

– Ez naiz ez konfunditzen –galoigabeak.

– Oker ikusiko zenuen...

– Ez nuen ez oker ikusi.

– Zeini sinistu behar diot –arrazoitzen zuen galoidunak–: autoridadeari ala delinkuenteari? –eta, ondorioz:– ez zaitez erresistitu, eta goazen.

Zutiarazten zutela, Ixik eta egin zuten protesta:

– Txakurrak!

– Txerriak!

– Txatarrak!

Baina alperrik izan zen. Orduan Ana etorri zitzaion eta:

– Tori giltza, erori zaik eta –esan zion Nikori, eta giltza bat eman zion.

Egin zion konplizidade keinuagatik, giltza hori neskaren gelakoa izango zela deduzitu zuen Nikok, eta, kanporatzen zutela, pentsatu zuen: «Horiek lagun uzten ditut behintzat; eta Ana

neska handia da benetan... Baina hauek, nora ote. ..?»

XXI – Mapa batek galdua

Hain zen handia bi funtzionarioek eraman zuten edifizioa, ze Nikori bera txiki-txikia zela sentiarazi bait zion. Beste funtzionario asko zegoen, pasatzen zirenen mogimenduak arduratsu jarraitzen zituztenak.

Kanpoan harramantza handia zegoen. Nikok entzun zuenez, prozesu luze bat zegoen parkean larrutan harrapatua izan zen emakume gazte baten kontra, eta han kalean lagunak eta etsaiak diskutitzen zuten biolentoki.

Barnera pasarazi zutenean, Nikok itomena esperimentatu zuen, halako jendeketa zegoen. Oso gela zabala zen, eta oso garaia, baina batez ere luzea, bista iristen ez zeneraino luzea, eta banaka eta mordoskatan eta talde handitan zebilen pertsonala: beste batzuk, agian gehiago, eserita zeuden, denak beltz kezkati, hor hemenkako bankuetan eta lerroka antolatutakoetan, eta hauek epaitzeko salak zirela laster ezagutu zuen Nikok; dena zegoen kontrol-begi automatikoek superzaindua, eta gainetik funtzionarioak,

dozenaka anitz, Niko bezalakoren batekin edota armatutako patruilatan.

Nikok gertu zeukan baten batek botea:

– Sorgina! –aditu zuen.

Bere eskoinean atso bati egiten zioten epaiketa. «Ez da izanen...! bai, hera da», esan zuen Nikok berekiko, baserrian behiak jeisten ezagutu zuen atsoa berrezagutzean. Orduantxe ari zen atsoa hitz egiten, esaten zuelarik:

– ...Sartu nion puñala eta berriro sartuko nion! Gu atxilotzera, zer etorri behar zuen? Ilegal biltzen garela? Zuek zarete ilegalak! –eta behatz erakusleaz tribunala apuntatzen zuen–, gure legearen kontra zaretelako! Guk segituko dugu, sasi gainetik laino azpitik, eta urkatzaile zaituztegun horiei –berotzen zen eskuartean horietako bat balu bezala–, zart, zanp, kask, motz, irrik, huts, koxk, plust, parrast, urrup...!

Jendearen ahotsen zurrunbiloan galdu zuen Nikok atsoarena, eta bistatik ere, funtzionarioek aurrera zeramaten eta.

Gero jende fuerte piloa ikusi zuen, bakeroz eta zapatilaz, eta han fiskalaren aldia zen nonbait:

– Irazokik hamalau bider pasatu du muga, juje jauna; pentsa liteke, pentsa liteke, berak dioen bezala, etxerako erosketak egiteko pasatu zuela muga; etxerako erosketak, juje jauna?; berrogei-ta-hamar metro kable, etxerako erosketak?; hamabi pila, etxerako erosketak?: nor nahi du engainatu Irazoki prozesatuak? Muga hamalau bider ez da kasualidadez pasatzen juje jauna...

Publikotik batzuk fiskalaren gainean salto egiteko disposizioan zeuden, baina inspektoreek erreprimiarazten zituzten.

Munta txikiagoko bi epaiketa zeuden gero, salak aski beterik, ijito familia bati oiloa ebatsi omen zutelako, eta Lauzierrekako bordako aitonari –hala esaten bait zioten–, prozesu horren zergatirik inork ez bazekien ere; besterik ere, gehiago ala gutxiagoko espektazioarekin.

Aurrerago, eta sala hau pankartaz beteta zegoela, anteojodun gizon ile xuria esaten ari zen:

– Oker zirezte; Jean Pierresek erran zuen, berak ez du ukatu, lehendakaria «alimalekoa» zela; bena horrekin, linguistikoki bederen...

Nikok entzun zuen mutil asko-jakin batek neska aurpegi xalo bati esplikatzen ziola:

– Hauxelar euskaltzaina dun hori...

Eta honek jarraitzen zuen:

– Baxenafarreraz «alimalekoa» izaiten ahal bait da... –baina geroz goitikoak Nikok galdu zituen.

Gero emakumeriak inbaditzen zituen bazterrak, eta ez arront baketsu: zinezko gudua gertatzen zen hor, inspektoreen gainetik manifestalariak prozesatuarenganaino –beste emakume bat– iristen ari zirelako, abortuari buruz edo zerbait oihukatzen zutela.

Niko sala haietako batean sartu zutenean, harritu zen handizki, aurreneko bankuetan behinik-behin jendeska bazegoelako, berari esperoan bezala.

Sala, izatez, ez zen handia, baina bestetan zeudenak nola joan-etortzeko bertatik pasatzen bait ziren, eta bestetatiko zurrumurruak nola entzuten bait ziren, eta irekia nola bait zen, ez zegoen non bukatzen zuen esaterik. Altuen, hiru giza-bele zegoen: bat, seko, bigarrena semiseko, eta bestea zegoen bakarrik mintzatzeko eta adi-

tzeko eran. Salakoak guztiz zeuden isilik, edo hobeto esateko egiten zituzten solasak –ahoak mogitzen bait zituzten nabarmenki– ez zituen Nikok bat ere-bat ere entzuten.

Berant gabe bele esnak ekin zion:

– Hasten gara...

Baziren salaren gainekoan zulo biribil batzuk, eta Niko fijatu zen haietan hegoak eraginda usoak sartzen zirela, eta beste batzuk ateratzen zirela. «Ze ongi bizi diren usoak», pentsatu zuen.

– Mintzo bedi akusatzailea! –agintzen zuen beleak, jueza bait zen.

Galoirik ez zuen funtzionarioa aldendu zitzaion Nikori, igo zen tribunara eta adierazi zuen:

– Ni, juez jauna, errondan nenbilela...

Nikok bistarekin uso baten hegala segitu zuen. Bueltak eta bueltak ematen zituen haien buru gainetik, eta Nikori hura Graxi zela iruditu zitzaion. «Neskato horretaz maitemindu ote ninteke?», pasatu ere egin zitzaion gogotik.

– Defentsak hitz egin beza! –agintzen zuen juezak, lerdea zeriola.

Gizonskila bat igo zen tribunara, begirada burokratikoa bota, eta hasi zen:

– Akusazio horiei puntualizapen zenbait egin beharrean...

Jendeak abokatuaren esanak pil-pil aprobatzen edo arbuiatzen zituen, tira-bira handirekin. Haien aurpegi desitxurosoetatik goratu zituen begiak Nikok, eta irudi bat zintzilik ikusi zuen pareta batetik. Juezak norbaiti non, nola, noiz, eta zergatik galdeak egiten zizkiola erdimentzun zuen, baina hobeki fijatu zen irudi hartan.

Plano bat zen, dudarik gabe. «Hotelaren planoa izanen ote da?», pentsatu zuen. Karrika-laberintoak bazituen, eta tarte berdeak ere bai, jardinak, eta plazak eta monumentoak eta lauki urdin bat, piszina ote ere bai. «Egongo banintz piszina horretan!», zizpiru egin zuen.

– Tribunalak legegabe hori kondenatzen zaitu...

– Niko!

Artzaia zen hitz egiten ziona.

– Bizi haiz edo? –galdetzen zion.

– Bizi edo... –erantzun zion Nikok, galduxea. Artzaia aurrean zuen, bilo hutsik, eta ur kristalinazko piszina baten ondoan ziren biak.

– Zer habil Niko? –hurbildu zitzaion Artzaia–: bitako bat seguru: neska bila ala neskagandik ihesian.

– Ez dago neskarik oraingoan –Nikok irribarre egin zion.

– Mmm! Ez zekiat nik jurnalista haizen edo zer haizen, hi...

Nikok despistaturik segitzen zuen:

– Ez! Sententzia esan behar zidaten eta...

– Sententzia? Neuk emango diat sententzia behar baduk! –eta Artzaia behatz potolotik kontatzen hasi zen:– honegatik, eta beste honegatik, eta hemengo beste honegatik, eta gainerako beste guzti hauengatik, Niko... mainua! –eta danba piszinara bota zuen.

«Hau sustoa!» izan zen Nikoren lehen pentsamendua; eta hurrena: «hemen bai ondo...»; ostean pentsatzeko: «arroparik gabe hobeki baina!»

XXII – Piszinan hau eta ura

– Aupa kanpora! –esan zion Artzaiak eskua luzatzen ziola–; nola okurritzen zaik, tenore honetan bainatu!

Artzaiaren laguntzaz erantzi zen Niko, arropak sagarrondo baten abarretan lehortzen uzteko.

– Ezpartina politak e! –esan zion Artzaiak.

– Bai –gogoratu zen Niko–: itzuliko dizkizut...

– Itzultzen badizkidak ematen diat muturrekoa...! –eta ematekoa egin zion Artzaiak.

– Orduan, ez dizkizut itzuliko –eta Niko Artzaiaren ospaldiaz oroitu zen eta:– zer, ez zintuzten atxilotu e?

– Haiek ez! Herioa gertu pasa zaidak ordea: nitxo batean egin diat gaua eta!

– Zergatik iheska? –abenturatu zen Niko.

– Iheska zergatik?! –harritu zen Artzaia–; atzetik ez al zetozkidan ba?!

– Bai, baina zeozergatik...

– Hori esaten diat neronek ere: zeozergatik izango zen –eta pentsatzen gelditu zen Artzaia.

– Ni berriz –runboa aldatu zuen Nikok– ekolojista birekin juntatu nintzen...

– Azpitarte eta!

– Nola dakizu...?

– Jakingo ez dut ba!

– Eta haiekin bazkaltzera joan nintzen eta...

– Katarena!

– Bai! –«honek segitu ninduen ala?», pentsatu zuen Nikok.

– Ez –asmatu zion Artzaiak–; txori batek –informatu zion.

Niko arropak baino arinago lehortzen ari zen. Atzetik hirulau neska pasatu zitzaion, eta Niko gogoratu zen bizkarrean granu tipi gorri batzuk bazituela. «Ba, bestela ederra nago»; pentsatu zuen, baikorki, eta eguzkiak jo zezan etzanik jarri zen. Baina Artzaiak ez zuen egoten utzi:

– Hi Niko: goazemak konozimenduren bat egitera –eta jeikiarazi zuen.

– Eguzkitan ondo ez...? –protestatu zuen Nikok.

– Erre egiten dik ordea –ohartarazi zion Artzaiak.

Hasi ziren ibiltari. Piszinan jende asko zegoen, zeintzu trajebainu edo bikiniz, zeintzu larru gorriz bixi-bixi. Haurrak hemen, mortsa izterrak hor, sabel aspertuak han. Artzaiak bata-bestea agurka.

– Hori Rodolfo duk –esplikatzen zion–; amoroso den aldetik, hire joerakoa, eta ona, emakumeen iritzian: beste hori anaia dik, pilotaria, eskoinarekin ezteusa baina: eta harekin Don Frantzisko, miriku zegoena, orain albientea; hori Marixabeli, neskazaharra, ez dik horrek bere mailako pretendienterik; Joxe, zangoxabala, hori zebilkiok orain baina keba!, apolitiko gaiztoa duk hori; Pantxo kojua ikusten duk?, bai silaruedasen, daramana, Pana, hori hiretzakoa!, neska mutikokari salbajea!, planen bat egina izango dik kojuarekin horrek!; hara, Texa eta Premin, urtean behin jeisten dituk horiek, baina piszinara? sekulan!

– Eta hori? –galdetu zion Nikok, haiengana zetorren gazte bizargutxi irakurlari batek txizt egin ziolako.

– Hori berria diat –erantzun zion Artzaiak.

Baina gazteak irakurtzen ari zen liburutik bista altxatu zuen eta:

– Aupa, Niko –esan zion.

«Honek ere ezagutu behar al nau?», esklamatu zuen Nikok bere barrurako.

– Gauza bakar bat esan nahi nian –segitu zuen gazteak–: epaiketarena, gehiegizko ez ote?: alde egin duken modua, alegia. Hormetan ez al haiz pasatu? Bai Niko, pasatu egin haiz; bon, neure ustea duk e! Bestela ondo hoa, segi ezak motel! –eta tas-tas soinean jorik. Nikok galdera mihi puntan joan egin zitzaien bista berriz liburuan.

Bat ezagutu eta hura presentatu ez!? –bota zion Artzaiak Nikori.

– Nik ez bait nuen ezagutzen... –esan zion Nikok.

– Ez huela? Mmmm! Zeozer bazegok hemen...

– Zer? –interesatu zen Niko.

– Hi egon hemendik –agindu zion Artzaiak–, horrek moskeatu naik eta inkesta zonbait egitera niak...

– Agur –esan zion Nikok, eta txapela bistatik galdu zitzaion; gero, apur bat marginatua senti-tuz, arropetarantz itzuli zen, haiek ez bazituen galduko behinik-hehin.

Arropetara gabe, Izaskun ikusi zuen, pieza bateko trajebainu barruan.

– Izaskun! –hots egin zion: eta Izaskun itzuli zitzaion, baina ezagutzen ez duenaren harridura-rekin–; hola, Izaskun –esan zion Nikok.

– Barkatu –erantzun zion Izaskunek–, uste dut konfunditzen zarela...

– Ez zara Izaskun, zu?

– Ni Izaskun naiz, baina zu ez zaitut ezagu-tzen inondik.

– Bai, Niko! Atzo jai batean nola izan ginen biok...

– Oker zaude nonbait.

– Oker? Ez, ez nago: ziur dakit.

– Intentzio onarekin, ez dizut ezetz esango, baina oker zaude.

– Bai emakume! Nik esan bait nizun... zuk esan bait zenidan...

– Nere azken hitza: ez; eta orain, barkatuko didazu, joan beharra dut –eta agurtzeko begiratzeke alde egin zion.

«Daitekeena da, ni oker egotea; bai, hala egonen naiz, dudarik gabe: behin irakurri nuen, testu inportante batean, seguru egon gaitezkeela munduan gu bezalaxeko beste norbait badagoela; Izaskunen doblea izanen zen hori, beharbada».

Horiek barruan, jarri zen Niko piszinaren ertzean, eta laster nahastu zitzaizkion ideia horiek eta beste batzuk eta zenbait sentimendu eta sentsazio. «On da batzutan ezerezean egotea, eguzkiak erabilia, bete-betan bihotza», pentsatu zuen abstraktoki.

Piszinaren pareko ertzetik, bi begik begiratzen zioten. Nola begiratzen zioten, Nikori gustatu zitzaion; dir-dir egiten zioten bi begi haiek, aupa esaten zioten eta egiten zioten irribarre. «Horra lagun bat», pentsatu zuen Nikok: «elkarrekin konprenitzeko modukoa». Neska bat zen, ile beltza motza orreztekea. Neskak, besoetan eutsia bait zegoen, bota zuen ezker besoa pitin bat atzera, eta Niko jeiki zitzaion poliki. «Buelta

emanen diot piszinari –gogoratu zitzaion galdea– ala zuzenean joango natzaio? Ba, ez da sasoia...» Eta ertzetatik abiatu zen.

Neska zegoen ertza hasten zen angulura iristeko zegoela, piszinazain batek geldiarazi zion manera onean eta:

– Sentitzen dut jauna –esan zion gizabidez–, hemendik ezin zara pasatu.

– Ezin? Hara noa eta –eta Nikok neska zegoenera seinalatu zion.

– Hala ere, ezin. Badakit –diskulpatu zen piszinazaina–, zu bezala kanpotik datorrenari gogortxoak irudi dakizkiokeela piszinaren arauak; baina, hala daude jarriak.

– Esan nahi duzu, horra joateko atzera buelta osoa eman beharko dudala?

– Bihotzetik, jauna, ez dut beste soluziorik ikusten... Nahi baduzu, lagunduko zaitut, nahiz eta, egia esateko, merezi duenik ez nik uste, galdu gabe segituz gero ertzak berak eramango bait zaitu.

Ezinbestean, gibelera egin zuen Nikok, eta, luzearen luzean burua jada bestetan zeukala, ez

usterik aurkitu zen noizpait neskaren alboan. Neska erraza zen, kuleroz jantzirik.

– Zer moduz? –galdetu zion, laztan ahotsez.

– Ongi –erantzun zuen Nikok–, eta zu?

– Ongi –bere lotsapurrean zerbait dibertigarria zeukan neskak–; nola duk izena?

– Niko –erantzun zuen Nikok, eta ez zion begirik alderatzen–, eta hik?

– Mila –eta isilik geratu zen.

– Eguzkia gustatzen, e? –galdetu zion Nikok, aldrebeski.

– Bai –eta, halako liluraz:– gonbidatzen nauk, Niko, sagar erreak jatera? –eta erantsi zuen, zurikorra:– eske ziaudek...!

– Bueno: goazen –egin zuen Nikok, eta abiatu ziren–. Zer nahi duk hik? –galde egin zion Milak. Deus ez, deus ez –erantzun Nikok.

– Txemari! –hots egin zion Milak enplegatuari–, badakik zer neretzat –eta Nikori:– honenbeste jendez apetitua piztutzen zaidak...!

– Batzuetan neri ere bai! –esklamatu zuen Nikok, hasperen batez.

– Zer iruditzen zaik –Mila interesante jarri zen– hor lizarrazpian dagoen pentze libre hori?

Xarmanta ala? Beha ezak: zozo bikote horri mesedez baxterrera balute gustoa, gero beste horri izurde tripontzi horri gisa berean beheitixeago faborez, gero belarra garbitzen diagu eta toaila zabaltzen, dena prestatzen diagu, eta lanera...!

Niko, alde batetik, inarrosi zuen Milaren proposamenak, toailan pasarte ederrak ezagut zitzaketelako elkarrik, baina bestetik, pentsatu zuen: «lastima ezin erabat bereizi jendearengandik, anitz apartatzen baditugu ere ikusi ahalko gaituzte, eta detaileetan nabarmenduko dute larrutarako paratzen ditugula kondizioak, eta ez dut uste nik... suabeago menturaz...»

Zalantza horietatik Milak atera zuen, sagar errearen erdia eskuan eta beste erdia ahoan, eskutik helduta esaten ziola:

– Etorri, Niko! Begira ze jolasa egiten duten hor!

Gazte piloa ari zen bai, ehun-zango baten antolatzen, nork atzean zuenaren izterretan eseririk. Mila hartan sartu zen ilusioz, eta Niko ere, sorpresaz.

Haseran Nikori iruditu zitzaion ongi zihoazela, klinki-klanka aurrera bait ziren: baina gero hasi

bide ziren aitzin-aitzinekoak erortzen, eta gibel-gibelean ere zerbait gertatzen bide zen, eta ondotik denak hankaz gora eta sekulako desmadrean.

Niko, zabal-zabal eginda, zenbaiten gainean baina heste hainbesteren azpian, ez zen berezi-ki aklaratzen.

XXIII – Hola dago mundua

Niko lurrean zen, Milaren bilatzen, noiz traje beteko tipoak heldu bait zion ukondotik eta:

– Zuzendaritzaren izenean, haren delegatua bait naiz –esan zion–, jantzi zaitezen, ja.

– Baina –objetatu zuen Nikok– bilutsik beste asko dabil...

– Hori ez dakit nik –ihardetsi zion delegatuak–; zuzendaritzaren izenean zuri natorkizu jantzi zaitezen esatera.

– Zergatik, ordea, ni bakarrik? –resistitu zen Niko.

– Jakina, uko egitea daukazu; kasu horretan zuzendaritzak pentsatuko luke zure jarkieraren aurrean nola prozeditu...

«Onenean –pentsatu zuen Nikok– zuzendaritzak ulertuko eta onartuko lituzke nere arrazoiak; hala ere, honegatik sar gintezke nekez irabaz nezakeen prozesu batean».

Beraz, arropak jaso eta dutxetara sartu zen. Dutxatik xahu zilarra atera zen. Pare bat igeltsuzko eskulturaz hornitutako balkoi batean zen.

Balkoian, berriz, Xelmo ezagutu zuen. Tripa gainetik estu zihoakion atorra, eta polemika latza zuen beste birekin. Niko ikusi zuenean jakinaren gainean jarri zuen:

– Biok, prantsesak badakik. Donibane Prantziakoa dela, hi! –eta gero, gogoratuz bezala Niko zela:– autobusean, ze oxtia?; bahintzen eta bat-batean: «non da Niko?»!

– Esan nizun, zita nuela...

– Zitak, buruhauste ederrak! Nik ere banian, biokin: etorri nauk eta demonio! hobe ez banintz! –eta frantsesengana itzuliz:– Donibane ez da, ba, Prantziakoa!

– Zuen batasuna –adierazi zion frantses batek konklusio gisa– utopia bat da.

– Ez dakit xuxen utopia hori zer gauza den; batasuna hori baldin bada, ni, utopiko!

– Eta eskema zaharrak dituzue –jarraitu zitzaion beste frantsesa–; hemeretzigarrenean bizi zarete.

– Zuen hogeigarrenera iritsi nahi ez!

– Ez bait zarete bilakatu herri bat bezala...

– Zuei graziak!

– Mentalki nahi dizut esan...

– Artzaia banintz –esan zion Xelmok Nikori, frantses kaskorratza seinalatuz– ederra erantzunen nioken; ni diplomatiko nauk Niko, baina badiat hauei astakeria bat esateko gogoa...!

Orduan jangelatik bi emazteki atera ziren balkoira; bata zaharra zen, bestea ez. Biak ziren negarretan.

– Hori –esan zion Xelmok Nikori– aita Errotaren alarguntsua duk. Domezaineko aditz laguntzailea sistematizatu zian aita Errotak. Bestea, haren koinata.

Frantses batek argazki makina atera zuen eta bi emaztekiei flax!-flax! hasi zitzaien. Nikok eszena hura «tipiko» zela esaten zuela entzun zion. Xelmo, bitartean, joan zitzaien Nikok segiturik eta hark musu bana ematen bait zien, Nikok atzetik; koinataren ahoak –«musu lotsagabea ez ote?» galdetu zion Nikok bere buruari– oso sabore fuertea zeukan, atraktibo.

Orain beste batzuk ari ziren irteten, eta egituren aldaketa sinple batzuengatik balkoiak handiagoa egiten zuen. Nikok entzun zuen batek (azentuagatik espainola) esaten zuela:

– Jende basatia da hemen: atzo beste bat hil zuten!

Espainol horren esanaz guatemaldar masailetako indio txiki beltzaren bat despotratzen zen.

Horiek aldamenean beste bikote bat zuten: bat lurrean, kapela mexikanoarekin, besteari baso bat emanik, eta besteak eskuaz piku eginik:

– Baina kossa da hau?

– Suzko limonada konpai; edan ezazu probatu –esaten zion mexikanoak; honek kajoitxo batean, haurtxo bat zeukan, lotan iduriz, eta bere hizkuntzaz kantu egiten zion goxo:– Todo viene en esta vida...

Txinoak eta beltzak ere bazeuden balkoian peligroso, eta arabeak, eta hauetako bati begirunezko errezeloz begiratzen zion rubio jendeak: «libiarra omen da» zen zurrumurrua.

Bazegoen heste mundutar anitz, gauzak saltzen eta erosten; puesto batean kartel batek honela zioen: «barrabilak merke». Niko gosetua zegoen, eta kuxkuxeatu zuen batean eta bestean, azkenik txori prijitu baten alde erabakitzeko, arto taloz zuku-zukutsu saltzen bait zituzten.

«Artzaiak edo beste lagun batek sarturen zizkidan sos hauek sakelean, bat ere ez nuen eta», pentsatu zuen ordaintzekoa zuela konprobatzean.

Xori hezurñoez entreteniturik, pentsatu zuen: «Gauzak, hola ikusita, gaizki ere ez doazkit; baina Agirre nere bila badabil –ez bait du ematen, beste alde. Txok esan zuenagatik–, nitaz susmoak izango ditu dagoenekoz; egiaz, neuk ere baditut arrazoiak susmatzeko; ez ote dabilzkit zerbait izkutatu nahiean?; klaro. Mujikaren bahiketa, baina Agirre?; zernahi delarik ere, gaur eta bihar ditut gauza hauen argitzeko edo, bederen, erreportajea bideraturen didan norbaitekin kontaktuan jartzeko».

Honela, erdi trankil, bukatu zuen xoria jaten, musuaren koipea taloaz garbitu zuen eta –eguzkiak samurtutako neska baten bulartegia ikusten zuelarik hankarakin gona eta behera mogimendu tipi bat egiten zuela ondo-ondo sentitzen zela– berau ere klaskatu zuen; gero atera zen azokatik, horretan baten batek txermen eder bat erregalatzen ziola.

XXIV – Fama txarreko ostatua ez, bestea

«Orain bai, telefonikara joan beharko nukeela; ez dut sobera denborarik, eta honezkero Agirreren enkargu izanen dut; haruntz eramanen al nau, korridore honek?», pentsatu zuen irtenbide batean, eta galdetzeko inor ez bait zegoen, arriskua hartu, eta harixe ekin zion.

Korridorearen buruko saloiak Niko apaldu zuen, halako urrezko tertziopeloz jantzirik zegoen. Mahai biribil bat zegoen erdian, eta zazpizortzi gizasemek elkarri pasatzen zioten hitza:

– Kontura dezagun gure sailaren menpe dagoen egitura-batzordearen bitartez hobari-bidezko laguntzazko jesapena eskuratu behar dezakegula.

– Ez ahaztu zaitez ogasun iraunkorretarako diru-ezarketa dagoela.

– Txostenak ez du argibide hoiek araupetzen.

– Berregituraketa agiripaperak azterlan zuzendaritzan dago.

– Merkataritza mailan hitz eginik epe luzerako plan partzial orokorrak da.

Gizonezko horiekin emakumezko bat ere bazegoen, brusa finez, takigrafia erritmoan hartuz besteen erranak. «Horrek jakinen du zerbait» desiratu zuen Nikok, eta hurbildu zitzaion eta galdetu:

– Aupa; aizu, telefonikara joateko badakizu...?

– Bai: atera hortik, zuzen-zuzenik segi eta tranbien estazioan hago...

– A, pues eskerrik anitz e?

– Ez horregatik...

Nikok, txistu-mistuka jarraikitu zuen norabide hartan, eta bai, geltokira zen ailegatu. «Emakume horrek –pentsatu zuen– egia esan dit; dena dela, nik telefonikagatik galdetu diot egia esan, eta honen berririk ez dit bat ere eman. Noski, hark bidean jarriko ninduen, orain berriz galdetu besterik ez daukat».

Taberna batera jo zuen; «Virginia» zuen izena taberna horrek, eta kanpoan plastikozko mahaitxoak eta aulkitxoak zituen. Haietan eseritzera zihoala:

– E! –hots egin zioten atzetik; gazte batzuk zeuden, eta batek:– ez eseri hor: fama txarreko ostatua duk hori.

– Fama txarrekoa? –galdetu zuen Nikok.

– Bai; kanpokoa haiz eta esan egiten diagu –esplikatu zion gazteak.

«On da jakitea –pentsatu zuen Nikok–, bestela eseritzen naiz eta jakin ezazu gero...» Orduan parean zegoen beste ostatu batean sartu zen.

– Gaur gora! –igo zedin agindu zion norbaitek; jende askok betetzen zuen ostatua; Nikok goi partean mahai libre bat aurkitu zuen.

– Zer behar duzu? –gainera etorri zitzaion etxekoandrea, zeinaren aurpegiak koadro bat bait zirudien.

– Txokolate-bainilazko izozkia mesedez.

– Heldu da! –abisatu zion etxekoandreak, eta zelan jakiteke han zeukan, eduki, jelatua.

Ideia argitsua bururatu zitzaion momentu horretan. «Horrenbestera ausartuko al naiz?», dudatu zuen; nonbait bai, zeren galde egin bait zuen:

– Agirre jauna ez duzu zuk, kasualidade batera, ezaguturen...?

– Agirre-Agirre? Bai; joana da arestian.

– Hemendik joana? –alegratu zen Niko–; norat, ordea?

– Hara –eta behatz batez trenbidearen direkzio bat apuntatu zuen etxekoandreak.

«Eta nora da, hara?», pentsatu zuen Nikok; baina ez zen gehiago galdetzera ausartu, eta eskerrak eman zizkion etxekoandreari. «Gero galde eginen dut, hara nora den», erantsi zuen bere golkorako.

– Or eukita zertako librauko ue uai? –entzun zuen Nikok aldameneko mahaian zen batek mahaikide zuenari galdetzen ziola.

– Reskatia paatuko ziken onezkeoz! –erantzun zion besteak.

– Aen familik, paatu? Eztituk ezagutzen!

– Paatu ezpaue paatuko itek, ikusiko!

– Paatu? Xur ek, paatu? Lenau il!

– Etzekit; ni banintz...

– Ipai! Neuk e bai! Orrek e bai! Ek ez!

«Mujikaren bahiketaz arituko dira seguru aski», pentsatu zuen Nikok.

– Lemixi kusi in biar gauza asko!

– Ze gauza asko kusi in biar?

– Ii zeñek esan dik sosak naiizkiotela?

– Ez! Begien koloria ikustearren emango ziteken!

– Igual zea espeziala izangouk!

– Leikena baño eztit uste! Etziok señaleik eta!

«Batek daki!», pentsatu zuen Nikok, eta jeiki zen, eta jelatuaren ordainak utzi zituen.

Ostatuan (tabakoa, gisatuak eta alkoholaren lurrinak) ke handia zegoen. Nikoren oinetara txanpon bat erori zen; begiratu zuen, eta emakume batek bota ziola ikusi zuen, baina ez zion Nikok garrantzirik eman eta mahai artean segitu zuen. Laster, berriz, barratik bat eta eskailera batetik bestea, bi txanpon berri erori zitzaizkion gertuan. Beste bi emakume ziren, eta beragandik zeozer nahi zutela argi iruditu zitzaion, fijofijo begiratzen bait zioten, eta aho pintatu gorriz «jin hunat prezioso» adierazten bait zioten. «Segur, txanponak hartuko banizkie onartzen ditudala esan nahiko luke –pentsatu zuen–; hobe ez, tigreme horiek deslumatuko nindukete eta».

Hartan, barra aurreko eszenarioan beste emakume bat hasia zen kantatzen; mahaietatik txalotzen zuten eta batek esan zuen:

– Begira, Natxa jalgi dun.

Jendeak txera onez begiratzen zion eta gehientsuek isilik entzuten zituzten haren tango zaharrak. Niko harritu zutenak, Natxa kantariaren lagungarri dantzari zeuden hiru neska zango luze: Fela, Kolette eta Pilartxo. Niko poztu zen haien ikusteaz, eta numeroa amaitu arte itxoitea erabaki zuen, eta hartarako edozein aulkitan jarri zen.

Non zegoen jarria hankatik gora etorri zitzaion kili-mili batek begierazi zion; mahai hartara agure bat zegoen, eta nexka haragi moltxo bat. Agurea Natxarekin zegoen enroilatua bete-betean; nexka –bestearen hiloba, zuen pentsatu Nikok–, begira, ezjakin nora, baina Nikoren hanka bide zeukan denborapasa, eta hark egiten zion laztan bere puntozko galtzerdiz.

Minutu erdi eskasera laztan haiekin aski zela kontsideratuko zuen, ze pixkabat inkorporatu bait zen eta:

– Etorri –esan zion Nikori ezpainak epel.

– Baina... –eta Nikok agureari buruz egin zuen seinale.

– Ezaguna duzu? –nexkak, lauki.

Nikok ez zuen jakin zer esan, eta gainetik Fela eta Kolette eta Pilartxo ahaztu zitzaizkion, eta nexka bizkotxo laztanberari jarraitu zitzaion ilunpe laketgarri batera, non nexkak musua eman eta emanarazi bait zion. «Lastima –pentsatu zuen Nikok– oraintxe izotza hartu dudala, sabore fuerteegia, eta hain hotza, ezin musu honetaz berdin disfrutatu, nere ahoa harenaren tenperaturan egongo balitz goxoago izango bait litzateke».

Hala ere ahoa gustatzen zitzaion eta estutu zitzaion begiak itxirik.

Gero Nikok ez zekien gozamen horretatik Txorekin karrika batean izatera nola pasatu zen. Egia, horixe:

– Niko!

– Txo! –elkarri ojukatu ziotela, eta hantxe zirela biak, karrika batean.

XXV – Kontuz zuloarekin

– Hemen –esaten zion Txok paseoan zihoazela– bidea bi abarretan bereizten da; ezkerreko horrek zentrora darama, eskoineko honek auzora; nik ez dakit zentrorakoan zer gertatzen den, ezin bait daiteke puntu batetik aurrera pasa: lehengoan abiatu nintzen ez dakit zertara, tipi-tapa normal burua neure gauzetan neukala, hasi hor eta geroz eta estuagotzen zen bidea, ulertzen?, estuago eta estuago eta akaberan koba bat, ilun gosetia koba, eta itzuli behar izan nuen; bestetan izandu naiz bai zentroan, esan nahi dizut ez dela beste munduko gauza, eta hala ere, bai hala ere izandu naizenetan beti somatu izan dut zerbait estraino, atzerago joan barik azkenekoan, kale ezagunak nituen ibili nintzenak, betidanikoak, ba banenbilen eta haiek ere nerekin, kaleak, ez bait nuen xentimetro bat ere aurrera egiten, eta ongi nenbilen, euria aritu izan bait zuen lehentxeago eta orduko eguzkiarekin ederra zen eguna; bakarrik, hori; estraino. Ikusten? Hemen hasten da auzoa, kontuz zuloarekin,

auzoa ez da marabila arkitektoniko bat, ikusiko duzu, hau Uralde da, oso jende berezkoa bizi da hemen, ikusi Rafa hor, txirrindulari poeta siniskaitza: taberna honetara biltzen dira hori bere lagunekin; hori auzoko parkea da, porkeri bat, orain auzoek hartu dute, hor dituzu lanean aitzurra duten horiek, «udaletxeak ez du deus egiten? guk egingo!» esan dute, lau erreminta zatar baten bati lapurtu eta su ta fuego!, Txantxi ez dakit horretan zertarako sartzen den, bihar ai ene giltzurdinak! hasiko zaigu, ez badigu bazkaria prestatzen!, nahi baduzu bazkarira etorri, soziedadean izango da, majo izaten da, ez dakit bihar zer dugun jateko baina ona izango da.

– Zein da Txantxi, gizen hori? –moztu zion Nikok horretan.

– Bai, kamiseta berdeduna –erantzun zion Txok.

– Eta aldameneko neska? –galdetu zuen Nikok, pentsatzen zuela «ez al da bada atzo etxe aberats hartan gizonki bat bahitu antzera zuena, neska hori?»

– Hori Ester da, pelukeroa, Graxiri moztutzen dio horrek –erantzun zion Txok–; zuri beti nesken

atzetik begia e?, neri ere bai ez pentsa, badago tipa bat. Muskerra esaten diote, txoratuta naukana, da... ez dakit nola esan!; haren anaia hemen dago enplegatu, hemen hasten bait da San Roke; komertzioak dena komertzioak, txikiteo lekua ere bada; Anselmo, horretan ez sartu, banderila goxoak dituzte, baina ez da jende ona; txarra ere ez; pikeak; ogia hemen erosten dugu, goian ere badugu baina ez hau bezain kras-krastekoa, eta haragia beste honetan, hogei-ta-bi harategi auzoan, hauei Irifrankatik ekartzen diete, beti beterik; hor heldu da Zapela, mundua jatera beti ematen du; kontuz horrekin, hemen ez da hiruhilabetekorik pasatzen norbait atropeilatzen ez dutela; kale horretan bereizten dira bideak; hor dago begia, hortik gora Aritzagaina, eta hemendik Txino eta Zaraitzoko; ni Zaraitzokon bizi naiz, lehen sekulako borrokak Txinotarrekin; hura, ikusten?, hura Txinokoa, gurasoak Berkinakoak baina Txinon sortua bera, basamutil harri puxka galanta. Artabururekin elkartzen delarik peligro publiko!, Artaburu horrek, hor bada kale ziztrina, horretan dauka tailerra, harena ez da, nagusia du, mozkorra nagusia. Trebeskan, hor

pasatzen ditu gauak, Joxemiel izena du, tailerra gainbehera doala eta beti lelo berarekin, sozio da honetakoa, Hamaikak-bat'erdi elkartea, lehengo asteko jaiak hauek antolatu zituzten, tirabirak izan zituzten, batzuek txokolate jana egin behar zela umeentzat, besteek jubilatuentzat egin behar zela aperitibo edana; presupuesto murritza eta; ohoin zikina, garaje horretakoa!; leiho honetan bizi da Pitxu, ez duzu ezagutzen?; etxe horretan Artaburu, esan dizut ba; bloke hartan, ni neroni, nahi baduzu etorri; Graxi etxean izango da.

Baina Nikori orduan figura ezaguna zetorrela iruditu zitzaion.

– Egon... –esan zion Txori.

– A! –esklamatu zuen honek– Palante ezagutzen duzu? Hori ez da auzotarra, zeozertarako etorria bien seguru. Enpin. Niko, gero arte, gutxi gastau.

– Bai, Txo, eta eskerrak esplikazino guzti horiengatik –erantzun zion Nikok, eta Palanteri atera zitzaion:– Palante, ihesketa laguna!

– Honbre Niko, nola hi hemen! –poztu zen Palante, eta lagun zekarrena presentatuz:– hemen duk Tirasoka, belerokoa ez haiz oroitzen?

Tirasokak bere begi bakarrez agurtu zuen Niko, eta honek ere bai Tirasoka.

– Ez haute harrapatu motel! Hi ere ez haiz mutiko galtzekoa! –zoriondu zuen Palantek Niko.

– Harrapatu? –erantzun zuen Nikok–; atxilotu naute, bada, beste birritan: baina birritan hanka. Eta zuek?

– Gure beleroa enbatak jo ziken, eta itotzeko nengoela txalupa bat pasatu zuken, hari heldu nioken, eta herrira eraman nindiken; herrian izeba negarretan zegoken, etxetik botatzen bait zuten; gero neskari hori kontatu nioken eta hark irri egiten zidaken: «baina zuk –esan nioken– ez duzu nere izeba ezagutzen...» «Ez dudala!» erantzun zidaken; alde egin nioken orduan eta atzo bi autobus gurpilak gora eta bost bonba jarri nizkiken.

– Ie! Honera –erabaki zuen Tirasokak, taberna baten atarian.

– Pues honera –konfirmatu zuen Palantek–; hala ere –Nikori– forma onean giaudek. Tirasoka eta biok.

– Txarrean egongo al gaituk? –sartu zen Tirasoka–; hik horiek egin bizkitartean, ni onddo biltzen izan nauk eta! Askari sano atopekoa! Hik, zer?

– Nik zerbeza.

– Nik horietako bat.

– Nik ez dakit... bueno, beste bat –eta tabernariak serbitzen zien.

– Eta, alde honetan, zer ari gara? –galdetu zien Nikok.

– Heuk jakingo duk heurea! –erantzun zion Palantek–; gu manifestaziora etorri gaituk.

– Ez nekien bazegoenik...

– Ba jakitea baheukan! Egon bazegok eta!

Tabernan jai programa baten azpian gizon bat zegoen txaketa urraturik, kanpora begira etsipenez eta koñak botilatik edaten zuela. «Siniestro ez al du begiratzen?», esan zuen Nikok berekiko, eta hotzikarak desepeltzen zuela somatu zuen.

XXVI – Paktoak eta ostiak

– Dena hasi huen –Tirasoka mintzo zen, begia txirrimirri– plazan, piper-potearekin...

– Aditu al duk? –Nikori Palantek Tirasokari hitza kenduta– plazan, piperpotea! Majaderokeria halakoa!

– Orduan, batzuek, kontra –jarraitu zuen Tirasokak.

– Guk! –puntualizatu zuen Palantek.

– Ostiak hasi eta hemen gaituk –bukatu zuen Tirasokak.

– Ikusi!: hasi dituk prestatzen; zenbat da jefe?; goazemak Soka!; Niko, hemendik ibiliko haiz? egongo gaituk!

– Bihar naiz joateko... –esan zuen Nikok.

– Bale, etzi kontatuko didak, ariyo! –erantzun zion Palantek, tabernatik irteten zela.

«Etzi?» bururatu zitzaion Nikori galdera, zerbezatik tragu eginik kaleko maniobrak ikusten zituela; pasatu zen neska bat eta txarki mekanografiatutako orriska bat utzi zion Nikori. Nikok ozta-ozta irakurri zuen: «Altzondo auzoan, laue-

tan hitzaldia eta pelikula emanaldia, seietan eskualde propaganda, ondotik sospetxosoen porrualdia, zazpi t'erdiak inguruan asanblada torturatu bat egongo delarik, auzoko merienda eta tokian tokiko ekintzak, bederatzitan oto karabana, arkupetan amaitu eta hasi manifestapena».

Kanpoan baila batzuk eta zenbait kotxe ari ziren zeharka jartzen, eta Tirasokak goiti joateko, jendeari goiti joateko, han goian bide bat libre zegoela eta.

– Ni –altxatzen zen begirada galduzko gizon siniestroa– estrategiarekin konforme; baina metodoak?; hauek barrikadak nola egiten diren puta ideiarik ei dute; tanketak ekarri eta brrraust!, linpio!; hor Fermintxorenean kaskote eta burni ederrak izaki...! puta ideiarik ez! baaa! –eta nazka txualdia botata ateratzen zen tabernatik.

– Baina –esan zion Nikok tabernariari, barrikadengatik– ez badira ajenteak etorri...

– Ez: ajenteak beranduxeago etorri ohi dira –eta tabernariak erlojua begiratzen zuen–: laster hala ere, ixteko garaia izango dut...

«Arriskua al dago ba?» galdetuko zuen Nikok, baina gizonaren jarreragatik begi-bistakoa ematen zuen baietz eta, haren asmoa entendituz, bukatu zuen edana, agurtu zuen tabernaria eta kaleratu zen.

Orduan gazte batzuk gaineratu zitzaizkion eta batek:

– Ea, hi ere, goazen –esan zion, eta bultzatu bait zuten. Niko kalean behera aurkitu zen haiekin multzoan. Obra batera iritsi zen taldea eta kate eginik demolizio puxkak hasi ziren handik ateraka. Niko ere, katean zen: non bere aldamenekoaren txaketa poltsikoan apoharmatu bat ikusi zuen, eta:

– Zertarako daramazu dortuka hori? –galdetu zion lanari utzi gabe.

Aurpegi atsegina zuen gazteak eta erantzun zion:

– Beti eramaten dut borroketan; atsedenetan, ateratzen dut eta elkarri begiratzen diogu.

Baina beste batek heldu zion Nikori lepotik, honela esateko:

– Aizu, utzi hori: hor karreteran badago trafiko seinale bat eta hura ekar ezazu mesedez.

Nikok, uztearenean bederen, gustora kasu egin zion. «Ahal badut ez dut trafiko seinalerik ekarriko», pentsatu zuen, eta izkinbuelta batean zer edo hura erabakitzeko gelditu zen pixkabatean.

– Atxilotu bait zuten, hala jainkia! –bota zion han zen zabartxo batek–, eta su-hatzez hesteak ireki zizkioten!, kartzelara faki gero, gose ta ilun dituztela!, eta semeari seme zelakotz bala batez zauri!, kontrolak eta atentatuak eta kargak eta ehun eta bat deabrukeria! Loreak nahi dituztela? Hilerrian paratuko!

Niko, su-garrak urduriturik, alderatu zitzaion. «Honi gogorreko zerbait gertatuko zitzaion, mintza molde horrekin...», eta horrela zahartxoaz ari zela, mutikoska batek geldiarazi zuen:

– Surik bai? –zigarroa ahoan zuela galdetu zion.

Ez, ez dut... –diskulpatu zen Niko; baina binbi-banba! agertu ziren ajenteak orduantxe, eta amen batean kalea haiena zen, eta kale guztian Niko zen bestelako bakarra. Bere burua horrela ikusi zuenean, ajenteei nondik jotzen zien ere, zeozeri ekin beharko ziola iruditu zitzaion,

eta, motor bat bertan izanik, harexekin disimulaketan: «Ze aberia gaiztoa! –kontzentratu nahi izan zuen–: ez dakit nola gertatu ahal izan zaidan». Horraino bai, berehala ordea erremintarik ezaz erreparatu zen eta «tamala!» bota zuen bere barnekoz. Hala ere, lortu zuen antza ajenteen engainatzea. «Bestalde zertarako engainatu? –atzera pentsatu zuen–, haiek lagunduko nindukete seguru asko esango banie...» Ajente batek esanak erreakzionarazi zuen:

– Komaidios baten bat akabatuko dudala gaur!

Momentu hartan Nikok –hurbil zen eta- tornilo bilakatzea desiratu zuen. Motorraren radiotartean ajente horrekin mintzatzen zena ezagutu zuen; Kaskazuri zen, ferreteriakoa! «Zer egiten du horrek hor?», pentsatu zuen Nikok; eta haruntzago beste bat: gela barritu zion jenerala. Horren aurrera atari batetik gizon bat atera zen orain, bertsolari itxuroso:

Etorri gara etorri gara
etorri gara etorri...

– Egik hemendik, e?, arin gero! –agindu zion ajente batek.

Baina bertsolaria ez zen aise lajatzekoa:

Etorri gara etorri gara
etorri gara etorri...

Orduan beste bi ajentek hartu zuten hura eta konejeran sartu zuten. Horren kantura beste lagun talde batzuk kaleratu ziren, eta Nikok abagunea profitatu zuen motorra utzi eta horiekin batsu egiteko.

Kale estu batean sartu zen; han jende gehiago zegoen. Gazte batek kotxeatze batean komentzitu nahi zion heste bati:

– Iturburu hori txibatoa duk esaten diat!

Jendea berriro usteak hartzen hasi, eta ajenteek ikaragarrizko deskarga egin zuten; «orain zer dela-ta?» inori galdetzen ez zen ausartu Niko.

– Balak! –esan zuen norbaitek, eta kalea huts-hutsik berriro. Niko ate baten kontra erori zen, non emakume bat bait zegoen, lasai-lasai bajutik esaten ziola:

– Hoa orain, gazte, hoa orain eta horko horri hots egiok, bala bakarra dik eta; kontatu dizkiat eta bala bakarra geratzen zaiok horri; hoa orain, gazte.

«Halabaina, seguruenez, bala horrekin joko lidake», pentsatu zuen Nikok, eta hots egin beharrean, sartu zen atzeko atarian.

Atarian, berriz, ajente bat zeukan:

– Klandestinoki emititzen, e? –eta porraz kaskezurrekoa eman nahi izan zion, baina Nikok, arin, ostikada jo zion hankatartean hor nonbait eta ajentea lurrean zen ondorioz. «Agian ez nion eman behar», pentsatu zuen Nikok lasterka zihoakiola; «bai, seguru aski ez nion eman behar», eta arrenkura tiki horrekin jarraitu zen lasterka. Atzera begiratu zuen eta kornetaren erritmoan han zetorkion atzetik tarrapata batean zaldi saldoa. «Amerikanuak!», deduzitu zuen Nikok, eta bizkorrago ekin zion, eta albotik indio bat pasatzen bait zitzaion, iheska bera ere, haren zaldi gainera salto egin zuen, eta amerikanoengandik urrundu ziren arrapaladan.

Patio handi batera ziren ailegatu; bertan emakume batzuk kolada egiten zeuden, eta

batek «hemen seguru zaudete» esan bait zien eta beste lagun asko ere bai bait zegoen, utzi zuen indioa eta arma onak zerabilzkiten kubatar batzuengana joan zen Niko; baina haiek Julio Iglesiasez ari ziren mintzatzen, eta Nikok buelta eman zion patioari. Patioan ere barrikadak zeuden, eta obrak, eta nahasketa, eta bulla, eta beltza, eta suak eta errautsak.

Bazen gizon bat negar-odoletan, eskuan begi bat zuela, eta zioela:

– Begi honetaz oroituko dituk! Oroituko dituk nere begi honetaz!

Bost baziren beste leku batean, sute baten inguruan mondeju janarian.

– Txakur hori jartzen bazait berriz aurrean...! –esaten zuen batek terrible. Besteak ere uzkur zeuden eta amorruzko horzkadaz txikitzen zituzten ogi-mondejuak.

Haruntzagoko beste talde batean esku garbi batek esaten zuen:

– Lagunok: paktoa egin behar!

– Nola paktoa? –erantzun zion beste batek.

Nikok kanpoan tiro hotsak entzun zituen.

– Bai –esan zuen esku garbiak–, pakto egiteko garaia heldu da, eta ni horretara noa! –eta zutitzen zen, beste batzurekin.

Deklarapen horrek jendearen nahaste-borrastea eragin zuen, bere taldean eta bestetan, berria heldu hala:

– Pakto egin behar dela!

– Zeinekin pakto?

– Zertarako pakto?

– Guk pakto?

– Pakto egin behar dugula!

Barrikadetatik jeikitzen ziren zaurituak eta erdisanoak eta gehienak hurbiltzen ziren haiengana eta gutxi batzuk zeuden lekuetan gelditzen ziren.

Hutsarte batetik hasi ziren soldaduak eta ajenteak sartzen, eta harri batzuk erori zitzaizkien.

– Ez harririk! –agindu zuen esku garbiak–: gerra bukatu da!

Pozezko aupak eta bibak altxatu ziren, eta ajenteekin nahasi egin ziren, nahiz eta batzuek hura aprobetxatu ajenteren bati muturrekoa

emateko, eta ajenteak eta soldaduak ere ez egon bat ere eroso.

Esku garbiari harri batek burua jo zion, eta lurreratu zuen; orduan beretarrek hasi zituzten maniobrak, utzitako armak berreskuratuz, lagun izandakoengandik zetozen atake honetatik defendatzeko asmotan.

Txiki buru gorri batek hondakin pilo baten gainetik orrukatzen zuen:

– Gezurra! Dena da gezurra! –eta hankari eman zion, zenbait paktozalek atakatua.

Nikok Palante eta Tirasoka ere ikusi zituen, hesi baten atzean petardo bat prestatzen zutela, eta badaezpadan inor ez zegoela iruditu zitzaion lekurantz korrika egin zuen.

Hasieran ajente bat hasi zitzaion pertsegitzen, baina kasualidadez bere antza handiko beste bat ari zen direkzio berean korritzen, gaineraz bera bezala ezpartinduna, eta ajentea beste horren atzetik galdu zion susmoa Nikori.

Gero gibelean danba! petardoa, eta asko lasterrean iritsi zen Nikoganaino, aurreratzen zutela. «Nerea ez da grabe, baina hauek ez naute pa-

satuko», pentsatu zuen, eta haserrean, salto luze-luze bat egin zuen.

XXVII – Ohe–lagunak

– Zer? Letxugak ikusten ez ala? –galdetzen zion emakume zahar batek argia pizturik zeukan etxeko leihotik.

– Bai, barkatu –irten zen Niko baratzatik eta beste inor ez bait zekusan:– ez dira ajenteak hona etorri?

– Ajenteak, hona? Etortzekoak al ziren ba?

– Ez, ez –eta inguruan begiratu zuen Nikok:– non naiz bada?

– Nere etxean oraintxe! –eta Nikok ez bait zekien zer egin:– hemendik ateratzeko, ortuaren bazter-bazterretik, kontuz han perejila bait da, gero barandila horretatik behera, zuloan sartu, bi buelta eman, eta asfaltoan haiz.

– Hotela han barrena egonen da noski... –abenturatu zen Niko.

– Hemen ere badituk gelak! –ihardetsi zion emakumeak.

Nikok beste xehetasunen bat emango ziolakoan bizpahirur segunduz gelditu zitzaion, baina emakumeak ez zuen beste zeresanik eta, bon-

agur-eskerrak-eta-barkatu, guzti horiek emanda, perejilarekin kontuz, joan zen handik.

Barandilatik behera, behean zulora, zulotik bi buelta eta kanpora. Laster supermerkatu batera ailegatu zen; berandu bait zen, ixten ari ziren hura, eta azken emakumeak irteten ziren.

Hiru ziren azken emakumeak, eta han zelaian zegoen ohe batean jarri ziren etzanik. «Autobusaren zai dudarik gabe», pentsatu zuen Nikok, eta haiekin jarri zen; solas bizia zerabilkiten hiru emakumeek. Gazteak ziren, haietako bat karga astunez haurdundua.

– Eusten badu, igandean hondartzara joango gaitun gu –esan zuen Nikok gero Pui deitzen zela jakingo zuenak.

– Hondartzara? Zer dion neska! –esan zuen Nikok Lauxi izena asmatu zionak.

– Inposible zegon –esan zuen Nikok Usu jarri zionak, hauxe bait zen haurduna.

– Ordu kontua dun...

– Ordua? Gauez joaten ez bahaiz...

– Goizean...!

– Goizean? Galdetu Lauxiri...

– Egon; oraindik atzokoa kontatu behar dizuet...!

– A bai, a bai.

– Zer da, zer da?

– Tipo bat enamoratu zaidala...!

– Ez esan!

– Ene!

– Nola-bait enamoratu...!

– Hiri?

– Neska! Ez dun harritzekoa... Ez!

– Segi, segi.

– Ni, erosketak egin nizkinan goizero bezala...

– Hona etorri hintzen?

– Ez, etxean; total ogia, eta esnea eta tomate batzuk...

– A bai! Tomatetarako ez din merezi hona!

– Iso; segi; eta...

– Etxera iristen naun; han zen Ebaristo. Felixarena, badakizue: egun on, egun on.

– Bai; eta...

– Ez, hura ez huen...

– Nor ba?

– Utzi kontatzen...!

– Buzoia ireki eta...

– Eskutitza!
– Ez...
– Loreak!
– Ez...
– Zer zen ba?
– Nota bat bakarrik: «Lauxi, behar zaitut ikusi», behar letra handitan eta telefono numeroa.
– Nor da?
– Zergatik ez din deitzen berak?
– Nola jakingo dinat?
– Esan, badakin nor den?
– Joxe firmatzen din.
– Joxe!
– Joxe!
– Nor izango dun?
– Obsesoren bat...
– Baina zer esaten dun?
– Deitu behar dion?
– Bai zera!
– Eta serioa badun...
– Horregatik! Serioa?
– Bai neska, aber okasioa galdu behar dunan.
– Hik ez ezan galdu hirea!

– Nik, honekin...!

– Eman neri telefonoa.

– Hots egiteko?

– Hori ere ez... Bai?

– Hi, kapaz.

– Kapaz? Ez dakin ongi!

– Eta hiri –galdetu zion Usuk kariñoz Nikori– zer iruditzen zaik?

– Neri? –sorpresak harrapatua sentitu zen Niko, eta pentsatu zuen: «Zail da esaten. Ez zait gainera behin ere gertatu. Ongi egonen da seguramente; zerbait arriskuzkoa ere izanen duelarik. Baina zer esanen dut? Kasu egiteko; Klaroke...» Baina, besteak zai eta, okerrik ez esatearren:– maitasuna gauza ederra da eta... –hasi zen erantzuten.

– Hi ere bahaiz ederra! –esan zion Puik, eta parre egin zion.

Nikok harritu zuen bere burua Puik hori esanda segitu ahal izan zuela:

– Neri neska batek egingo balit hori... ez dakit ba...

– Plantean utziko al huke?

– Ez dakit, hori ere... baina deitzea ere...

– Gu bezala hago motel!

– Zeozer okurrituko zain neska!

– Baina kontatu e!

– Esango dizuet bai –esan zuen Lauxik, eta hanka altxatu zuen, zeinarekin Nikok pijamaz zegoela ikusi bait zuen; Usuk aldiz gonak eta kolore askotako galtzerdiak zeramatzan, eta Puik brusa eta bakeroak. «Pollitak dira», pentsatu zuen Nikok. Ohe ondoko harri batean arrubio bat zegoen ilargitan. «Oso pollitak», erantsi zuen.

– Istorio horrekin ez dun lo lasairik egingo –esaten zion Puik Lauxiri.

– Hik bai ez hukeela... –Lauxik Puiri.

– Honi, loa galerazi? –Usuk, ezina adieraziz.

– Zerbaitek galeraziko zion berari ere.

– Bai, goseak.

– Ni ere enamoratzen naun e panpoxa...

– Bai, nerekin...!

– Zertarako besterik?

– Mmmm!

– Eeee!

– Uuuu!

Nikok berehala absurdotzat jo zuen kalkulo azkar batean larogeitamar urte ez zizkien bota,

hiruren adinak batuta. Lauxi oso polita iruditu zitzaion, pijamarekin buelta batera buelta bestera, esku beroa eta espresio intseguru samarra; Puiren hankak –hainbeste kolore– eta sabela ederrak ziren, eta haien atzetik begiak ikusten zizkion eta Nikok apartatu behar izan zuen bista, hain barnerat begiratu zion emakumeak. Usu otzan zegoen, eskuak sabelaren azpian bildurik, bake begiak eta ahoa erdizabalik. «Jo!», pentsatu zuen Nikok, «hirurak dira..!»

Orduan autobusa heldu zen, eta lauak igo ziren, eta ordaindu, eta eseri ziren. Nikok leihatilaren kontra ipini zuen burua. «Deskantsatu beharko dut, bada, inoiz», pentsatu zuen. Batek «gauerdia da» esan zuen aldamenean. «Gauerdia baldin bada, arratsalde osoa dut ibili beharrekoa», gogoratu zitzaion, eta gogorapen honek zergatik harritzen zuen ez zuen asmatu.

Ana sugandila ere gogoratu zitzaion. Neska polita, hura ere. «Horrekin zer ez nukeen egingo...», galdetu zion bere buruari: eta jarraitu zuen: «han utzi nuen eta, zertan egonen da?, ez nuen utzi behar; jakina behartu nindutela baina... berriz ikusten dudanean...!, laztandu

behar diot azala eta gertutik ikusi begiak eta ilea; ez al dut beste mutil batekin aurkituko... ni hemen eta sentsibilidadea beste bati emango balio...!

Gero beste neska baten irudia etorri zitzaion. Hark ez zituen oinak lurrean ezartzen, hegazka zetorkion. Ekialde urruneko apaingarriak zerabilzkien esku eta hanka muturretan. Nikok ezagutu zuen: Zeta zen, aurreko bi gauetan agerita-ko neska ile gorrizta, oraingoan oinutsik zetorren, eta soingainean belo bat besterik ez, gorputzaren beltzarana nabarmentzen zuena; dantza somagaitza egiten zuen gerri-bularrez, eta beloaren uhinek arrosa perfumea askatzen zuten. Niko ezagutzen ez zuen xarma inbaditu zuen. Proportzio haien armonia, haien kalidadea, haien perfekzioa... dena zen pitxia, dena liraina neska harengan.

Zetak eskua luzatu zion Nikori eta esan zion:

– Etorri Niko nerekin: etorri eta ezkonduko gara...

XXVIII – Elizan txapelak erantzi

– Ezkontzeko esan zizun? –galdetu zion Graxik, Niko eta biak plazako banku batean goiz ederrez jadanik zeudela–; eta zuk?

– Nik ez nekinan zer esan –erantzun zion Nikok–; neska hark txoro eginda bait ninduen.

– Ezkondu, Niko? –harritzen zen Graxi–; gazte zara gero!

Nikok irribarre egin zion.

– Eta Txo, non da? –galdetu zion.

– Anaia? Atarramendu onik ez anaiak! Da: saltsero!, eta ez da lasai gelditzen; ez du beste inork hark bezala ezagutuko hotela. Bueno, hori seguru. Ondo denekin bai, baina neretzat hasi zaizkiola jerenteak gaizki begiraka, nola baita izakera horretako...

– Eta hi gaur libre...? –interesatu zen Niko.

– Lana? Gaur nagusia ez dago, libre hartu du horrek; zer pentsatu du?, nik ere bai piperra, itxi museoa, ospa!

Orain bankura gizon xahar bat zetorkien, eta Niko beha zegokiola, eseri zitzaien.

– Barkatu –esan zion Nikok duda liparño bat gaindituta–; zu Max ez al zara?

– Max naiz bai –erantzun zion xaharrak–; ezagutzen al zaitut?

– Zuk ni, ez dakit, nik zu, bai; ez dakit bibliotekan ohartuko zinen...

– Zu bazina bakarra!; beti jendea da han, beti jendea...!

– Esterrekin eta...

– Ester, a, bai! Neska jatorra, hori!

– Egiten ari zirenaz esplikatu zenionaz ez nuen tutik ulertu...

– Nerezko gauzak izango ziren eta.

– Zer egiten duzu, ba? –galdetu zion Graxik, behatz bat ilearekin jolasean zuela.

– Ari bait naiz –urruma egin zuen– teoria batzuk desarroilatzen, herri honek ezin beharrago dituenak, aurrera ikusiko badu; zera da –segitu zuen, Niko eta Graxi adi zituela konprobatuz gero–, zenbait zientziaren konbinaketa, esan nahi dut lojika, biologia, sendakintza eta zera artzantza, besterik badago ere batipat horiek, eta

horiekin denekin, euskara mamia dutela, zera berri baten edifizio berri baten oinarriak jartzen hasi, segitzen al nauzu e?, hormetaz deskubritu egin behar da zera, horiek guzti horiek non elkar jotzen duten, elkar jotze puntu horietan beraietan egiten bait dira elkar lagungarri eta horietan sortzen da, zera, horixe, sormena...

Nikok ezpaikor begiratu zion Graxiri eta honek sineskaitz begiratzen ziola ikusi zuen. Maxi ideiaren bat galdu bide zitzaion eta gogoratu nahirik eskuak eragiten zituen:

– Bai... hori da... azkenez... hori... zera... nioena... badut nonbait... zeratu egin dut... ez... bai... gauza berria... ez ote...?

Gogoraketan bata begiraketan neskatila eta Niko, lagun batzuk pasatzen ziren orduan plazatik.

– Gehiago ere!

– Ez sexu berekoak!

– Femeninoekin zer egingo huke ba?

– Jo!

– Haiek bai, jo hiri!

– Adarra!

– Jipoia!

Nikok berehala ezagutu zituen; Ruiz, Lolo eta Patxiku ziren, lehen noizpaiteko farrandakideak.

– Niko! –ezagutu zuen Ruizek.

– Niko! –ezagutu Lolok.

– Niko! –Patxikuk ere.

– Zer habil motel!

– Bizi i haiz!

– Zertan galdu, lehengoan!

– Sekuestratu ala!

– Gu ez gaitzitek ba sekuestratu!

– Nahi bai baina!

– Hirugarren gaupasa eginik eta hemen gaituk!; hik uste al dun –Patxikuk Graxiri esaten zion–, hik uste al dun hortakoz dretxorik badagoela? –eta neskatilagatik Nikori:– laguntxo polita.

– Neri esan! –esan zion Graxik, eta Patxiku partzialki mozturik gelditu zen.

«Bai –ohartu zen orduan Niko–, egia da polita dela Graxi».

– Orain esperoan giaudek, ea ostatuak irekitzen dizkiguten edo...

– Hiru ordu zeramazkiagu lehorrean hiru!

– Orain eguerdikoz...

– Ba nik gaur –esaten zuen Lolok– ilundu arte ez diat zurrutik egingo!

– Orain esango didak kojuenean.

– Ez diat egingo, ez! Eguzkia goian bitartean ez diat zurrutik egingo!

– Eguzkia? –galdetzen zuen Ruizek, lurretik harri mokor bat hartzen zuela– baietz jo eguzkiari!

– Ezetz hik jo!

– Salda baietz!

–Tira!

Ruizek abiada hartu zuen eta bota zuen harria. Lurrera ez zen, eta Ruizek:

– Salda!

– Eguzkiak hor segitzen dik!

– Jo egin zioat ordea! Botzea heure kontu!

– Zer, goazen mezara? –galdetu zuen Lolok; Nikok ikusi zuen, hain zuzen ere, elizarako ari zela jendea.

– Bai joan egin beharko –erantzun zuen Ruizek txit burutsu.

«Kurioso da –kontsideratu zuen laburrean Nikok– jende honen sinismen bortitza; normala ere bada; baina normala izanagatik, kurioso ere

bada»; eta bereziki ikusgarria iruditu zitzaion gizonezkoek elizatarian txapelak eranzteko usarioa.

– Bueno –esaten zuen Patxikuk–, geroxeago ikusiko gara: Niko-ta...

– Graxi –esan zion neskatilak, pozikan.

Nikok ere agurtu zituen. Han-artean jarraitzen zen Max burura nahiean:

– Baliteke... ez, badaiteke... zeratuago emanez gero... horixe falta da... zera bakarrik da...

«Honek ez du bueltarik», izan zen Nikoren ustea: eta Graxiri galdetu zion:

– Hi ez hoa mezara, Graxi?

– Ni mezara? Horretan ari nintzen pentsatzen! –eta gero:– eta zu?

– Ez –esan zuen Nikok–, ni ere ez: ni ostatura joanen naun, zerbait edatera –eta jeiki zen–; bahator?

– Ez –erantzun zion Graxik–; ni hemen izango naiz, eguzkitan; tori –eta ezpainak eskaini zizkion.

Nikok bereak hurbildu zizkion eta ahoan musu tikia kokatu zion.

– Eta –esan zion neskatilari– Txo ikusten badun, hemendik bila nabilkiola esaion.

– Bai, esango diot; agur!

Ostatua plazaren bestaldean zegoen: elizondotik pasatzean, Nikok barnetik:

– Amen! –entzun ahal izan zuen.

Ostatuak sarrera estua zuen baina nahiko erosoa zen barnea. Mahai luze bakarrean gizon batto baizik ez zegoen, artilezko txalekoz, aurpegi moreaz, eta harekin jarri zen Niko. Jaun ostaliera amantalez etorri zitzaion eta zer behar zuen galderari:

– Refresko bat limoizkoa –erantzun zion Nikok, eta besteari:– ez duzu deus nahi, zuk?

– Ez-ez.

– Zuk egina duzu hamarretako?

– Bai-bai.

– Aspalditxo?

– Bai aspalditxo.

Ostalierak refreskoa ekarri zionean:

– Ez kasurik egin horri –abertitu zion–; frankotxo edan du eta ez du atenditzen.

Joan zelarik, gizona berezko doinuz hasi zen:

– Zertarako atzoko ero bolada?
galduak orain atorra eta txapela
igoko balitz Matti pixkorra,
adituko nuke: O, Joxe, ze gizon kazkarra!

Beste bi gizonezko sartu ziren. Bat besomotza zen, bestea zaintsu argala. Nikok ez zuen ulertu kantari zegoenari agur modura esan ziotena. Biek erretzen zuten eta inpernukeriak botatzen zituzten.

Ondoren beste gizon bat sartu zen, westerretako bakeroen ibileraz eta jurnal bat zekarrela; jarri zen hura ere, hortzartean txua bota metro batzuk haruntzago, atzera aulkia, mahai gainera botak, eta irakurtzeko imintzioak egin zituen. Nikok lehen orrialdean izenburu hau desleitu zuen: «Garrantziko funtzionarioa desager».

Gero koadrila handi bat sartu zen ostatuan:

– Gorria!

– Beltza!

– Txuria!

– Gehiago!

– Oxtia!

– Joder!

– Laputa!

– Dedios!

Nikok, joatekotan, dirua atera nahi izan zuen, baina tas-tas batean tas-tas bestean dirurik ez zuela konturatu zen. Orain barran zegoen ostalierari joan zitzaion, eta momentu batez aditzeko mesedez, eskatu zion.

– Zer behar da, bada? –esan zion ostalierak, moskeatua.

– Ez; begira: inoiz gertatu ez zaidana ez dakit nola orain... galdu bait dut dirua, edo kendu didate, nik ekarki dut eta...

– Dirurik gabe e! –ostaliera samur jartzen zitzaion.

– Nihaurk ez dut entenditzen...

– Ez al dizu lotsarik ematen? –galdetu zion ostalierak geroz eta beltzago–; zer uste duzu: hesteok, aberats, ezta?

– Ez noski, zin egiten dizut...

– Ni ere gaizki nago e!, oso gaizki nago ni ere! Oso gaizki! –ostalierak, Niko mukulago bera sutanago.

– Begira: hor kanpoan badut lagun bat eta...

– Zoazi hemendik, zoazi eta ez zaitzadala sekulan ikus! –bota zion ostalierak, iadanik erretzen zuela.

«Jo baino lehen eskapa», pentsatu zuen Nikok, aparte bastante lotsa ematen ziola jendea, zuen bezala, begira izateak; eta ateruntz jo zuen.

XXIX – Begi politak

Baina lagun mordoa sartzen zen orduan ostatuan, larru puztuak, tajugabeko aurpegiak, barre zuriak, eta Nikok aterako biderik ezin eginik zegoen.

– Zertarako atera behar zuen etxetik? –galdetzen zien besteei esku alanbre batek–; ezkonduta ez al dago ba?

– Hori esaten diat nik –laguntzen zion papardadun batek–, emakume etxean ondo ez al dago?, paga ditzala gero ateratzeko ondorioak!

– Badakik –esaten zion aurrekoari ahots gabeko batek–, putatxo dituk eta, ezin batekin konformatu!

– Gero bortxaz hartzen dituztela? –Galdetzen zuen txiki batek, ezpainak harro eta kanpora– Normal!

– Txarrean ez ziotek hankarik hautsi! –afeitatu gabeko lentedun batek–, hainbesterainoko kaltea ez duk!

– Aspaldian galdua neska bai.

– Merezia dik merezi.

– Neronek ere...

Nikok, gizon saldo hura gainean izan, eta kalea ezin erdietsi, oso txarki sentitu zen, goitigalez, eta komunera iritsi zen; ate hura berriz itxirik zegoen, eta Nikok ez zekien nora jo, non Anak atxilotu zutelarik eman zion giltzaz oroitu bait zen, agian hark irekiko ziola, eta atera zuen, arront gaizkiturik, sarrailtzuloan sartzeko.

Balio zuen, bai, eta Nikok barruan zegoela itxi zuen atea bere atzean, eta arnasa hartu zuen gozamenez.

Gela zabala zen, eta mutil bat zegoen bilutsik erdian, hanken gainean atraktibo jarrita. Niko hurbildu zitzaion; ederra zen mutila, ile motza eta irribarre trankila. Niko ondoan eseri zitzaionean, mutilak begiratu zion eta hauxe esan zion:

– Oso begi politak dituzu.

Nikok ere begiratu zion mutilari eta ez zion erantzun; Koletteren begietaz gogoratu zen: «Kolettek ere, politak ditu; nik bezalakoak al ditu?», pentsatu zuen. Ondo zegoen, eta laxo-laxotu zen gorputza atzera eginda, etzanik pausatzeko lurrean. Mutilak, eskua aurretik eraman

zuen Nikori bularra ukituz, eta irribarrea hurbildu zion gero, musuan musu emateko.

Gero berezi zitzaion, zutitu zen poliki eta kajoi baterako joan-etorria eginik, argazki pilotxo bat ekarri zion; berriz alboan jarrita, erakusten hasi zitzaion:

– Hemen txiki-txikia nintzen... hondartza honetara joaten ginen udaretan... hemen amatxirekin nago... hau arreba dut...

«Beti izan da ederra», pentsatu zuen Nikok. Orduan neska pauso arin bat sartu zen gelan, hura ere bilutsik, eta Niko eta beste mutilarekin jarri zen. Mutilak segitu zion Nikori argazkiak erakusten, bukatu arte, eta gero kajoi aldera itzuli zen.

Orduan Nikok begiratu zion neskari eta:

– Zuk uste duzu –galdetu zion– nik mutil bati musua ematen diodala, korritzea egoki dela?

– Bai, noski –erantzun zion neskak, goxoki, eta arrimatu zen Nikogana, eta ezpainak hurbildu zizkion.

– Ez –esan zion Nikok, berriro etzaten zela–, orain ez dut musurik nahi.

Neskak orduan bere ahora eraman zuen behatza eta gero behatz hura Nikori ezpainetan ezarri zion. Ondotik, zutik zegoen mutilari maitasunez begiratu zion neskak, eta mutilak gisa berean neskari.

«Elkar maite dute», pentsatu zuen Nikok, eta ondo sentitu zen.

XXX – Txuletaren gainean

Komunetik atera zenean, hobeto aurkitzen zen Niko, eta bere buruari galdetu zion: «zer ote da hau?» Sukalde handi bat iruditu zitzaion, dena mahaiz inguratua; «ez nuen sekula ikusi horrenbeste sukaldari», pentsatu zuen mahaietako denak, sukaldean nola ziren, sukaldariak zirelakoan. Beste alde batetik jatetxea zela iruditu zitzaion; «hala bada, ordea, zer ari dira horiek kaxuelekin hara eta hona?»

Txundidura hartan, ahotsa heldu zitzaion:

– E, Niko, hona!

Azpitarte zen, ekologista radikala, mahai batetik deitzen ziona. Bero zegoen, ezpain-xokoetatik isurkaria jario, eta gonbidatzen zuen:

– Etorri, Niko, aspaldiko, mekabuen! –eta Niko bertan zuela:– eseri, laguna eseri eta kontaidak!

– Baina –ez zen objezioa, Azpitartek eskaintzen zion lekuan eseritzen bait zen–, zer duzue hemen? –galdetu zion Nikok.

– Izan? Batek lana aurkitu duela, eta ospaketan.

– Giro handia duzue! –altu esan zuen Nikok, bulla hartan entzun zezan Azpitartek.

– Oraintxe hasi gaituk; hartu entsalada, hartu. Zer, bizitza hori?

– Kezkatzen hasia, egia esateko –aitortu zion Nikok–, orientazioa galtzen ari naizela beldur naiz eta.

– Urteak dituk, Niko, urteak...

– Ez noiz ez non...

– Noiz-ta-non jakin bageneki! Hartu tipula, baina!

Nikok gogozki hartu eta jan zuen, organismoak orruka eskatzen bait zion. Azpitarteren lagunek solas animatua eramaki zuten.

– Atxurraz ontzako bost enbor moztu zizkin ordubetez!

– Bai, moztuko zizkin!

– Jainkoak bazekik!

– Hark jakingo dik!

– Beste behin ehun kiloko harria lepaka zeramala hemezortzi buelta eman zion herriko plazari.

– Plaza txikia izaki! Gure Peilok egin zian hori baino gehiagokoa: eskuareaz hamar minututan bildu Zelaiandiko belarrak, bizkarreratu eta traktoreak eramango ez zuen zama harekin bertatik Larraitzurira joan huen han bost metro alturako zuhaitza egiteko.

Hitzak koipe eta ardoz nahasirik labantzen zitzaizkien. Nikok ere, betean zuen ahoa, haize bolada batek serbileta eraman zionean. Jeiki zen bizkor eta atzetik joan zitzaion. Begiak serbiletarentzat bakarrik izanda, katapun zopa eltze bat zeraman gizon bati jo zionerako beranduegi zen; gizona muturrez lurrera eta Niko, lurrera ez joatearren, mahai gainera etorri zen, halako fortunaz, ze mahaia itzulikatu bait zuen, eta harekin bertan eseririk zeudenak.

Nikok kalapita harekin eskuak ahora eraman zituen, segurki zetorkion trumoiaz kezkati, baina lurreratutakoak, sei bat edo zazpi, eta eltzearena ere, ez zitzaizkion haserre, baizik eta barre algaraka onartu zioten egindakoa, nahitazko broma izan bailitzan. Areago, eroritako atso idunekodun batek heldu zion eta:

– Ze oroipena, gazte! –esan zion–; ez gara honetaz ahaztuko! –eta argazkilari bat eskatzen zuen eszena hura inmortaliza zezan.

Argazkilaria ez zen agertu –«hobe», pentsatu zuen Nikok; «izan ere, merezi ote du publizidaderik?»–; baina atsoak, mahaia paratu zutelarik, bere ondoan eseriarazi nahi zuen; «ezin uka nezake orain», deduzitu zuen Nikok, eta atsoaren eskoinean jarri zen.

Atsoak, ezagutzen zituenak eta ez zituenak presentatu zizkion, eta Nikoren alboan zegoen neska ere, inglesa omen bait zen.

Neska hark, Nikok abisutzat interpreta lezakeen bat ere keinu edo seinalerik egin gabe, sorbaldan ipini zion burua Nikori, eta berotsu eta lainoki honela esan zion:

– Kontatuko didazu ipuin bat?

Niko aztoratu samarra zegoen. «Zer konta niezaioke? Jakin badakit bat edo beste, baina umeentzakoak dira denak; otsoen historia beharbada gustatuko litzaioke, baina luzea da eta ez zidan denborarik emango; bestalde, igual beste zerbait eskatzen ari zait...» Beharrik atsoak moztu zien:

– Arraia heldu da! –eta legatzek mahaiak inbaditzen zituzten artean, Nikok esan zion neska inglesari:

– Gero, bale?; nahi duzu gero?

– Bai, gero! –erantzun zion inglesak haserre antzean burua alderatzen ziola–; gero, engainatzeko ezta? Beti berdin! Ni ez naiz bada hemengo neskak bezain engainagarria, jakin ezazu hori!

«Zuriegitxo mintzatu al natzaio?», pentsatu zuen Nikok; «edozelan ere, horrenbesterako motiburik ez zegoen, nik uste dut»; baina ez zion ezer esan, eta legatza jateko atsoak ematen zizkion indikapenak jarraitu zituen.

Bat-batean, sukalde fogoietatik gertuagoko mahai batean, Mila ikusi zuen; Milak ere bai, bera, eta joan zedin egiten zion keinu. Atsoarekin diskulpatuz eta neska inglesari hark intimo eskertu ziola iruditu zitzaion laztanez agurtuz, joan egin zen Milagana.

Mila zegoen mahaian idi txuletak eta txerrikiak jaten ari ziren iadanik, eta Milak kariñoso koipeztu eta baratxuriztu zion Nikori sudurra musu batekin.

– Zer, polita? –esan zion gero–; uste nian ez hindudala berriz ikusiko!

– Piszinan ez zekinat nola izan zen...

– Ba hirekin egoteko gogoarekin gelditu nin-duan, egia.

– Ni ere bai gelditu nindunan... –hasi zen Niko.

– Mila, pasa txuleta hori! –agindu zioten or-duan neskari.

Milak nahi zuen hari txuleta ematen ziolarik, Nikori esplikatu zion:

– Hemen, nere koadrilarekin niagok: Sudur, Maribi, Txanpi, Joxepa eta Pepelu, txuletarena; Pepeluk maite duen neskarekin ezin egon eta jan eta jan egun saila darama; lehertzeraino jan, proportzioan edan, aisa mozkortu, ezin ibili, kasu bat. Horiek berriz –Txanpi eta Joxepagatik– atzo deklaratu omen zioten elkarri maitasuna, eta os-patu behar zelakoan, hemen dituk! Neri berriz inork ez deklaratu, ukorik ere inork eman ez: Ka-ribeko limoiak bezain fresko eta libre!

Niko ere, limoienak harrituta baina, halaxe sentitu zen, ogia baratxuritan bustitzen zuela; «eta Mila gustatu egiten zait: ea gaur suerte

gehiagoz ez garen galtzen». Fijatu zen orduan paretsuan bazuela gizakume zikoitz bat binaka hartzen zituela okela puxkak, eta bat jaten bazuen, bigarrena txaketaren sakelean sartzen zuela. Nikok bultoagatik dexente puxkak izango zituela kalkulatu zuen. Halako batez, Sudur, berak ere bestearen maniobra ikuski, baso bete ardo hartu eta sakelera hustu zion.

– Haragia lehorrik ez duk jango ba! –esan zion, eta bizkarreko terriblea jo zion lagungarri, bestea nahasmenduan utzita.

Askok barre egin zuten; zenbaitek burua kordokatzen zuten:

– Ikusi behar direnak!

– Postreak hemen dira! –bota zuen Milak orduan, eta Nikori xirri kalanbrea eman zion.

– Flana!

– Mamia!

– Horiek ere sakelera nahi dituka? –esan zion Sudurrek gizaseme zipotzari, gaiztoki.

– Pastelak!

– Melokotoia!

Gizon batek entsaladera bana ekarri zien, gura zituztenak bertan nahas zitzaten.

– Xelmo! –agurtu zuen Nikok berori bait zen gizona.

– Aiba!

– Orain zer –galdetu zion Nikok Xelmori–, kamarero al zaude?

– Kamarero? Sukaldari! –eta Niko zutiaraziz:– etorri, etorri sukaldera, ikusiko duk hor.

– Baina ni... hemen Mila eta...

– Mila, neska ona segur, baina jakin diat sarri joateko haizela eta gure sukaldea ikusi gabe joaterik ez duk! –eta mahai lagunak utzi behar izan zituen Nikok, honek txuletari horzka, horrek flanari milika, hark aho zabalka oraino gosez.

Sukalde-sukaldean makina gizon lanean ikusi zuen Nikok.

– Horiek zer ari dira? –galdetu zion Xelmori.

– Norberean! Nik ahateko salda eta porru muskuluak paratu dizkiat, Txantxik, hau da jefea, alkatxofa eltzea, horrek hau, hark hori, honek hura –esplikatzen zion, bata-bestea seinalatuz–; eta hau –kopeta txikidun batengatik– Kike duk, almazeneroa. Zer –esan zion Kikeri–, kontuak ateratzen zaizkik?

– Baziaudek hemen –Kikeri betartean larridura dibujatzen zitzaion– ehun eta berrogeitamar letxuga sobrante, larehun bat txuleta eta hirurogei kaxuela txipiroi. Legatzan aldiz urri beti bezala, hurrengoan Zapari zazpirehun kilotik gora ekartzeko esan beharko zioagu, eta irina eta arraultzeak ere, furgoneta bana, Santiri. Eta hauek? Kafea zerbitzen hemen beste punta hartan piperradarekin hasi ez direla!

Xelmok Nikori kontatzen zion:

– Badizkiat nik proiekto fantastikoak Niko, jangela haiek zabaldu, sukalde hauek ugaldu, apizioa sortarazi... Ari bait naiz ari, elkarte modu berri bat pentsatzen, badakik?, non jan egingo bait da eta aldi berean ikusgarriak egongo bait dira, eta kiroldegiak eta lotarako txokoak, entenditzen didak Niko?, leku bat non...

XXXI – Gauza bat baino gehiago

Ahotsaldi ozena altxatu zen onduan. Xelmok moztu zuen kontaketa batek iragarri zuelako:

– Txirrindulariak! Hasi dira txirrindulariak!

– Txirrindulariak! –errepikatu zuen jendeak, eta nahiaz gain ahala zeukatenak jeiki ziren eta ahotsak zetozen lekura jo zuten, zein zahatoa dilindan, zein txuleta ogibitartean; Xelmo ere zalea zen nonbait, ze esan bait zion Nikori:

– Nahi baduk lasterra ikusi, segi nazak!

Nahi eta nahi ez, igualtsu, masak haruntz, belodromoruntz, bait zeraman iadanik. Nikok ez zuen jakin bestalde belodromoa edo bestelako estadioa zen iritsi zirena, bizikletak ez ezik, hauek ordurako arineketan hasiak, oinezko korrikalariak bait zeuden barne zirkuito batean, eta beste kirol batzuk ere rezintoaren erdian, hala nola, pilota, aizkora, eta futbola. Estalia zen ala ez zen ere ez zuen garbi ikusten, ke astunak –baina lanbroa ere baliteke, hortik zalantza– era-

gozten bait zuen ikusmena: «dirudien legez belodromoa baldin bada, itxia izanen da», pentsatu zuen, argiak eguzkiarena izateko probabilidade asko zuela bazeritzon ere.

Sarrera hartan bizpahiru soinujolek alaitzen zuten giroa. Sagardo kupela nola bait zegoen, dastatze egiteko, han pilatzen zen jendeska, Nikok bere burua ere pilaturik ikusi zuela. Han zegoen nolabaiteko kilikitraka:

– Beliaindarrak faltsuak dituk!

– Zerbaitegatik deitzen zietek axeriak...

– Zuei eulitxak ere zerbaitegatik esango dizuete ba!

– Bai, Etxaurren zozoak!

– Auzkoienen ziraunak!

– Lauaizetan txirritak!

– Hi ere Lauaizetakoa haiz eta ze ari haiz esaka?

– Ni Lauaizetakoa? Lauaizetagaraitarra nauk ni, ez bait da gauza bera!

– Eta ondo hitz egiten noiz ikasiko, zuek?

– Ez zuekin ibili bitartez!

– Giputxik!

– Bilbainuak!

– Manexak!

Ukabilak altxatzen ziren eta Nikok, deus konprenitu gabe gainera, lurralde baketsuagoetara nahiago izan zuen.

Zenbait langile ikusi zuen, burdin-egurrez oheak montatzen ari zirela; burdin handiak eta egurrak hor nonbaitekoak zerabilzkitenez, Nikok ohe horiek espazio gehiegi hartuko zutela pentsatu zuen; gero, litera gisa bata bestearen gainean antolatzen zituztela ikustean, lasaitu egin zen.

Gradetatik lekaio alai burrunbatsua etorri zitzaion, futbolari batek kasik gola sartu zuelako. «Edo izanen da txirrindulari faboritoak lehen postua lortu duelako?», galde egin zion Nikok bere buruari ziklo pistan ere zerbait kurioso gertatzen zela ikusirik. Hala ere giza su hark ez zuen Oklahomako Bandaundiak magia handiz jotzen zuen jazza galerazten, Nikok banda horrek ehundaka entzule zituela ikusi bait zuen. Ez zegokion horratik talde murritzagoa haruntzaxeago jotzen zuen Pirinio Atlantiketako rock txapeldunari, batek zioenez, lehen aldiz jotzen bait zuen estadioan.

Adilego horren artetik –«eta ez zaie inon inkomodatzen», harritu zen Niko– bazebilen lagun franko, tipi-tapa eta korrika, anitzek buruan kapeleko zuriak, eta puesto batzuetan gogo onean dirua ematen zutenak, nonbait ibiltzearren bakar-bakarrik.

Bapatean ikusi zuen lagun lerro luzea, sare konponketan langile; haien ondoan beste batzuk berdin lanean, ikusleek ez itota mirakuluz, Nikok ikusi zituen sokaegileak eta saskigileak, teilaegileak eta kaikugileak, ametsegileak eta ezerezegileak, haria ehuntzen zutenak eta makilak burilkatzen zituztenak, kristala eta burnia eta buztina eta egurra eta harria eta larrua lantzen zituztenak.

Barraka batera iritsi zen non, batek:

– Kalimotxoa! –eskatzen bait zuen.

Gero beste barraka batzuk zeuden, emakumeen asanbladarena, euskararen aldeko batzordeena, auzo elkarteena, drogodependentziaren kontrako erakundearena. Kaskagorriko gazteena, homosexualeena. Lakontzako erradikalena. Kosk ekintza taldearena, langabeena, alturako itsasuntzietako langileen sindikatuarena. Txepe-

txa txarangarena, nuklearren kontrako komiteena. Muruetako talde antimilitaristarena, ekologisten asanbladarena, Aitzuriko kultur-etxearen aldeko auzokideena, alde zaharreko gaueskolarena... barraren alderdi batean zein bestean, erruz zegoen jendea.

«Segur, ez da galtzerik hemen –pentsatu zuen Nikok–; eta, hala ere –horrek harritu zuen konturatu zelarik–, arras galdurik nago».

Barraka bat bereziki gainezka zegoen. Presoen alde jasotzen ei zuten dirua hartan; kasualidade orduantxe bertantxe ari zela preso egondako bat harat ailegatzen; batzuek dantza zeremonioso zegioten, aurreskua entzun zuen Nikok batek esaten zuela; haizeak erabiliak, ikurriñak, eta haien artetik, bihotzez jotako zahar bat irribarrez, zausk egindako koju bat lurrean negarrez, eta beste hainbat lagun distingitu zuen Nikok.

«Horko irribarre hori, berriz, neuretzat ez al dut?», pentsatu zuen neska beltz jantzi batena ikusi zuelarik. «Ez, ez da izanen; egiaz, ez dakit nola interpretatu». Baina begiak ezpainetaratu zizkiola, neskak tonto esanez bezala mihia atera-

tzen ziola ikusi zuen. Orduan, urreratu egin zitzaion.

Neska hark bulartegia erdi agerian zuen, eta irri hemendik mirri handik, Nikori «mutiko, musua emaidak» esaten ziola iruditu zitzaion. Eta bularra kanpora zion eta eman egin zion musu, neskak gustora bildu zuena, baina baita bularra ere bildu zuen brusa barrena, eta harroska joan egin zitzaion. «Ez al nion eman behar?», esan zuen, bere kasa. Nikok: «ahul erakutsi ote dut neure burua?»; eta gehiago esango zuen, pentsatu zuen, ez balute, momentu hartantxe, buruan tuturru eta gerrian joare zeramatzaten tipo batzuek handik apartatu. Bi lerro gizon ziren izerditan, zanpa-zanpa tolon-tolon, gerri nekeak ezpain hertsietan nabarmentzen zituztenak.

Ondotik beste talde batzuk zetozen, zeintzuen eztabaida garratzetatik Nikori hitzok heldu bait zitzaizkion:

– Estatutoa!

– Kaka!

– Ta!

– Traidoria!

– Alua!

– Txaketerua!
– Demonioa!
– Borroka!
– Bake!
– Bake?
– Bake!
– Bake?
– Bake!
– Zera!
– Estatutoa!
– Kaka!
– Niko!
– Txo!

XXXII – Bilera bat

Izan ere. Txo konfidentzial hurbiltzen zitzaion:

– Etorri hemendik Niko, hau interesatuko zaizu.

– Txo! –kezkatu zen Niko–, nora naramak orain?

– Egon lasai: denak lagunak dituzu –eta abiatu zirela:– zer moduz zabiltza, bestela?

– Atzo hi utzita borroka latzak ikusi nizkian kalean.

– Jo al zintuzten?

– Ni ez; beste batzuk gogorki.

– Gaur ere badago zerbait: egunero, eta hartzen ez bazaituzte eskerrak; orduan bai gogorki!

Inor fijatzen ez zen eta Nikori langileek arropaz aldatzeko erabiltzen dituztenetakoa iruditu zitzaion txabola batera iritsi ziren. Txok atea erdizabaldu zion:

– Pasa zaitez aurrera.

Niko pasatu zen. Han zegoenak bilera bat ematen zuen, eta bazeuden bai ezagunak, Izaskun ari zen mintzatzen, Niko sartu zelarik agurtu

bait zuen. «Orain berriz ezagutzen al nau?», pentsatu zuen Nikok. Besteak ere ezagunak ziren: Azpitarte, Lolo. Patxiku, Ana, Tornilo eta Artzaia, Izaskun ari zen esaten:

– ...Arbrak bortxatzailea identifikatu bait zigun gauza bakarra falta genuen: haren zikiratzea; Srusta eta biok joan zitzaizkion nabalaz...

– Arbra eta Srusta, ijitoak? –galdetu zion Nikok Txori bajutik.

– Bai, Srusta eta Arbra anai-arrebak dira (Haw, baien lehengusua ezagutzen duzu, eta Mila eta Kati, Hawren izebak biak), eta Srusta ibili da Josebekin. Patxikuren alaba eta Palante osaba duena, ba osaba ere bada (hiru gizonok Kataren semeak dituzu) Izaskunen senarra. Josune alaba bait dute.

– A! –egin zuen Nikok.

Atea zabaldu zen eta amona kajatxo bat eskuan zekarrela sartu zen.

– Beti berandu iristen naiz! –kajatxoa utzi eta bufanda kentzen zuela– beti berandu! Ui! –esan zuen Niko ikustean– zu hemen! ze sorpresa ona! Ikusi, ikusi zer ekarri dudan –eta kajatxoa ireki zion– zuri gustatzen zaizkizunak... hartu, hartu.

Nikori han denen aurrean lotsa pixka bat ematen zion arren, hartu egin zion pasta bat.

– Zer daukak Niko, zuloa? –bota zion Artzaiak bere lekutik.

– Bai –esplikatu zion Nikok amonari–, hor kanpoan jana bazegoen...

– Bueno, baina pasta batek dijestioari lagundu egiten dio –esan zuen amonak, eta denek barre egin zuten; amona jarri zen eta kontatu zien:– ba, hona nentorrela, ezetz asmatu zerekin egin dudan topo...

– Kontrol batekin –esan zuen Anak.

– Horixe! Nola zenekien? –galdetu zion amonak–; baziren ez dakit zenbat eta bat neri apuntaka. «Zertarako arriskatzen duzu bizitza, mutil?», galdetu diot, eta papera bezain zuri jarri zait eta ez zekien zer esan. Ni, joan naiz badaezpadaere.

– Ondo egin duzu –esan zion Patxikuk.

– Horixe! –konfirmatzen zuen amonak.

– Asko daude kontrolak –esan zuen Txok, kanpora seinalatuz.

– Ez zuten Xelmo geldiaraziko? –galdetu zuen Lolok ajolatsu.

– Xelmo! Ez zaiguk galduko hori! –erantzun zion Azpitartek.

– Zurrutean egonen! –Patxikuk.

– Pieza ederra duk hori bai! –erantsi zuen Artzaiak, eta berehala:– baina ea, gurean, ba al dago zerbait gehiago?

– Bai –hartu zuen hitza Azpitartek–, nik badakart proposamen bat, gure taldean zehaztutakoa, zera ikusten bait da, alegia, batzuetan eztabaidatzeko materialak berandu eta ez osorik iristen direla, baina ez da hori okerrena, baizik eta, gero guk egiten dugula eztabaida eta bueltatzeko garaian horrek ez du deusik ere balio dena erabakia bait dago. Orduan zuzendaritza taldetan eta ez pertsonetan, taldetan zatikatzeko da gure proposamena...

Nikok ez zekien elealdi hartako nondik norakorik; Txok, konturaturik edo, aparte ez griña bizian Nikori iruditu zitzaionez, adierazten hasi zitzaion:

– Azpitarte ez dago behin ere ados dagoenarekin, da tipo zinparta... zainekoa dute zeren Usu bere lehengusina ere... hori. Azpitarte, nobio ibili da Ixirekin. Xelmoren iloba Antton bezala, nahiz

eta Antton beste adar batekoa; gu ere bagara senide edo zera horretakoak, zeren Xelmok ez dakit ze zeharkako harremana daukan Tirasokarekin. Maxen semea; ba, Max, aitatxi dugu guk. Graxi. Lauxi eta hirurok, haren semea –erdikoa, Tornilo baitu zaharragoa eta Fela gazteagoa–. Ruiz, gure aita delako. Eta Max eta amona, lehengusuak.

– Gauza horiek eta baita ere –orain Lolo sartzen zen denen hizketan–, gauza sinplexeagoak pasatzeko, geure mailagokoak...

– Bai, zeren lehengoan –esan zuen Patxikukheldu zitzaigun totxo hura, nola zuen izena, kasik ezin izenetik pasatu, gero irakurtzen hasi eta, nola zen hura?

– Troski –lagundu zion Lolok.

– Horixe. Troski zen; barretan pizak egiten genituen: Troskik hau esan zuela bestea idatzi zuela... «Txakurrek ba al dakite ba, mintzatzen?», galdetu zuen Perikok, eta besteok ere...

– Txakurra zelakoan –apuntatu zuen Lolok.

– Eta hala da txakurra –esan zuen amonak–; gure Rosaritok halakoa du.

– Baina entzun, entzun –Tornilo nahiko bero zegoen eta moztu egin zuen hizketaren haria–, horiek egingo dira egin behar badira eta bestela ez dira egingo eta zer egingo da, baina gauza urjentea da nerea eta entzun ezazue ondo: atzo jakin nuen non gordetzen duten Antton, eta ez dugu biziki erraza baina mutila atera beharra dago lehenhailehen.

– Antton? –esan zuen amonak erne-erne jarrita– noski atera beharra dela! Zer egin behar da?

– Badago galeria bat, planoa hemen duzue –eta Tornillok mahai gainean plano batzuk destolestatu zituen– eta hori hartuz gero...

– Antton hori ere –galdetu zion Nikok Txori– familiakoa al da?

– Esan dizut bada. Antton Xelmoren iloba dela, eta Koletterekin erdi dabil; Kolette. Lolo horren arreba da eta Françoiseren alababitxia eta Karmenen alaba, beraz Artzaiaren biloba, zeren Artzaiak bere lehen ezkontzan izan zuen, bigarrena Katarekin egin zuela –hortik Kike eta Pilartxo seme-alabak– (Patxiku eta Palante ez bait dira Artzaiarenak), eta hirugarrenetik Pui eta Pako izan zituen, ulertzen duzu ezta?

– Den-dena ez baina –erantzun zuen Nikok diplomatiko.

– Beraz –Izaskun ateratzen ari zen konklusio hau– komandu buru, hi izango haiz Tornilo.

– Bai noski! –esan zuen Tornilok oso pozik.

– Ez badago besterik –hasi zen Ana, eta Nikok neska ederra zela zerabilen buruan– Mujikaren bahiketaz esan nahi dizuet operazioa arrakasta bat izan dela, primeran atera zaigu. Agirrerekin jeneral baten inplikazioak deskubritu gainera. Max eta biok izan genuen etxetik...

– Ester da eta! –eskapatu zitzaion Nikori, Txori.

– Horixe badela –esan zion Txok ahapeka–. Ester, badakizu, pelukeroa; hori atso sorgin baten biloba da; Artzaiaren ama dena beste alde.

– Ni Ana zelakoan...

– Itxuraldatzea gustatzen bait zaio. Baina, entzun!

Artzaia altxatu bait zen solemnidadez Nikori esateko:

– Eta horiek bukatuta, hik, Niko, ez dezakela ahaztu bueltarako trena hemendik ordubetera dukela.

– Eeeee! –bota zuen Nikok–, ordubete bakarrik? Eta nola egiten dut orain? –denei begiratu zien eta azkenez Txori.

– Orain dena erraza da –erantzun zion honek–, etorri nerekin hemendik.

Nikori musuak eta besarkadak eman zizkioten denek. Azkena, Artzaia, Nikok ezagutzen ez zion doinu harrigarriz esan ziona:

– Hi: gogoratzen haiz, piszinan utzi hindudanean, liburu bat zeraman tipo baten atzetik atera nintzela, hartaz inkesta egitera? Hi, harrapatu nuela eta bera bakean uzteko, bera ere pertsonaia zela eta bakean uzteko. Bera *ere* bazela. Horrek utzi naik historia honetan txunditu samarrik. Bera *ere* bazela –Nikok ikusi zuen Artzaiak, jartzen zuen aurpegiagatik, berak ez ziola horretaz argirik emango ulertzen zuela; izan ere, honela segitu eta bukatu zuen:– en fin, munduak buelta asko ematen dik eta zer egingo diogu! Agur, Niko, ibili bizkor!

Niko ez zen kezkarekin Artzaiaren mintzoaz handizki enteratu, eta Txori jarraitu zitzaion, ate bateraino: Txok zabaldu zuen atea, sar zedin esan zion, eta barruan zegoela, atzean «oraintxe arte» esanik hertsi egin zion.

XXXIII – Non Niko bait doa

Gelan zen. Atera zenean itxirik zegoen atetik sartua zen orain.

Bai, gela zen, ez zegoen dudarako lekurik; han zegoen tetxoa, ez altu ez baju, han zurezko lurra, han mahai sendoa; han ohe gainean fin-fin plantxatuta koadrotxozko zapia; han, oheazpian dirdir zegitela, oinetakoak.

«Zer ibili naiz? –penuatu zuen–; egiaz, harriturik nago gertatu zaidan denaz eta gertatu zaidan gauza bakoitzaz».

Eta zapatak eta pañueloa eta xaboia maletara sartzen zituelarik segitu zuen: «agian merezi-ko luke Mujika ikusteak... baina ez... eta Agirre? nor ote da Agirre?, agian horiek asmatu zuten, agian kontserjeak, agian... jakingo banu... eta Esteban...? eta Zeta...? eta Kaskazuri...? ba!», eta etsi antzean itxi zuen maleta.

«Eta hala ere –berrartu zuen haria–, hala ere erreportajea egin beharko bestela...»

Aszensorera eraman nahi izan zituen maletak, baina hor zetorren bizkor Txo bere uniforme gorriz.

– Laga, laga, nik eramango dizkizut –esan zion.

– Hik bat eraman, eta nik bestea –esan zion Nikok.

– Zer, ondo pasatu duzu?

Nikok ez zuen ezer erantzun jakin; gero, atera zitzaion.

– Bai, ondo.

– Nik ere bai –ihardetsi zion Txok.

Aszensoretik irten eta denak ziren pasiloak, eskailerak eta mostradoreak. Mostradore baten atzetik Nikok ikusi zituen Fela, Kolette eta Pilartxo. Batak begiz besteak ahoz hirugarrenak sudurrez keinua egiten zioten hiru neskek.

Niko eta Txo irteerara joan ziren. Txo isilik zihoan, eta Nikok errespetatzen zion isiltasuna. Baina eskailerak jeitsi zituztela Nikok Txori malko lodi bat labantzen zitzaiola ikusi zuen.

– Txo! –esan zion–, zer duk mutiko?

– Pena dut –erantzun zion Txok–; zurekin ondo egon bait naiz.

Nikok bi eskutartean hartu zion aurpegia Txori, xukatu zion malko lodia, eta itzuliko zela esan nahi izan zion baina eztarrian korapilo egin zion eta musu, bakarrik musu eman zion betartean.

Taxista zai zeukan eta sartu zen kotxean.

Atzera begiratu zuenean hotelaren formak lainoak ezabatzen zituen...